



ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 33



LURRETIK IKASIZ

Joan den urteko arrakasta ikusita, Lurretik Ikasiz programari segida ematea erabaki dute aurten. Ikasleek landa eremuko nekazarien eta abeltzainen ekoizpen tikiak hurbiletik ezagutzea da helburu nagusia. / 8

ARANTZAKO HERRI ESKOLA

'Herri libre bat' hitzordua Leitzan

Irailaren 21 ean, hizkuntza, lurraldetasuna eta kirola lotuz, egunpasa antolatu dute hainbat eragilek. / 44

SINADURAK



ZOKKETA / 22



Agustina Otero Fernandez
eskultorea ibilbide luzea egiten ari da / 10



Josu Txoperena eta Patxi Martin Ernaiko
kideek isuna hartu dute / 24



Jorge Agirre
Lesakako futbolaria Portugalgo lehen mailan / 62



BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA
Lesakako Matxinbeltzenea
948 637 796 · bortziriak@ika.eus

MALERREKAKO EUSKALTEGIA
Donezteben, Rosa Seminario, 6
948 451 555 · malerreka@ika.eus

LEITZAKO EUSKALTEGIA
Leitzan, Euskal Herria Plaza, 1
948 610 776 · leitza@ika.eus

DIRUZ LAGUNDUTA

MATRIKULA ZAITEZ
irailaren 30a baino lehen

www.ika.eus

euskara errazago egiten **ika**



ITURRIA
V I V I E N D A S

BI NABE BERRI IRURITAKO ZALDUBI INDUSTRIALDEAN

- Garbigune berriaren ondoan, urbanizazio berrian
- NA-8307 errepidearekiko paraleloan, industrialdearen hego-ekialdean

Zure beharren arabera egokitzeko aukera

30x33 metroko solairu bakarra edo bi nabetan banatuta

Dagoeneko martxan den industrialdeko azken lanak

Hormigoizko egitura prefabrikatua, estalkia isolatua, zati batean edo osoan solairuartea egiteko aukerarekin

Baztanberri Plaza, 2. Behea, 31700 **Elizondo** · **674 88 03 06** · info@iturriaviviendas.com



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Haizea kontra

Herritik behera abiatu nintzen bizikletan. Pedalei eragiten hasi orduko konturatu nintzen haizea kontra nuela. «Tira, baikortasuna gauza ederra da eta itzuleran, maldan goraka heldu naizela aldeko haizea izanen dut», pentsatu nuen. Kilometro batzuk egin eta eserleku estu gogorrek inpurdia mintzen hasterako buelta hartu nuen etxerantz eta hara ustekabea! Berriz ere haizea kontra! Ederra martxa!! Nola liteke?

Hanka-zuztarretan indar askorik ez denean, haize ufa txikiena ere kontrakoa iruditzen zaigu. Euskararekin antzeko zeozer gertatzen zaigulakoan nago. Azken aldiaren Iruñea aldean dexente ibili naiz eta han aldeko haizea harrapatzea ez da erraza. Txirrindulariek edo migrazioan hegan doazen kurriloek bezala egin behar, alegia, bata bestearen atzean sartu eta haize-babesik egokiena duen lekua aukeratu indarrak aurreztuz aurrera egiteko. Bai, zaila eta neketsua da hau baina... ez dago besterik. Eman!

«ZAILA ETA NEKETSUA DA, BAINA EZ DAGO BESTERIK...»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Lau minutuko dutxa

Bolumen handi xamarra dugunok zailagoa izanen dugu beharbada, baina banaz bertze hamar minutukoa izan ohi den dutxa bakoitzaren iraupena lau minutura mugatuz gero, 120 litro ur aurreztuko genuke. Nafarroako bizilagun guztien dutxak batuz gero, 7 milioi litro, 24 igerileku olinpiko betetzeko adina. Eta larruazala osasuntsuago gainera!

NABARMENTZEKOAK



AINHOA
ETXEGARAI
BERAKO KIROLARIA



ELLANDE
LARRONDE
SARAKO TXIRRINDULARIA

Bertze behin ere irabazi du Nafarroako lokotx biltze txapelketa Ainhoa Etxegarai beratarak. Gainera, 2022tik berak zuen Euskal Herriko errekorra ere hobetu du, bi segundotan (07.05).

Uztailean Kanadako Tour de l'Abitibi itzuliko hiru etapa eta sailkapen orokorra irabazi ondotik, munduko pistako txapelketan parte hartu du Txinan 17 urteko txirrindulari saratarak.

GIBELERA BEGIRA



2014-08-07 · TTIPI-TTAPA · 621 zk.

Iñaki Atxarekin natur argazkilaritzaz

Hontz laponiar eta hartz arreen arrastoari segika joan zen duela hamar urte Iñaki Atxa argazkilaria baztandarra Finlandiara, eta bidaia horretan izandako abenturak kontatu zizkion TTIPI-TTAPAri bere 621. aldizkarian. Ander Olaizola argazkilaria erakusketa batek txundituta utzi, eta berehala ekin zion argazkiekin saltseatzeari Atxak, eta Finlandiara egin zuen argazki ateratzeko lehen bidaia handia. Astebeteko egonaldia, hainbat lekutan ibili ziren argazkiak egiten. «Arratsaldetik goizaldera arte oihanean sartuta 14 orduko itxaronaldiak egiten genituen estrategikoki kokatuak zeuden gordeleku kamuflatu ttiki batzuetan», azaldu zuen. Zorteko izan ziren gainera, ez baitziren esku hutsik etxeratu egun bakar batean ere.



erran.
eus



Argitaratzailea

Ttípi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larrebexa
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,
Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena,
Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mixelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€





KOLABORAZIOAK

JOAN MARI BELOKI KORTEXARENA

Hau ez bada, zer?

Aurtengo Joko Olinpikoetan Grenada (107.000 biztanle), Dominica (72.400), Santa Lucía (183.000)... bezalako herrialdeak ikusi ditugu dominak irabazten. Euskal Herria, hiru milioi biztanle dituena, berriz, parte hartu ezinik geratu da berriro ere. Beste behin ikurrina podiumean ikus ahal izan gabe eta beste behin «Ikusi mendizaleak ... gora, gora Euskal Herria!» abestu ahal izan gabe geratu gara euskaldunok. Berriro ere gure kirolari onenei txalo zaparrada eskaini ahal izan gabe. Espainiako presidentearen arabera estatu nazio aniztun baten nazioa garen arren.

Euskal selekzioen ofizialtasuna ahalbidetzeko, Sánchez presidenteak PSOEn zuzendaritza proiektuaren onuraz konbentzitzen eman beharko luke lehen pausoa. Urrats hori erraz lortuko luke alderdian lider sendoa delako. Arazorik gabe ere jaso beharko luke aliatuen babesa Madrilgo Parlamentuan legearen aldeko bozak ziurtatzeko orduan. Aurka joko duten bakarrak PP eta VOX izanen dira. Espainia hausten ari dela errepikatuko dute enegarren aldiz, hainbat arrosario errezatuko dute Ferraz kalean... eta deus gutxi gehiago. Maila instituzionalean ez du zertan trabarik izan presidente jaunak.

Eta Espainian azken hamarkadetan agintzen ari diren indar faktikoen zer? Indar ekonomikoen, hau da, bankuek, burtsako inbertsoreek, multinazionalak, finantza merkatuek, putre funtsek eta enparauk deus galduko al dute kirol selekzioak gure esku utzita? Ez

«AURRERAPAUZO GISA, BRITAINIA HANDIKO EREDUA IZAN DAITEKE...»

dirudi beren administrazio kontseiluen bileretan sartzeko moduko hizketagaia denik. Eliza Katolikoa, Armada, Polizia eta epaileak ere ez dira espero gai hau jorratzeko orduan.

Baina Madrilgo komunikabideen multzo erraldoia? Espainia urdinaren dozenaka bozemaile horiek... horiek bai hasiko direla zaunkaka. Egunkarietan orri osoak beteko dituzte, irrati eta telebistetan orduak emanen dituzte ... Zaunkaka ez ezik orroka eta arrantzaka etengabe ariko zaizkigu, ziur. Baina gaseosari bezala indarra poliki-poliki joan egingen zaie, legeak Parlamentuko bidea agortu ondoren etsiak hartuta geratu arte.

Aurrerapauso gisa, Britainia Handiaren eredia interesgarria gerta dakiguke fase honetarako: urtero eta kirol mota guztietan, Ingalaterra, Eskozia, Gales, Ipar Irlanda eta Gibraltarrek beren selekzioekin jostatzen dute. Salbuespen bakarra dute: lau urtez behin, Joko Olinpikoetan, kirolari guztiak Britainia Handiaren izenean aritzen dira.

Pedro Sánchezek izanen al du halako erronka euskaldunoi jartzeko ausardiarik? Gai honekin ausartzen ez bada, polizia espainiarra hemendik eramatea samurragoa egingen al zaio? Edo agian Armada Espainiaratu eta kuartelak eraistea? Edo independentziaren inguruko galdeketa abiaraztea? Edo Gizarte Segurantzaren gure instituzioen esku uztea? Edo...

Espainiako presidenteak estatu nazio aniztunaren alde zinez dagoela erakusteko gai aproposa du haxe.



AINTZANE ARIZTEGI BARRENETXE

Igoko al dut Instagramera?

Duela aste pare bat hor barna ibili nintzen oporretan. Azken aldirian neure burua lantzen ari naiz, momentua bizitzen saiatzeko, eta beti etorriko denarekin edo emanen dudan irudiarekin ez obsesionatzeko. Sinplea izan arren, ez da ariketa erraza.

Udan eta oporren bueltan, *postureoa* bere maximora ailegatu ohi da. Testuinguru horretan, denok sentitzen gara harrapatuta. Udan deskonektatzea zaila da, kontrakoa erran ohi den arren. Ezin sareetan ibili konparazioaren tranpan erori gabe, frustratu gabe.

Zu etxean zaude, lasai-lasai. Urte osoko lan gogorra konpentsatzeko opor egunetan. Behingoagatik geldirik, egonean. Hori da nahi duzuna. Erabaki kaltegarri bat hartu duzu, ordea. Mobila eskuetan hartu eta Instagrameko historiak ikusten hasi zara. Lehena Balin, bertzea Kuban, hurrengoa ez da hain urrun joan baina Menorkan dago, ilunabarraren bideo bat igo du, itsas bazterreko kala idiliko bat ageri da bertan.

Etxean, geldirik, deskantsuan egotea erabaki zenuen. Hautu ona zen, gainera, dirua aurrezten ari zara. Mobila eskuetan hartu duzunetik, ordea, tripetan zerbait darabilzue bueltaka. Behar berri bat, damua, frustrazioa... Nik ere nahi dut.

«OSASUNTSU AKITUKO DUTENAK MUNDU DIGITALEAN EZ DAUDENAK DIRA»

FOMO sindromea, kaltea.

Neure buruari galdetzen diot maiz: «Zergatik nahi dut igo *story* hau?». Eta ez dago erantzun argirik. Ziur aski, zure irudia lantzeko modu bat da, janzkerarekin egiten dugun moduan. Baina argi dago, nire Instagrameko profila ez dela nire bizitzaren isla, urteko hiru egun *eszeptionaletan* igotzen dudalako zerbait.

Gutienez jakin dezagun, guri bertzeenak eragiten digun bezala, gureak ere baduela eragina bertzeengan. Konparazioa etengabekoa den mundu digitalean, osasuntsu akituko duten bakarrak bertan ez daudenak izanen dira, hori seguru. Mobila itzaltzea hautu erreala izan dadila.

11 GALDERA LABUR

AITOR ITURRALDE GOÑI ELBETEKO GAZTEA

«Zopak eta herri bazkaria maite ditut gehien»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Geldirik egoten ez den heme-retzi urteko gazte baztandar bat naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Lagunekin denbora pasatzea, bestan edo arratsalde pasa, eta ahal denean kirol pixka bat egitea.

Zerk egiten ditu berezi Elbeteko bestak?

Tikitatik hemen bizi izan naiz, betidanik ikusi dut bestetan herritarren artean sortzen den elkartasuna eta egun hauetan elkarrekin disfrutatzeke aukera izatea ederra da.

Zein dira dituzun bestetako lehen-biziko oroitzapenak?

Txikitan ilusio gehiena haur-raren egunak egiten dizu. Bereziki gogoan ditut puzga-

rriak eta herritik pasatzen zen trena.

Eta gaur egun zein da gehien gustatzen zaizun eguna edo jarduera?

Gaur egun zopak eta herri bazkaria maite ditut gehien, herrikoak gaudelako. Zikiroa ere gustuko dut beste herrietakoak ere hurbiltzen direlako eta plaza betea ikusteak aunitz pozten naudelako.

Besten aitzinetik dena prestatu beharra da. Nortzuk aritzen zarete?

Bestak gazteen artean antolatzen ditugu. Batzuk hartua dute ardura, besteok laguntzen aritzen gara eta asmoa da horrela ikasten joatea, gure artean elkarri txanda eman eta etorkizunean bestak antolatzen guk segi ahal izateko.



Zenbat denborarekin hasten zarete prestatzen?

Ez dugu data zehatzik hasteko, baina saiatzen gara tenorez ibiltzen musika hasieratik lotzeko. Gutti gora behera, lauzpaborts hilabete lehenago hasten gara elkartzeko.

Zerk ematen du lan gehien?

Musika aukeratzeak, ez da lan zaila baina deborarekin egin behar da.

Zerbait aldatuko zenuke?

Aurrekontua handiagoa balitz zerbait aldatzerik egonen li-

tzateke, baina daukagunarekin besta borobilak izaten direla iduritzen zait.

Zure asmoak epe motzera?

Bestetan gozatzea. Gonbidapena ere egin nahi nieke inguruko herrietakoei, etor daitezela gurekin batera ongi pasatzera.

Eta epe luzera?

Urtetik urtera bestak hobetzen joatea, jarduera berriak sartzea... hori delako etorkizunean herrietako bestak bizirik segitzeko sekretua.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak

Merkealdia

azken egunak

2024-09-05 | 861. zk. | ttipi-ttapa 5

IRAKURLEAK MINTZO

Aroztegiko 7ak, herri lurrak eta independenteen abstentzioa**ESTEBE APEZETXE MURUA**

Aroztegiko zazpi akusatuen harira, joan den uztailaren 18ko Baztango Udaleko osoko bilkuran EH Bilduk mozio bat aurkeztu eta bozkatu zen akusatuei elkartasuna adierazteko «talde kriminal» akusazioa jaso baitute zigor eskaerekin batera. Horrez gain, Nafarroako Gobernuari galdegiten zitzaion berarentzat hartu dituen lurrak baztandarrei bueltatzeko eta UGEPa bertan beheiti uzteko. EH Bildu eta Zurekin Baztan alde (8); Geroa Bai kontra (1); UPN eta Independentek abstentzioa (2).

Geroa Bai koherentea izan da eta betiko posizioa mantendu du, baztandarrengandik gero eta urrunago. UPNk abstentzioa bozkatu zuen denen harridurarako. Baina, harrigarriagoa izan zen, akaso, Baztango Independenteen abstentzioa. Bi eserleku dituzte baina bat hutsik egon zen, bigarren hautetsia ez baitzen osoko bilkurara agertu.

Harrigarria izanagatik, agian isilegi pasatu da afera, batez ere kontuan izanik Independentek «nekazarien» defentsaren bandera harrotuz ibili direla. Baina, hitzez erraten ari direna gero ez dugu praktikan ikusten.

Alde batetik, hain nekazarien defendatzaile izateko, bertze aldera begiratu dute lurra defentsan protesta egiteagatik zazpi baztandarri halako eskaera egin dietenean. Komeni da oroitaraztea Palacio de Aroztegiak bere garaian nekazaritzarako 45 lur hektarea erosi, eta, birkalifikatu eta hirigarri bihurtu zirela, «mirariz» lur horien prezioa biderkatu eta promotoreak aberastuz. Proiektuak 200dik goiti txalet, hotela eta golf zelaia egin asmo zituen belai paregabe batzuetan eta baztandarren kontrakotasunaren aitzinean proiektua UGEP bihurtu eta Iruñera eramane zuten Baztan mututuz. 2021ean, proiektuak paper guztiak izan gabe ere, errepideak egiten eta arbolak mozten hasi ziren eta, orduan, hainbat pertsona sartu ginen makinan aitzinean esertzera. Protesta baketsu horiengatik orain «talde kriminala», 20 urteko kartzela zigorra eta 56.000 euroko eskaerak egin dizkiete zazpiti. Proiektuaren alde egon edo ez, iruditzen zait zazpi baztandarri halako eskaera desproporzionatua egiten zaienean guttienekoa zela behintzat

osoko bilkurara agertzea. Hala ere, praktika arrunta dela ematen du, Independenteen bigarren hautagaia 13 osoko bilkuretatik bakarrik 6tara agertu baita.

Bertze aldetik, mozioan UGEPa bertan beheiti uzteko eskatzen zen. Kasu horretan ere harriztekoa abstentzioa, kanpainan zehar zernahi aditu baititugu NPB edo PACaren harira, alkatetzaren erruz lurrak galdu direla eta udalak ez duela prestutasunik eta bertze. Eta basozainak bidali behar direla mendi bazterrak garbitzera, jabe batzuek NPB-PAC kobratu dezaten. Hori erran, baina gero Nafarroako Gobernuari lurrak bueltatzeko eskatzeko tenorean, isilik? Ez da ahantzi behar UGEParen proiektuaren ondorioz hainbat lekaroztarren lurrak bortxaz sartu zirela proiektuan eta herri lurrak ere sartu zituztela bertan gure baimenik gabe. «Herritar aunitzen ahotsa» zirela erran zuten alderdia sortzerakoan, baina herri lurrak defendatu behar direlarik, isiltasuna.

Berriz ere, ez da lehendabiziko aldia. Ez zaigu ahantzi: 2023an, Erdizko proiektua UGEP moduan tramitatzea onartze bidean zela, Batzar Nagusiak herri galdeketa proposatu zuen. Independenteen zerrendaburu dena orain Almandozen alkate zen orduan, eta bera izan zen abstenitu zen alkate bakarra. Galdeketa hori debekatu zutenean, alkateak elkartu ziren galdeketa herrietan egiteko. Kasu hartan ere, bera izan zen galdeketa antolatua nahi izan ez zuen alkate bakarra.

Kartzela zigor eskaera lotsagarriak jaso dituzten baztandarrekiko elkartasuna erakusteko eta UGEPa alde batera uztea eskatzeko aukera izan zen osoko bilkuran. Independenteen botoa ez zen determinantea izan, baina bai adierazgarria, berriz bertze aldera begiratu baitute. Sutan paratzean probatzen da eltzeta.

Baserria eta Plazaola natur bidea

GARIKOITZ ALDUNTZIN SORRON, AITZIBER ALDUNTZIN SORRON, LOURDES SORRON LIZASO, JUAN BAUTISTA ALDUNTZIN ZESTAU ETA SABINO ALDUNTZIN ZESTAU

Leitzako Joantxenea baseritik idazten dugu. Udaletik adierazi digute azken egunetan jendearen kexak iritsi zaizkiela, Plazaola natur bidean gure artaldearen kakek molestatzeko dutela esanez.

Kontraesana bada ere, baserria eta natur bidea ez datoz bat, une honetan

talka batean gaude. Ulertzen dugu jendea pasean, txakurrekin, haurrekin dabilena eta etxetik txukun ateratzen dena, bidean ardi kakekin zikintzea ez dela atsegina. Baina ez al da naturaren parte? Gure aiton-amonei galdetu al zieten trenbidea egiterakoan garrantzitsua ote zen haientzat belar soroak erditik zatitzea?

Gaur egun oraindik zatiketa horren ondorioak jasaten ari gara. Gure ardiek abaroa maite dute, baita gauetan lo goxo egiteko beren txokoa. Orduan, gure ardien askatasuna non gelditzen da? Ardiek ez dute hegalki belar soro batetik bestera pasatzeko, eta artzaintza gure ogibidea da. Baserriak mendez mende bizirik iraun dute, baina bagoaz maldan behera. Baserriarrei esker, natur inguru asko garbirik daude eta, martxa honetan, dena sasi bihurtuko da.

Bakarrik sentitzen gara, babesik gabe, eta ez dugu ahaztu behar denak lurretik bizi garela. Beraz, jakinarazten dizuegu Aurtxikeneko tuneletik pasatzerakoan ardi kakak aurkituko dituzuela. Hausnarketa egin ondoren, mundu honetan bizi garen izaki bizidun guztiak eskubide bera dugula uste dugu. Nahiko traba badaude jadanik baserri munduan. Joka dezagun enpatiaz eta itzuli gaitezen bizitzaren esentziara.

Oposizio lehiaketa sistema

IORITZ MARTINEZ NAFARROAKO BITARTEKO MAISTRA

Bi urtean behin, Nafarroako hezkuntza aritzen garen irakasle gehienak oposizio lehiaketa prozesu gogor, estresagarri, subjektibo, bidegabe, inkoherente, ulertezin, eta askotan, umiliagarri baten aurrean gaude, zoritxarrez.

Prozesua benetan estresagarria da; nota hiru deialdietarako gordetzen zaigun arren, deialdi bakoitzean kontratatuen zerrenda berria sortzen da. Kontratazio zerrendak oposizioekin lotuta daudenez, ordezkapen zerrendan posizio onean mantentzeko, aldi oro ikastera derrigortuak gaude. Gainera, deialdi bakoitzean eskaintzen diren plazak oso gutxi direla ikusita, plaza lortzeko gutxieneko nota gero eta altuagoa da.

Zuzenketa sistema oso subjektiboa da. Epaimahaiek zuzenketa aurretik gai zerrenda propioa sortu behar izaten dute. Horrek ez du zentzurik, denok oinarri bera izan beharko genuke azterketa egin, eta ondoren, zuzentzeko. Zuzenketa irizpide orokor batzuk ematen

zaizkie, baina ez da aurretik ebaluazio errubrika zein den jakitera ematen, eta epaimahai bakoitzak bere ebaluazio plantilla zehazten du; hori dela eta, epaimahaiak oso modu desorekatuan zuzentzen dituzte azterketak. Adibidez, 2024ko deialdian, Euskarazko Haur Hezkuntzako espezialitatean, praktikoan, 3. epaimahaiak 40 zerorekin kalifikatu du 77 hautagaiko taldean, eta 2. epaimahaiak 7 zerorekin 75 hautagai-kotaldean. Objektiboa eta bidezkoa bada...

Gainera, ez da bidezkoa azterketaren berrikuspena eskatzu gero, soilik ebaluazio irizpideen zenbaketa orokorra zuzena den egiaztatzea. Inork ez du gure azterketa berrirakurtzen, ezta beste epaimahaiekin kontrastatzen ere.

Eta ahozko azterketaren zatia ez grabatzeak ez du zentzurik. Epaimahaiari estres eta presio handia eragiten dio ahozkoaren une berean errubrika bati kasu egin behar izateak, edozein atal berriro entzun ezin duela pentsatuz. Eta zalantza bat izanez gero? Azalpenaren ulean epaimahai alderdiren batez ohartu ez bada, oposizioegileen hitzak haizeak eramaten ditu. Zertarako balio du ahozko azalpena erreklamatzek?

Era berean, ez da justua ahozkotasan hobeto moldatzen direnei zatirik praktikoa egiteko aukerarik ez ematea. Guztiok, ahozko atala, idatzizkoa gaitu gabe egiteko aukera izango bagenu, edota azterketa teorikoak egun desberdinetan egingo balira, baliteke azken emaitzak ezberdinak izatea.

Azterketa estiloa guztiz inkoherentea da ikasgeletan aplikatzea eskatzen zaigun hezkuntza jarduerarekin. Hau da, metodologia aktiboek, ikaskuntzaren diseinu unibertsalak edo prestakuntzako ebaluazioak oposizio lehiaketa sistema honetan ez dute tokirik.

Gainera, ulertezina da azterketa idatzi batean ortografia kontuan ez hartzea; izan ere, maisu batek zerbait menperatu behar badu, alderdi hau da.

Umiliagarria da, era berean, hezkuntzaren arloan urteak lanean daramatzaten profesional onak azterketa

teoriko batean zero edo 4,999 nota barregarriekin kalifikatzea. Epaimahaiak dauden pertsonen lan baldintza hobek izango balituzte ez lirateke horrelako bidegabekeriak gertatuko. Egutero 12 orduz lan egitera eta azterketak presiopean zuzentzea behartuta daude. Baldintza horietan azterketak gogoz eta objektibotasunez zuzendu daitezke?

Irakasleak umiliatzen eta gogogabetzen ari gara, eta profesional handiei ihes egiten uzten. Benetan hori da haurren etorkizunerako nahi duguna?

Elizondoko Osasun Etxeko langileak kezkatuak

XABI ZARANDONA ELIZONDOKO OSASUN ETXKO ZUZENDARIA

Baztango Oinarriko Osasun Eremua Nafarroako hedatuena da; 390 m² ditu. Horregatik, 365 egunez eta egunean 24 orduz etengabeko arreta eskaintzeko, etengabeko hiru arreta puntu ditu; egoera horretan dagoen Nafarroako haran bakarra da. Gainera, dispersio handiko eremua dugu: Nafarroako Ospitalea Urdazubi-Zugarramurditik 75 km-ra dago, Elizondotik 55 km-ra eta Oronoztik 45 km-ra; kontuan hartu beharreko afera, dudarik gabe.

2024ko maiatz akabailan eta ekain hasmentan, langileen udako oporraldi garaian, Elizondon dauden hiru mediku konsultetatik, bi hutsik gelditu ziren. Elizondon goizetan egon behar duten hiru medikuetatik bakarra gelditu zen.

Uztailean, langileen oporrek eta bi medikuren faltak suposatzen duten arazoari aurre egin eta osasun arreta bermatzen segitzeko, Elizondoko Osasun Etxeko medikuek ohikoa ez den egoeran lan egin behar izan zuten; gehiegizko ordu estrak eginez eta honek ekarri ahal zituen arriskuak hartuz.

Zoritxarrez, esfortzua eta borondatea ez ziren nahikoa izan trabak saihesteko. Uztailearen 11n, 24an, 27an eta 31n, 15:20etik 08:00etara, Urdazubi-Zugarramurdiko eremua medikurik gabe egon zen eta Elizondotik eskaini behar izan

zieten osasun arreta. Urdazubi-Zugarramurdi eremuko larrialdiak Elizondotik artatzen direnean, 30-40 minutu bederen berandutzen ahal da arreta. Aldi berean, Erbarea eta Baztango 90-120 minutuz medikurik gabe gelditzen dira, Urdazubitik bueltatu arte. Hau da uztailearen 31ko arratsaldean bi aldiz gertatu zena. Abuztuan Urdazubi-Zugarramurdin egoera errepikatu zen.

Arizkun, Erratzu, Irurita eta Oronozko eremuetan ere, kalteak sumatzen dituzte. Medikuen oporretan eta bertze gisako absentzietan, ordezkapen falta sumatzen edo sumatuko dute. Adibidez, Arizkun eta Erratzun, abuztuaren 13an, 14an, 20an, 21ean, 22an eta 23an ez zuten goizetan medikurik izan. Iruritan iraileko bigarren astean ez dute goizetako medikurik izanen eta Oronozen, iraileko azken bi asteetan. Azken bi urteetan ohikoa bihurtzen ari da egoera. Gainera, iraila aitzindu ahala, egoera larrituko da, Elizondok ez baitu familiako mediku bakar bat ere izanen plantillan.

Iparalde Eremuko Lehen Mailako Arretako Zuzendariordetzak badu egoera larri honen berri, baina ez du erantzunik ematen. Eskertuak gaude eskualdean urte aunitzez lanean ari diren administrari, erizain eta medikuekin. Esker onez beteak gaude biztanleriak osasun etxeko langileekiko duen ulermen eta pazientziarekin. Baina Baztango egoera ahularen arras kezkatuak gaude, ez baitugu ez denbora laburrera, ez luzera, konponbiderik ikusten.

Nafarroan 30 medikuk akituko dituzte ikasketak eta lanerako prest egonen dira irailean. Hutsik dauden lanpostu hauek haien begietara erakargarri bihurtzea hasmenta ona izan daiteke. Zoragarria den eremu honetan eta bikaina den biztanleria honekin lan egitea denon artean erakargarri bihurtu behar dugu. Horretarako eskualdeko politikari, alkate eta ahal duen oren laguntza behar dugu. Baztandarren mesedetan lanean segitu nahi dugu! Egoera arras larrian gaude eta osasun arreta gure eskubidea da! Giza baliabideak premiazkoak ditugu!





Lurretik Ikasiz egitasmoan parte hartzen duten zazpi ekoizleak eta sustatzaileak urrian proiektua aurkezteko egindako prentsaurrekoan. ONDIKOL

Bertako produktuak lurretik ikasgelara

Iazko udazkenean paratu zuten martxan eskualdeko zazpi ekoizleek Lurretik Ikasiz proiektua. Helburua, beren etxaldetan ekoizten dituzten produktuak eta lan egiteko manera eskualdeko haurrei ezagutaraztea da. Dagoeneko 400 ikaslek hartu dute parte proiektuan

A. LARRETXEA

Haurrek lurretik ikatea. Horixe dute helburu Baztango, Bortzirietako eta Xaretako zazpi ekoizleek. Lurretik ikasiz programa paratu dute abian horretarako, eskualdeko eskoletako haurrek bertako ekoizleak eta ekoizleen lan egiteko manera ikas ditzaten. Iazko urrian aurkeztu zuten proiektua, eta azaroan paratu zuten martxan eta geroztik, 400 ikaslek hartu dute parte programan. Lehen urtearen balorazio positiboa eginda, aurten ere jarraipena izanen du programak, irailean hasi eta ekainera bitartean. Lehen urtean bezala, bigarrenean ere bertako ikasleek hartzen ahalko dute parte.

Zazpi dira programaren parte diren ekoizleak: Lesakako Agorleku gaztandegia,

Elizondoko Autxitxia gasnategia, Arizkungo Baztango Xurie (ardo), Berako Erlanki (eztia), Anizko Jauregia Esnekiak, Etxalarko Maira okindegia eta Zugarramurdiko Martinea baratzea.

Haurrak bertako ekoizleengana hurbiltzea du helburu egitasmoak, eta horretarako bi motatako ekintzak garatu dituzte. Alde batetik, ikasleek eskolan irakasleekin lantzeko material didaktikoa sortu dute haur hezkuntzako bigarren ziklotik hasi eta bigarren hezkuntzako lehen ziklorako

DAGOENKO 400 IKASLEK HARTU DUTE PARTE PROGRAMAN

ikasleentzako. Bertan, adinaren arabera banatu dituzte bai gaiak eta baita materiala ere. Helburua, material horien bidez ikasleek bertako ekoizpenaren inguruko informazioa lortzea eta modu erraz batean ulertzea da. Egitasmoaren bigarren adarra ikasleek ekoizleen lanlekura egiten dituzten bisitak dira. Bisita horietan, ekoizleen lan egiteko manera eta lekua ezagutzeaz gain, ekoizle bakoitzaren lanarekin zerikusia duten lanen bat ere egiten dute ikasleek. Ikasleek bisita

ESKUALDEKO IKASTETXEEI ZUZENDUTAKOAK DIRA BISITAK

egiten dutenerako, ikas materiala aitzinetik eskolan landu izatea da bultzatzaileen asmoa.

Elkarlanean sortua

Lurretik Ikasiz egitasmoan zazpi ekoizle baldin badaude ere, Anizko Jauregia etxaldekoko Aitor Azkarate izan zen programaren ernamuina landatu zuena. Denbora zerraman bere etxaldean bisitak egiten, baina, ez zen emaitzarekin kontent gelditzen, eta uztea erabaki zuen. «Haurrak egun pasa etortzen zirela ikusten genuen, interesik gabe, eta guk nahi genuena zen haurrek zerbait ikas zezatela», azaldu du Azkaratek.

Duela bi urte Europako dirulaguntza bat tarteko, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremana sustatzeko proiektu bat lantzeko aukeratu zuten, eta hori izan zen ondotik Lurretik Ikasiz izanen zenaren ernamuina. Hasieran, Baztango ikastetxeekin hasi ziren, eta ondotik, zabaldu zuten eskualde mailara, eta orduan sortu zen gaur egun Lurretik Ikasiz bihurtu dena. «Nahiz eta ekoizle diferentek izan, arras ongi moldatu gara denak, horrek aberastasuna eman dio proiektuari», na-

barmendu du baztandarrak. «Parte hartzaile denek ideia berdinsuak genituen, eta talde lana aunitz erraztu du horrek», gehitu du.

Ikasleen bisitekin kontent

Lurretik Ikasiz programaren parte da baratzea Zugarramurdi duen Maialen Txantre ekoizle beratarrak. Iazko ikasturtean bi bisita izan zituen bere baratzean, eta hagitx kontent da bai egitasmoarekin, eta baita bisitetan bititutakoarekin ere. «Hasieran nahiko urduri nintzen, inoiz ez baitzen egon hainbertze jende nire baratzean. Baina ikasleek sekulako interesa erakutsi dute eta segidan ikusten dute non dauden gauzak landatuak, non ibiltzen ahal diren, eta non ez... Sekulako interesa dute». Bere kasuan bisitetan saiatu da ekintza praktikoren bategiten, eta ikasleak babak ereiten zein berenjenak landatzen paratu ditu, sasoiaren arabera. «Ikasleak hagitx txukun aritu dira lanean eta nire aldetik esperientzia hagitx ona izan da, hagitx kontent nago», nabarmendu du.

Ikasturte honetan egindako bisitekin ere «arras kontent» da Aitor Azkarate ekoizle aniztarra: «Etortzen diren haurrek jarrera erabat desberdina dute, eta irakasleekin ere arras ongi moldatu gara. Beraiek badakite zertara heldu diren eta haurrek ere bai. Gustura etortzen dira, baina ez da txango bat, ez da denbora pasa bat. Eskolako berzte ariketa bat da».

Dirulaguntzak

Proiektua garatzeko Nafarroako Gobernuaren zein Baztango Udalaren dirulaguntza hartu dute ekoizleek, eta laguntza horiek material didaktikoa zein etxaldeetara bisitak prestatzeko baliatu dituzte. Arrea elkarte arduratu da hezkuntza materiala prestatzeaz eta bisitak, aldiz, Xomorro elkartearen lagun-



Proiektuan parte hartu duten ikasleetako batzuk Anizen bisitan. UTZITAKOIA

tzaz prestatu dituzte. Helburua bisita dinamikoak sortzea zen, horretarako Xomorroko kideek aholkuak eman dizkiete ekoizle bakoitzak zer landu dezakeen eta informazio hori haurrei nola transmititu laguntzeko. Txantrearen hitzetan, «prozesu aberasgarria» izan da, eta aholkularitza jasotzearena: «Gure beldurrik haundiena zen ez genekiela nola solastatu, zer egin, aholkularitza hartzeak eman ditu segurtasun bat ikasleak hartzeko orduan».

Irakasleak ere «kontent»

Jaione Perurena izan da programan parte hartu duenetako bat. Elizondo Lanbide Eskolako irakaslea da eta oinarritzko mailako ikasleekin landu du Lurretik Ikasiz natur zientziak eta matematikak uztartzen dituen ikasgaietan. Lankide baten bidez ezagutu zuen proiektua eta gaietan interesa zuenez, ez zuen zalantzarik izan ikasleekin lantze-

ko. «Ikasleen mailarako zazpi unitate didaktiko daude prestatuta, eta astebeteko epean hiruzpalau landu genituen», azaldu du. Ikasleentzako materiala «arras dinamiko» dela kontatu du irakasleak, eta ikasleak «distraituak» aritu direla lantzen. Ikasgelan gaia landuta, Arizkunera egin zuten bisita, Baztango Xurie ardogintza proiektua ezagutzera.

Bisitaren oroitzen aski ona du Perurenak: «Ikasleek arras ongi pasatu zuten. Iñakik, Baztango Xurie proiektuak, sekulako hitzaldia eman zuen eta ikasleak aski gustura egon ziren», kontatu du. Ardoaren prozesua osoki ikusteko aukera izan zuten bisitan: lehen sektoreko mahastiak hasteko, bigarren sektorean ardoa kupeletan nola ekoizten duten, eta hirugarren sektorean salmenta eta egiten dituzten bisitak nolakoak diren. «Ikasleek galdera pila bat egin zituzten,

eta sentsazio arras onarekin atera ziren bertatik», kontatu du. Are gehiago: «Bisitak ikasleei balio izan die ekoizleak ezagutzeko, bertako produktuak zein diren ikusteko eta hemen ere lan egin daitekeela ikusteko».

Lehen sektorea lanbide

Azkaratek zein Txantrek biek nabarmendu dute programaren garrantzia, ez bakarrik inguruan ekoizten diren produktuak ezagutarazteko eta ekoizleei aurpegia jartzeko, baita ikasleentzako lehen sektorea benetako lan aukera bat dela erakusteko ere. «Institutan zaudenean eta ikasketei buruz solastatzean hagitx guttitan aipatzen da nekazaritza edo abeltzaintza lan aukera bat denik. Guretzat garrantzitsua da beraiek ikustea badela horretatik bizi den jendea eta bertze edozein lanbide bezalakoa dela», dio Txantrek.

Bide beretik, Perurenari ere garrantzitsua iruditzen zaio Lurretik Ikasiz bezalako ekimenak garatzea, eta hainbat arrazoi eman ditu horretarako. «Ikasleek ez dute nekazaritzaren eta abeltzaintzaren inguruko berririk, eta ez dakite egoeraren berri. Horrelako proiektuak inportanteak dira kontzientzia hartzeko». Horrez gain, ekintzailtzaren ikuspegitik duen garrantzia ere nabarmendu du: «Beraiek ere horrelako proiektu bat sortzen ahal dutela ikusteko balio die, eta horrekin bizitzen ahal dela eta hori ere polita dela».

Hasi berri den ikasturteari begira ere, berriz ere programan parte hartzeko gogotsu dira bai Lurretik Ikasiz egitasmoa zein Perurena ere. Irakasleak ez du inolako dudarik aukera badu, berriz ere saiaturik dela proiektua ikasleekin lantzen. «Eskerrak eman nahiko nizkieke ekoizleei horrelako gauzak politikak sortzegtatik», borobildu du.

**AHOLKULARITZA
ZERBITZUA IZAN
DUTE EKOIZLEEK
PROIEKTURAKO**

**LEHEN SEKTOREA
LANBIDE GISA
EZAGUTARAZI
NAHI DUTE**

«Obra bat deskubritzeko garrantzitsua da begirada lantzea»

AGUSTINA OTERO FERNANDEZ ITURENEN BIZI DEN ESKULTOREA

Ikasketaz eta lanbidez eskultorea da. Sortzez Leongoa, baina baditu ia lau hamarkada Iturenen. 'Zirkuluaren zerumuga' proiektuaren barrenean, uda honetan bi erakusketa ireki ditu

G. PIKABEA ITUREN

Iturengo bere estudioan hartu du Agustina Otero Fernandez eskultoreak TTPI-TTAPA (Leon, Espainia, 1960). Hantxe du bere habia, bere bizitokia eta bere lantokia. Aspaldixkotik hantxe ditu lanerako beretako «behar-beharrezkoak diren argitasuna, naturarekin kontaktua, isiltasuna eta kontzentrazioa». Obra saila ditu estudioan; horietako batzuk aspaldi eginak ditu, konparazio batera, Iturenera ailegatu ta teilatuko habe batekin egin zuen lehenbiziko eskultura. Dena den, estudioa «nahiko hutsa» dagoela dio, *Zirkuluaren zerumuga* izeneko proiektuan baititu 70 obra. Proiektu horren barrenean, bi erakusketa zabaldu ditu; bat irailaren 29ra arte Iruñeko Ziadadelako Bolborategian izanen da ikusgai eta bertzea azaroaren 24ra arte Alzuzako Oteiza Museoa.

Haurra zinetik artearen bueltan. Azalduko zeniguke?

Ttikitatik maite izan dut eskultura, eta halaxe erraten dit beti amak, eskulturak egin nahituelaa errepikatzen omen nuen. Leongo (Espainia) San Adrian del Valle herrian sortu nintzen, baina 14 urterekin, familia guzia Kataluniara joan ginen. Han, eskolara joateaz gain, Conchita Morral artistaren tailerrera apuntatu nintzen. Berarekin pintura klaseak hartu nituen, eta neurri ttikiagoan zeramika ere ikasi nuen.

Irakasle hark nire garapenean eragin handia izan zuen. Orain dela 50 urteko kontuez ari naiz, Franco bizi zeneko garaiaz, ez ziren garai errazak. Berak beti animatu ninduen: «Agustina, honetan segitu behar duzu. Ez zaitetz ezkondu, aunitz bidaiatu, ikusi bazterrak eta dedikatu egiatan nahi duzun horretara» erraten zidan. Bizpahiru urte eman izanen nituen berarekin, eta berak bideratu ninduen garai hartan hagitz ezaguna zen Bartzelonako Massana arte eskolara. Han eskultura ikasketak egin nituen eta ohorezko matrikula eman zidaten, promozioko lehenbizikoa izan nintzen. Massana

Eskolak emandako bekarekin Italiara joan nintzen.

Geroztik ibilbide luzea egiten ari zara eskulturaren munduan...

Massana Eskolan sei urtez ikasi ondotik, bekari esker, 1984an Italiara joan nintzen. Florentzian, Carraran eta Pietrasantan bi urte pasatu nituen, eta Miguel Angel, Da Vinci eta bertze hainbat artista ezagun ibili ziren tailerretan parte hartzeko aukera izan nuen. Grabatua, eskultura eta marrazketa ikasi nituen Italian, eta materialen artean, harria lantzeaz gain, brontzea galdatzen (*fundizioa*) aritu nintzen. Italiako bidaia hagitz emankorra izan zen, aunitz

ikasi nuen. Iturenera etorri nintzenean, inguruan segituan deskubritu nituen nahi nituen materialak: Almandozko marmola, Eratsungo harria, Baztango harria, erreketako harriak... Hasiara hartan, egurrarekin pixka bat ere aritu nintzen. Adibidez, Tresanea ondoko etxea bota zutenean, teilatuko habe batekin obra bat egin nuen. Huraxe izan zen Iturenen egin nuen lehenbiziko lana, Italian egindako maketa batetik abiatuta. Baina harria da bereziki gustuko dudana, baita burdina ere, eta azken urteotan harriarekin eta burdinarekin ari naiz.

Nolatan ailegatu zinen Iturenera?

Italiako egonaldia ondotik izan zen. Ordura arte ikasten ibilia nintzen, eta nire bidea egiteko espazio bila hasi nintzenean, Ituren harrapatu nuen. Lanerako toki lasaia eta ekonomikoki eskuragarria nahi nuen, eta 1986ko udan etorri nintzen, duela 38 urte. Hasiaran, Tresanean bizitu nintzen, baina argia behar nuen, eta duela 20 urte, hainbat proiektu handi egin ondotik, gaur egun nire bizilekua eta tailerra dena eraiki nuen, hutsetik. Espazio argitsua da, lanerako eta nire lana bertzei erakusteko toki egokia. Horrez gain, baditut lanerako behar-beharrezkoak ditudan kontzentrazioa eta isiltasuna. Naturarekin kontaktua izatea ere garrantzitsua da niretako.

Italia aipatu duzu, baina toki gehiagotan ere ibilia zara...

Bai, bidaiatzeko aukera izan dut. Senegalen urte batez bizitu nintzen. Ordurako hainbat proiektu eginak nituen, eta urte sabatikoa hartu eta Senegalera joatea erabaki nuen. Hori zen hasierako asmoa, baina han nengoela, obra aunitz egin nituen. Gero lan haiek ekartzeko zailtasun dezente izan nituen, baina Espainiako Enbaxada ongi portatu zen eta egindako guzia ekartzeko modua izan nuen. Hortaz aparte, 1994tik aitzinera bi urtez Parisko Nazioarteko Hi-



Agustina Oteroren lanetako batzuk Oteiza Museoa. UTZITAKO ARGAZKIA

«AZKEN URTEOTAN BATEZ ERE HARRIA ETA BURDINAREKIN ARI NAIZ LANEAN»

«'ZIRKULUAREN ZERUMUGA' LANA ESKUALDEAN SORTUA DA»



Agustina Otero Fernandez iturengo bere estudioan. Duela 38 urte etorri zen Iturenera eta duela 20 urte eraiki zuen estudioa. TTPI-TTAPA

rian ibili nintzen. Parisko hiriak mundu osoko artisteialdi baterako uzten dizkien egoitzak dira. Nik suertea izan nuen, eta bi aldiz utzi zidaten estudio hori. Eta han egonda, hango museoak ikusteko probestu nuen, baita Italian ere. Museoak ikusteko European barna bidaia gehiago ere egin ditut. Museoak bisitatzeak artista bera aunitz aberasten du.

Egonaldi horietako bakoitzak zer ekarpen egin dizu?

Zaila da erantzutea. Nahiz eta inkontzienteki izan, pertsonalki eta artistikoki elikatu eta aberastu nautela erranen nuke. Begiak zabaltzeko balio izan didate, bertzelako gauzak existitzen direla ikusteko, eta horrekin batera, begirada lantzeko. Begiradari esker deskubritzen da obra batean barrenean dagoena, eta begirada da sentimenduen mundurako dugun leihoa. Inportantea da lantzea, bai artean, bai orokorrean denean. Hori

norberak deskubritu beharrekoa, eta bide horretan, nire ustez, isiltasunak aunitz laguntzen du. Zer dago museotan? Isiltasuna. Bada, isiltasunak hainbat alderdi deskubritzeko atak irekitzen ditu, guregan dauden berezko aukerak eta ezezagunak ditugunak. Zaratak, ordea, nahasi egiten gaitu, ez digu bertze errealitateak deskubritzen uzten.

Sariak hartu dituzu eta zure obrak museo ezagunetako bildumetan daude...

Bai... Artium Museoan (Gasteiz), Nafarroako Museoan (Iruñea), Kutxa Fundazioan (Donostia), Iruñeko Udalarenean, Musac-en (Leon, Espainia), Irungo Udalarenean,

Leongo Diputazioarenean, Kantabriako Gobernuarenean, Mora-Granados Fundazioan, San Telmo Museoan (Donostia), Jordi Boronat Galerian (Bartzelona), Moises Perez de Albeniz Galerian (Madril), Cubo Azul Galerian (Leon), Raquel Ponce Galerian (Madril), Avancón (Iruñea), Nafarroako Kutxa Fundazioan eta hainbat bilduma pribatutan. Bertzelako hainbat erakusketatan ere parte hartu izan dut: Tokioko Arte Garaikidearen Museoan, Veneziako Bienalean, Egipton Cairoko Eskultura Bienalean, Ginebran, Bilboko Guggenheim Museoan, Donostiako Kubo Aretoan eta Koldo Mitxelena, New Yorkeko White Boxen...

«ZAILA DA ARTETIK BIZITzea, BAINA NIK SUERTEA IZAN DUT»

«EGITEN DUGUNA BIZIRIK GAUDELA AITORTZEA NAHI NUKE»

Nola lan egiten duzu?

Hasierako ideia koaderno batean edo eskura dudana paper batean irudikatzen dut. Sukaldean ontiak garbitzen ari naizenean, kotxean noanean, baratzean ari naizenean... sortutako ideia izaten ahal da. Ondotik, zirriborro hori interpretatu eta marrazkia eginez gehiago garatzen dut. Aunitz marrazten dut, eskultura sortzeko prozesuan sortzen ahal diren arazo teknikoak konpontzen laguntzen baitit. Hurrengo pausoa maketa egitea izaten da, espazioarekin lan egiten dudanez, maketa garrantzitsua da. Eta lanean segitzen dut, eta obra nola garatu pentsatzen hasten naiz: harriarekin, burdinarekin, noiz edo noiz buztinarekin eta igeltsuarekin ere aritu izan naiz... Eta hori argi izanda, eskultura fisikoki egiten hasten naiz. Beraz, lehenbizi, zirriborroa egiten dut, ondotik, marrazkia eta maketa, eta akitzeko, eskultura. →

—> **Hasierako ideia eta bukarako lana hagitz diferenteak izaten dira?**

Bai, bai, arunt diferenteak. Emozioak eta sentsazioak tartean sartzen dira, eta aunitz aldatzen da.

Zaila da artetik bizitzea?

Bai, zaila da, baina suertea izan dut eta artea dut ogibide.

Emakume izateagatik zure ibilbidean oztopoak izan dituzu?

Ezetz erantzutea gustatuko litzaidake, baina ez dut uste horrela denik, eta aunitzetan urrutikoak ez direnen aldetik sumatu ditut. Urte aunitz ditut artearen munduan, eta oraindik ere emakume guziek aitortza behar dute. Hil ondotik aitortzea ongi dago, eta gaur egun, Europako museoetan bada horretarako joera, baina nik ez dut hori nahi. Egiten dugun lana bizirik gaudenean aitortzea nahi dut, adibidez, harria edo burdina lantzearen balioa aitortzea. Normalean, gizonetzkoen mundua izan da. **Gaur-gaurkoz bi erakusketa dituzu martxan, biak Zirkuluaren zerumuga proiektuaren barrenean. Kontatuko zeniguke?**

Bai, bat Oteiza Museoa dago eta bertzea Iruñeko Ziadadela. Oteiza Museokoa azaroaren 24ra izanen da zabalik eta 43-44 obra dauka. Eta Ziadadela Bolborategian dagoena irailaren 29ra arte izanen da ikusgai. Han 25 paratu ditut. Erakusketen gaia burua da, hori baita normalean lantzen dudana.

Burua zergatik?

Ba zehatz zergatik ez dakit, baina aspaldiko kontua izaten ahal da. Eskola denboran ariketa batean egindako nire lanetan buruak ageri dira, edo Massana Eskolak saritu zuen lanean ere buru egin nituen... Artearen alderdi teorikoa ikasterakoan ere hasieratik erakarrri nauten lanetan buruak ageri dira. Sumer kultura, iberiar artea, Elkeko Dama obra, Nefertiti obra, Lunigianesi kultura, Coptos erretratuak, erromatarren erretratuak... Hori guziaz ikusi eta



Otero Iturenen egin zuen lehenbiziko obrarekin; habe batekin egina da. TTIPI-TTAPA

ikasi izanak eragin du niregan, eta jakina, ez dugu ahanzi behar burua garenaren esentzia eta motorra dela.

Proiektuak eskualdearekin badu lotura, ez?

Bai, *Zirkuluaren zerumuga* eskualdean sortua eta errotua da. Halaxe da erakusketetako katalogoaren portadatik hasita. Portadan Iturengo zubi bat ageri da, aunitz estimatzen dudana pertsona batek eginiko zubia. Erakusketa prestatzeko Iturengo zurginarekin eta Doneztebeko arotzarekin elkarlanean aritu naiz, katalogoko argazkiak Zaldia argazki dandako Mak Iriartek egin ditu, eta katalogoko testuak Donezteben bizi den Luis Garde poetak, Elizondon bizi den Ramon An-

dres idazleak eta eskualdearekin lotura duen Jose Jabier Fernandez arte historialariak egin dituzte. Erakusketa materiala, batez ere Oteiza museoa dauken obrena, harria da: Baztangoa, Eratsungoa, Almandozkoa, Markinakoa (Bizkaia), eta harriaz gain, burdina. Garbi nuen bizi naizen inguruarekin lotura izanen zuela.

Kontent gelditu zara emaitzarekin?

Zaila da arunt kontent egotea, obrak hagitz diferente ikusten baitira estudioan edo erakusketa gelan. Baina, orokorrean, gustura nago.

Zeure buruarekin exijentea zara?

Bai, hagitz exijentea. Lan aunitz egiten dut, baina horien artean hagitz gutti aukeratzen ditut. Beti horrela izan naiz,

prestatzen lan handia hartzen duen horietakoa naiz. Eta bertze kontu bat, ez zait lehendik ere indako bideetan ibiltzea gustatzen; beti bide berrien bila nabil, hori baita garatzeko modua. Nire lanen artean, badira figuratiboagoak diren buruak eta lehenbiziko aldiz ikusiko duen edozeinendako abstraktuak izan daitezkeen obrak. Niretako, ordea, ez dira abstraktuak, buruaren mundua islatzen dute.

Zer erranen zenieke artea abstraktua dela diotenei?

Egia erran, dena abstraktua da, begirada kontua da. Azken batean, ilunabarra edo eguzkia sartzen denean ikusten duguna ez da abstraktua? Zirkulu bat ikusten dugu airean, eta berdin egunsentian eguzkia ateratzen denean. Edo ilargia zer da? Zer da zuhaitz bat? Lerro batzuk dira. Erran bezala, begirada kontua da.

Hainbertze lanen artean, bada bakarren bat berezia zuretako?

Artista bakoitzak badaki zein diren bere lanen artean hoberenak, eta nire kasuan horrek zer bide hartu behar dudana jakiteko balio dit. Baina nik ez nuke obra bat aukeratuko, niretako denek garrantzi bera dute.

Zure artea nola definituko zenuke?

Espazioaren ikerlaria naiz, bertzerik ez, eta ikerketa horretan, nire esku dagoen ekarpena egiten saiatzen naiz. Eskulturan ari naiz, bai, bolumenaren eta espazioaren artean dagoen harremana ikeritzen, eta artista kontenporaneo naizela gehituko nuke. Baina nire artea definitzea zaila egiten zait.

Erakusketa hauen ondotik, zer?

70 obrak bildu eta isiltasunera bueltatu. Isilik lan egiten dut, eta aldi berean, isiltasun gehiago sortzea dut helburu; ikusleari isiltasuna transmititu nahi diot, begira dagoenean kontenplaziozko isiltasun horretan murgildu dadin. Gainerakoan, bihar edo ondoko urtean zer egingen dudana, niretako ere misterioa da.

«LAN AUNITZ EGITEN DUT, BAINA HORIETAKO HAGITZ GUTTI AUKERATU»

«ONDOKO URTEAN ZER EGINEN DUDAN NIRETAKO ERE MISTERIOA DA»



Uztailean Berastegi inguruan elkartu ziren mendizaleetako batzuk. UTZITAKOA



Pirinioetan Lakartxela eta Binbaleta mendiak igo zituzten. UTZITAKOA

Mendizaleak Gipuzkoan eta Pirinioetan izan dira

Uztailean Berastegin izan ziren mendizaleak eta abuztuan Pirinioetan, Izaba inguruko Lakartxelan eta Binbaletan

TTIPI-TTAPA

Udan ere mendiko ateraldiak egiten segitu du Arkupeak Elkarteko mendizale taldeak, eta uztailean Berastegin eta abuztuan Pirinioetan egin dituzte udako irteerak.

Uztaileko irteeran 78 lagun elkartu ziren Berastegin mendian ibiltzeko. Bertako eliza

atarian elkartu ziren, eta 15 gradu zituztela abiatu ziren San Lorenzo basilizarantz. Han gosalduta zuten, batzuek barrenean eta bertzeek kanpoan eguraldiak ez baitzuen sobera laguntzen eta haize freskoa zegoelako.

Hamaiketakoaren ondotik, Ipuliñoko parajeetan barna

itzulia osatu zuten Leitza-rango parajeak ikusiz. Handik, berriz ere Berastegira jaitsi ziren. Denera 15 kilometro eta lau orduko ibilaldia egin zuten, eta eguna borobiltzeko, Ategi ostatuan bapoz bazkaldu zuten.

Pirinioetan ere bai

Abuztuan aldiz, eskualdeko lurrak giblean utzi eta Pirinioetan barna osatu zuten itzulia. Abuztuaren 20an egin zuten eta 55 lagunek hartu zuten parte.

Izaban elkartu ziren 08:00etan eta kuartel zaharrean hasi zuten bidea. Bertatik abiatu eta Lakartxela (1.982 metro) eta Binbaleta (1.757) mendiak igo zituzten.

Handik itzuleran Belabartze-ko ur jauzia ikusi zuten, eta ondotik Izabako Txiki pen-tsioko jatetxean bazkaldu zuten.

Urte bukaera arteko ibilaldiak

Hemendik aitzinera ere hila-beteko hirugarren astear-tean mendi irteerak egiten segitzeko intentzioa dute elkarteko mendizaleek. Dagoeneko zehaztuak dituzte hurrengo irteerak nora egingen dituzten, eta denak Nafarroan izanen dira. Iraileko Baztanen egingen dute, Belaten; urrikoa Uharte Arakilen; azarokoa Sunbillan, eta abenduko Urdazubin. Hurrengo urtean ere irteerekin segituko dute elkarteko bazkideek.



UTZITAKOA

Atautxi-amatxien eguna Aralarren

Uztailaren 26an, Nazioarteko Atautxi eta Amatxien Egunean, 240 lagun elkartu ziren Gorraizen bazkaltzeko. Aitzinetik, Aralarra joan ziren eta bertan Doneztebeko Jose Manuel Nazabalek emandako meza aditu zuten. Bazkalondoan Jose Angel aritu zen giroa alaitzen eta egun ederra pasa zuten denek.

Urrian hasita, hainbat ikastaro antolatu ditu Arkupeak Elkartek

TTIPI-TTAPA

Urritik aitzinera ikastaroetan murgilduko dira Arkupeak Elkarteko bazkideak. Horretarako eskaintza zabala prest dute.

Beran, ingelesa astelehenetan eta asteazkenetan eta frantsesa asteazkenetan.

Donezteben yoga eta egur zizelaketa astelehenetan eta asteazkenetan; luzaketak asteartetan eta ostiraletan; jostintza asteartetan; ortzegunetan pirograbatua eta margoketa asteazkenetan eta ortzegunetan. Sunbillan yoga ortzegunetan; eta Donamarian,

soinketa astelehenetan eta asteazkenetan.

Elizondon margoketa astelehenetan; yoga asteartetan eta ortzegunetan; jubiloteka asteazkenetan eta lorezaintza eta kimaketa ez dituzte zehaztu. Urdazubin eta Zugarramurdin jubiloteka astelehenetan; Iru-ritan antzerkia asteartetan; Erratzun jubiloteka ortzegunetan eta Oronoz-Mugairin memoria tailerra ortziraletan.

Leitzan zeramika, informatika eta ikusmen tailerra izanen dira, baina egunak ez dituzte zehaztu.

Illekuetako bestak irailaren 14an eta 15ean

Larunbatean auzo bazkaria eginen dute eta txartelak Auzoa ostatuan erosten ahalko dira hilaren 11 baino lehen

A. LARRETXEKA

Agerrako bestak bukatuta, Illekuetakoen txanda izanen da irailaren 14an eta 15ean. Ohi-koa duten gisan auzotarrek bi egunetako bestak antolatut dituzte

Irailaren 14an, larunbatean, hasiko dira bestak Konpaneko zubitik 12:00etan botako duten suziriarekin. Ondotik erraldoiak, buruhaundiak eta gaiteroak ariko dira auzoa giroten. 13:00etan herri kirol saioa eginen dute eta 14:30ean auzotarren bazkaria izanen da Illekueta karrikan. Txartelak auzoa ostatuan egonen dira salgai irailaren 11ra bitartean. Bazkalondoa 15:30ean San Sebastian Circuit spirit auto klasikoak pasako dira auzotik eta horiek ikusteko aukera izanen da.

16:30ean haurrentzako jokoak izanen dira eta 18:00etan izanen da mus txapelketaren ordua. 19:00etan Bera Kantarikoak kantuan ariko dira auzoan eta eguna borobiltzeko 20:30ean zezensuzkoa izanen da eta 21:00etan dantzaldia DJ Elepuntorekin.



Erraldoiak eta gaitariak iaz. UTZITAKOIA

Biharamunean izanen du bestak segida. 12:00etan meza izanen dute eta ordu erdi beranduago mutxikoak dantzatzeko aukera izanen da.

16:00etan haurrentzako jokoak izanen dira eta 19:00etan Gure Txokoa Dantza Taldearen ikuskizuna izanen da. Bestak borobiltzeko 20:30ean pintxo dastaketa izanen dute. Parte hartu nahi dutenek pintxoak 20:00etarako utzi beharko dituzte txosnan.



TTIPI-TTAPA

Gazitik eta gozotik izan dute bestek

Erraldoien Konpartsak botatuko suziriarekin lehertu zen besta abuztuaren 2an, eta bortz egunez giro ederra izan zen nagusi. Puntu beltza indarkeria matxista izan zen, bestetako lehen egunean gizon batek emakume bat erasotu baitzuen. Erasoa salatzen elkarretaratzea egin zuten abuztuaren 11n.

Ekitaldiz betetako bestak ospatu dituzte aurten ere Agerran

A. LARRETXEKA

Ekitaldiak ortzegunean hasi baziren ere, Manolo Altzatek, Jexux Tapiak eta Antonio Zubietak botatuko txupinazoarekin lehertu zen besta abuztuaren 23an Agerran. Auzo afaria, mutxikoak, mariatxien emanaldia, erraldoien

kalejira, Agerrako krosa, haurrentzako apar besta, Bera Kantari, zikiro jatea... denetarik ekintzak izan dituzte bestak iraun duen egunetan.

Zozketa ere egin dute eta honakoak izan dira hiru zenbaki saridunak: 3087, 0075 eta 0552.



Agerrako hainbat haur danborradan jotzeko prest. TTIPI-TTAPA

Lau erraldoi zaharberitu ditu Markel Oyarzabalek

Konpartsa zaharreko erraldoiak zaharberitu ditu, eta horietako biri tamaina murriztu die haurrek dantzatu ditzaten

A.LARRETXEA

Dantzarietz, lamiaz eta basajaunez gain, bertze lau erraldoi ere izanen ditu hemendik aitzinera Berako Erraldoien Konpartsak. Erraldoi zaharrak zaharberitu ditu Markel Oyarzabal konpartsak kideak, eta bestetan atera zituzten dantzara lehenengoz. Horietako bi ohikoa baino tikiagoak dira, haurrek dantzatzeko prestatuak baitira, haurrek tikitatik mundu horretara hurbiltzeko asmoz.

Ttikia zeneko erraldoiekin zer gertatu zen jakiteko bilaketa lanetan hasi zen Oyarzabal, eta udaleko biltegian aurkitu ondotik, horiek moldatzea erabaki zuen. «Lan luzea» izan dela kontatu du, bere denbora librean eta atsedean egunean aritu baita egiten. Berako Udalak ordaindu du materiala eta bera aritu da berritzen, nahiz eta bi lagun laguntza ere izan duen gorputza eta egiturak margotzeko eta erraldoien jantziak egiteko.

Behin erraldoiak prest zirela, herriko hiru eskoletan ibili da Oyarzabal 10 eta 12 urte



Oyarzabal erraldoiekin. UTZITAKOA

arteko haurrek konpartsara gonbidatzen. «Haurrei ilusioa egin zien eta denek probatu zuten», kontatu du. Azkeneko 10 urte aritu dira bestetan «bikain» dantzatzen: «Heldu den urtean gehiago izanen direla ziur gaude», nabarmendu du.

Herritarren aldetik ere zaharberitutako lau erraldoiek hagitz harrera ona izan dutela azaldu du, «aunitzen haurtzaroko erraldoiak direlako».



Jeronima Telletxea, alaba eta Aitor Elexpuru alkatea ondoan dituela. UTZITAKOA

100 urte bete ditu Jeronima Telletxea Urtxegi herritarrek

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 7an 100 urte bete zituen Jeronima Telletxea Urtxegi beratarrak. Garaitarreta auzoko Babesin Xokoa etxean sortu zen eta ezkontzean sortetxea utzi eta Itzea auzoko Toki Alai etxera joan zen bizitzera, eta huraxe du bizitoki geroztik.

Egun ederra pasa zuen 100. urtebetetzean. Familia bisitan joan zitzaion, zorientzeko dei aunitz hartu zituen, loreak oparitu zizkioten eta alkatea eta zinegotzi baten bisita ere izan zituen etxean. Familiakoen hitzetan, Jeronimak «hagitz kontent pasatu zuen eguna».

Rally Classic Auto bira herritik pasako da irailaren 14an

A. LARRETXEA

Auto klasikoez gozatzeko aukera izanen da irailaren 14an herriko karrketan. San Sebastian Circuit Spirit elkartek Rally Classic Auto bira egingen du. Donostian hasi eta bukatuko da, baina tartean bitan pasatuko dira

herritik. 50 urtetik gorako autoek, auto historikoez eta GT motako autoek osatuko dute bira. Gipuzkoan barna Beran sartuko dira, eta Ibar din aldera joanen dira handik. Azkaine, Sara eta Ainhoa gurutzatuta berriz ere herriara ailegatuko dira.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!
facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Ansonera ostatu · jatetxea
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

BIBO-DALU ELEKTRIKOAK
KARGATZEKO GURUEA
DOMOTIKA
EGUZKI PANELAK

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA



Pascual Aldave bere belaunaldiko orkestratzaile nagusia izan zela uste du Josu Okiñenak. UTZITAKOIA

«Pascual Aldavek utzi zigun musika altxorra ezagutarazi nahi dugu»

JOSU OKIÑENA UNANUE PIANISTA ETA MUSIKENeko IRAKASLEA

Pascual Aldave konpositorearen (Lesaka 1924-Donostia 2013) jaiotzaren mendeurrena gogoratuz ziklo berezia antolatu dute. Lehen emanaldia irailaren 29an egingen dute sorterrian

AITOR AROTZENA LESAKA

Pascual Aldave zein izan zen eta ziklo horren berri eman digu Josu Okiñena Musikeneko irakasle, pianista eta Aldaveren ondarearen ikertzaile eta zaindaria.

Zer emanaldi prestatu duzue irailaren 29rako Lesakan?

Harriondoa kultur etxean izanen da emanaldia. omenaldia egingen zaio Pascual Aldaveren jaiotzaren mendeurrenari. Kontzertuan Aldaveren piezak sartu nahi ditugu, baina baita beregan eragin handia izan zuten beste konpositore batzuen ere: adibidez, Maurice Ravel asko miresten zuen eta bere eragina nabari da bere obran; Aita Donostiaren abes-

ti batzuk, berekin harremana izan baitzuen Aldavek. Hori islatzen da Aldavek Aita Donostiari bidali zion eskutitz batean, Lesakako kantu folkloriko bati buruz galdezka. Ikerketa folklorikoa egin zuten elkarrekin. Aldaveren lagun-mina eta pianista ikaragarria izan zen Felix Lavillaren abestiak... Noelia Ibañez mezzosopranoa, Maider Ronquete sopranoa, Amaia Zipitria eta Josu Okiñena pianistak, Kea ahots taldea eta konfirmatze-ko dago Kanadatik etorriko litzatekeen Alexandre Da Costa biolinista. Ravelen pieza bat joko luke.

Ondotik, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 'Akelarre' joko du

zenbait hiriburutan. Aldavek konposatutako lanik handiena izan zen?

Bilbon (irailaren 27an), Donostian bi aldiz (urriaren 1ean eta 2an) eta Iruñean (urriaren 4an) eta izanen dira emanaldiak. *Akelarre* lanaren bigarren rapsodia programatuta dago, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren denboraldia irekitzeko. Hori ohore handia da. Otsailaren 26an, berriz, EOSk eta

«EUSKALDUNA ZEN NAFARROAN ETA NAFARROAKO EUSKAL HERRIAN»

Iruñeko Orfeoia *Akelarre* lanaren hirugarren eta laugarren rapsodiak interpretatuko dituzte Iruñeko Baluartean. *Akelarre* da Aldaveren obrarik inportanteena, maisu-lana esango nuke. Hogei euskal kantu folkloriko erabiltzen ditu, horietako asko Lesakan bildutakoak. Benetako altxor bat da.

Zein izan zen Aldave eta musika arloan zer utzi zuen?

Euskal ondarea babestu eta bildu zuen. Lesakako eta Bidasoko musikako euskal sustrai batzuk bildu zituen eta sustrai horiek erabili zituen bere obrak konposatzeko. Horrelako kultura txiki bati dimensio globala eman zion. Testuak nola tratatzen dituen ere azpimarratuko nuke: Pio Barojaren *Altzateko Jauna* eta *Urtubiko Dama* lanak erabili zituen, Juan Mari Lekuonak egokituta eta bere ikuspuntutik, *Akelarre* konposatzeko. Horrela bere ondarea literaturara ere zabaltzen da. Bere belaunaldiko orkestratzaile nagusia izan zen, zalazarik gabe, eta konpositore onenari bat, bereziki bere musika sinfonikoagatik, baina obra handia dauka korurako eta ahots eta pianorako ere.

Iruñeko kontserbatorioiko eta orfeoiko zuzendari ere izan zen...

Iruñeko kontserbatorioan egin zuen lanak errekonozimendu publikoa merezi du. Ikasle belaunaldi batek beraien karrerara musikala egin dute bere ikasketa-planaren aldaketagatik. Berak Parisen ikasitakoa ekarri zuen Iruñera eta hori aldaketa handia izan zen. Koru bat sortu zuen, orkestra bat sortu zuen, mundu mailan obra asko estreinatu zituen orkestra eta koru horiekin. Giroa guztiz aldatu zuen.

Beharbada, publiko "orokorrenentzat" eta bere sorterrian ere ez da ezagunegia. Zergatik?

Nire ustez Pascual Aldave oraindik ezaguna da euskalduna zelako Nafarroan eta nafarra zelako Euskal Herrian. *Elkarrizketa osoa: erran.eus*



Gure Zirkuaren zazpigarren bira ailegatu da herrira.

Gure Zirkuaren emanaldiak hasiak dira egunotan

Zortzi emanaldi eginen ditu Landazelaiko karpan eta sarrerak www.gurezirkua.eus webgunean edo leihatilan eskura daitezke

AITOR AROTZENA

Gure Zirkuak zortzi emanaldi eskainiko ditu herrian, Landazelaian paratua duen karpan. Horietatik bi lehenak joan den asteburuan eman zituen. Hurrengoak irailaren 7an (12:00etan eta 19:00etan), irailaren 8an (19:00etan), irailaren 13an (19:00etan) eta irailaren 14an (12:00etan eta 19:00etan). Sarrerak www.gurezirkua.eus webgunean eskura daitezke, baina Gure Zirkuko Unai Zabaleta leitzarrrak aipatu digunez, Interneten agortuak izan arren, gerta daiteke leihatilean sarrerak

izatea: «Horretarako emanaldiak baino bi ordu lehenago agertzea komeni da, eta egun horretakoa ez den beste emanaldi baterako ere eskura daitezke».

Gure Zirkuaren zazpigarren biraren barne eginen dute geldialdia Lesakan eta hemendik Hondarribira joanen dira. Duela sei urte hasi zen zirku ibiltaria herriz herri eta dagoeneko dozenaka emanaldi eta herri bisitatu ditu urteotan, arrakasta handiarekin beti. Euskal Telebistan ere lau ataleko dokumentala pantailaratu zuten.



UTZITAKOIA

60 haur Mugikari udalekuan

60 haurrek parte hartu dute Mugikari Udalekuan, Ganix Arruti eta Joel Gil zuzendariak eta begiraleak eta Julen Arakues begiralearen laguntzarekin. Balorazio bikaina egin dute, «hiru aste zoragarri, non hainbat kirolez gozatzeko eta ikasteko aukera izan duten», adierazi digute begiraleek.

Doako informatika ikastaroa jubilatuko elkartearen eskutik

Telefono mugikorra eta @cerca programa (Osasun karpeta, ziurtagiri digitala, webguneak, kontuak, arazo konponbidea...) erabiltzen ikasteko doako informatika ikastaroa antolatuko du San Fermin jubilatuen elkarteak irailareko. 20 orduko ikastaroa izanen da, irailaren 16tik 20ra eta 23tik 27ra, egunero 17:30etik 19:30era emanen dena. Jubilatuen ostatuan izena emateko azken eguna irailaren 9a izanen da. Plaza mugatuak izanen dira eta bazkideek lehentasuna izanen dute.

Lesakako mendi bizikleta ibilaldia irailaren 15ean

Irailaren 15ean, igandea, eginen dute Bete Gazte antolatuko Lesakako BTT ibilaldia. Izen ematea online bakarrik egin daiteke irailaren 13ra arte. Txirrindulariek bi ibilbide izanen dituzte aukeran: motzak 23,24 km-ko luzera eta 770 metroko desnibela ditu, eta luzeak, berriz, 37,1 km-ko luzera eta 1.414 metroko desnibela. Proba 09:00etan hasiko da plazan eta dortsalak egunean berean hartu beharko dira 08:00etan. Bizikleta elektrikoekin parte hartzeko aukera ere izanen da.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

EDERKI tailerra



CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

‘Latigillo’ hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

Urritzokietako bestak irailaren 13tik 15era

Ortziralean botako dute txupinazoa, larunbatean ospatuko dute egun handia eta igandean txukunduko dute auzoa

IRUNE ELIZAGOIEN

Irailaren 13an, ortziralearekin hasiko dira Urritzokieta auzoko santakruzak eta urtero bezala, egitarau polita osatu dute auzotarrek.

Hasteko, txupinazoaren ondotik, 17:00etan txokolate beroa eskainiko dute Saindu-neko zubian eta iluntzean zingar jatea izanen dute.

Irailaren 14a, larunbata, egun handia izaki, 12:30ean luntxa eskainiko dute auzotarrek ermitako atarian eta ondotik meza izanen da 13:00etan. Zer gozatu izanen da eguer-

ditik aitzinera ere: Asaua, mus eta partxis txapelketa, herri kirolak... 20:00etatik 22:00etara ogitartekoak izanen dituzte, 22:00etan kontzertua eta egunari akabera emateko auzoko DJ-ak paratuko du musika.

Irailaren 15ean, igandearrekin, bukatuko dira bestak; 13:00etan meza izanen dute Santa Krutz ermitan eta arratsaldean desmuntatze eta txukuntze lanak egingen dituzte. Horiek ere behar beharrezkoak dira, besten ondotik auzoa txukun txukun uzteko.

Iarmendiko uso postuen enkantea larunbatean

Udalak enkante irekia egingen du aurtengo ehizaldirako Iarmendiko uso-postuak errentan jartzeko. Enkantea herriko etxean egingen dute irailaren 7an, 12:00etan, ahozko eskaintzen bidez. Baldintzak udal idazkaritzan daude, baita www.etxalar.eus orrian ere.

Eli Mendiaren akuarela erakusketa ikusgai abuztuan

Abuztuaren 3tik 31era Pello Apezetxea Kulturgunean Elisabet Mendiaren akuarela erakusketa egon da ikusgai. Paisaia, eraikin eta naturako elementuak jasotzen dituzten 20 lan baino gehiago egon dira zintzilikatuak eta hainbat bisitari izan ditu erakusketak.

Sarako 61. Kontrabandisten lasterketan bikain

Sarako kontrabandisten lasterketaren 61. edizioan Etxalar herria ordezkatzuz hartu zuten parte Xabier Telletxea eta Borja García. 20 herri eta 40 lasterkalariren artean hamabi eta hamazazpigarren postuan bukatu zuten lasterketa. Zorionak bioi!



Telletxea eta García. IRUNE ELIZAGOIEN



JOSEBA OLAGARAI/IRUNE ELIZAGOIEN

Datorren urteko andremarien zain

Erraldoiak eta buruhandiak auzolanean moldatu dituzten taldeak txupinazoa bota ondotik, herri afaria, Andre Maria eguneko dantza saioa, Asaua, eta bertze hainbat emanaldi eskaini dira. Azken urteetan ez bezala, aurten gazteen herri kirol desafioaz gozatzeko aukera izan da.



MAIDER ANSALAS

XXIII. Ola pilota txapelketan txapeldun

Irungo XXIII. Ola pilota txapelketan, alebin mailan, txapeldun izan zen Erik Igoa (Aitor Sarasarekin) eta aurrebenjaminetan Hegoi Otazo eta Juel Igoa ere txapeldun izan ziren. Xiker Olagarai eta Beñat Ansalas ere aritu ziren. Txapelketa bukatzeko pilotari guztiek bazkaria izan zuten Olan.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

ELUTSA
EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK
PINTXOAK - BOKATAK RAZIOAK
Anduetzeta, 13 - ETXALAR
T. 948 635 191



Unanu eta Plantabakar artean 565 metrotan hormigoia eman dute. UTZITAKOA

Unanu eta Plantabakar arteko pista moldatu dute

565 metro hormigoitzeko 73.223,66 euroko inbertsioa egin da eta Nafarroako Gobernuak 32.623 euroko laguntza eman du

ANA ETA ITZIAR

Unanu eta Plantabakar izeneko inguruaren arteko pista 565 metrotan hormigoia eman du Igantziko Udalak eta itxura ederra hartu du bideak. Eulen SA enpresari esleitu zitzaion lana eta obraren kostua 65.788,38 eurokoa izan da. Bertze aldetik, Mendikoa Projectos Técnicos SLU-k egin ditu erredakzioa eta obra zuzendaritza, 7.435,28 euroren truke. Beraz, denetara 73.223,66 euroko inbertsioa egin da eta Nafarroako Gobernuak 32.623 euroko dirulaguntza emanen dio udalari.

Bestetako Biltokiko afaria

Bezperan egiten den afarirako izen emateko zerrenda dagoeneko jarrita dago Biltoki elkartearen kortxoan. Bazkideek 40 euroren truke izanen dute afaltzeko aukera eta, betetzen ez bada, bazkide ez denak 45 euroren truke.

Irisarrirako bidea

Igantziko harrobitik Irisarri auzoko bidegurutzeraino doan errepideko lanak akabatu dira. Hilabete batzuk pasatu eta traba batzuk eragin ondotik, bide ederra gelditu da bertako erabiltzaileentzat.

Berrizaungo bestak ospatuko dituzte buruilaren 14an

ANA ETA ITZIAR

Besta usaina hasia da herrian sumatzen eta martxa hartzen joateko, Berrizaungo bestak izanen ditugu heldu den buruilaren 14an. Hona hemen, larunbat horretarako aurten go programa: 12:30ean txupinazoa eta dantzak. 14:30ean

auzo bazkaria. 16:30ean bingo berexia. 17:00etan Agerralde musikariaren emanaldia. 19:15ean zapatilla jaurtiketa txapelketa. 19:45ean DJ Infernuren emanaldia.

Azken urteetako ikusiz, girotik ez da faltatuko aurten ere. Beraz, animatu!



ANA ETA ITZIAR

Puzgarriak igerilekuan

Guraso Elkarteak igerilekuan puzgarriak eta apar besta antolatu ditu uda honetan ere. Abuztuaren 14an egitekoak baldin baziren ere, eguraldi kaxkarrarengatik abuztuaren 15ean izan ziren. Herriko ttikiek eta gazteek arratsalde pasa bikainaz gozatzeko aukera izan zuten.



ANA ETA ITZIAR

Igerilekuak azkeneko egunetan

Udan igerilekuan kudeaketa lanetan aritu diren gazteei denboraldiaren balorazio bat egiteko eskatu diegu: «Eguraldia kili-kolokoa izan baldin bada ere, hagitx kontent gaude udan egin den lanarekin, jende aunitz ibili baita bazkaltzen nahiz afaltzen. Uda ustekabean pasatu zaigu».

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK
609 446 693 - 948 625 663
bidasoa@neumontecobidasoa.es
www.anaun.bidasoa.es

GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu

Gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dahanik
Gasolindegiak 24h irekita

Alkaiaga Industrialdea Ziobi Kalea 6 31770 Lesaka (Nafarroa)	Noain-Eskiroz Industrialdea Y Kalea 10 31110 Noain (Nafarroa)
--	---

MARI TX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK

⚡

- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

Legia, 23 - BERA



Uda honetan herritarrak auzolanean aritu dira eskolan. ARANTZAKO UDALA

77 ikaslerekin eta 13 irakaslerekin ikasturtea abiatzear

Ortziralean hasiko dira ikasleak eta heldu den astean Pelle Ttikikoak. Zazpi haur matrikulatu dira Pelle Ttikin

NEREA ALZURI

Udako oporraldia joan da eta aste hasieran ikasturte berria abiatu dute irakasleek, eta ortziralean ikasleek ere eskolako bidea hartuko dute.

Hamar haurrek estreinatuko dute eskola. Zazpi talde izanen dira: Haur Hezkuntzan bi talde (20 ikasle); Lehen Hezkuntzan lau talde (41 ikasle) eta DBHn talde bat 16 ikaslerekin. Guztira 77 ikasle izanen dira. Eta eurekin 13 irakasle ariko dira, zazpi tutore eta bertzeak espezialistak edo murrizketak osatuko dituztenak. Orientatzailea eta PT eta AL espezialistak ibil-

tariak izanen dira, Bortzirietako bertze eskolekin partekatuak. Bertzalde, bortze ikasle Berako Toki Ona institutura joan dira.

Pelle Ttikin zazpi haur

Pelle Ttikin, astelehenean, hilaren 9an, hasiko dira. Zazpi haur matrikulatu dira: Eki Urkia Scheeper, Ilargi Gago Telletxea, Oinatz Ansa Lukanbio, Aiur Danboriena Errandonea, Iraia Pikabea Orbegozo, Kemen Iturria Guruchet eta Saioa Garzaren Ostiz. Azken hiru urteotan kudeatu duen taldeak utzi eta udalak hezitzailearen kontratazio zuzena egin du.



IGOR UGALDE, BIDAL ETXARTE ETA MIRARI MAIZ

Irudi ederrak bestetan

Aurten herriko hamaika txistularien esku izan zen besten hasiera, txistuz eta bertsoz jantziz. Hortik aitzinera, denetarik izan zen: azken urtean jaiotakoei omenaldia, dantzak, herri bazkaria, haurren jarduerak, zezensuzkoa, bertsoak, pilota partidak, auzotarren desafioa, herri kirolak, elkartasun eguna, musika...

Gazte asanbladak eskerrak eman nahi izan ditu

Iragarri bezala, aurten ez da Arantza Rock jaialdirik egin. Hala ere, gazte asanblada kontent agertu da «herriko bestetan elkar ikusteko aukera izan dugulako» eta bide batez, eskerrak eman nahi izan dizkie «guregana hurbildu zareten guziei eta ahal duzuen moduan lagundu duzuenoi». Aurtengo etenaldiak «eragin positiboak» izan dituelakoan dago, eta honela gaineratu du: «Gure tradizio politikoa segitzeko inguruko laguntza beharko dugu, baina espero dugu aurtengo pausaldiarekin hau lortzea».

Lau minututan dutzatzeko gai izanen gara?

Nafarroako Gobernuak abiatu duen lau minututan dutzatze-ko kanpainarekin bat egin du Arantzako Udalak eta hala, lau minutuko harea-erlojua banatu dute etkez etxe. Uraren kontsumo arduratsua inguruan sentsibilizatzea da helburua. Izan ere, eguneroko dutxa 10 minututik laura murriztuz, 120 litro aurrezten ahal dira eta nafar guziok lau minututan dutzatuko bagina, 24 igerileku olinpiko betetzeko ura aurretuko genuke. Osasunean dituen abantailak ere azpimarratu dituzte. Xehetasunak 25. or.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com



Turismoen podiumean, Azpiroz, Correia eta Etxeberria.



Monoplazetako gidarien podiuma.

Lesakako XXI. Rallysprinta prest irailaren 7an Agiñan

Ziharka Sport eskuderiak antolatutako Lesakako VI. Slalomean, berriz, Asier Tejado eta Eneko Correia nagusitu ziren Alkaiagan

AITOR AROTZENA LESAKA

Ziharka Sport eskuderiak seigarren aldiz antolatutako Lesakako Slaloma burutu zen abuztuaren 17an Alkaiagako industrialdean, Nafarroako Open Slalomerako puntuagarrria. Azkenean 22 ibilgailu atera ziren, gehienak turismo atalean. Hauetan, Bakio Motosporteko Eneko Correia izan zen bizkorrena, Arakil Motorsporteko Andoni Azpiroren bigarren eta Ziharka Sporteko Aitor Etxeberria hirugarren (junior onena). Monoplazetan edo car cross-etan, berriz, Zamudio Racing taldeko Asier



Aimar Pikabea beratarra.

Tejado suertatu zen garaile, Malerreka Motosporteko Imanol Vicente *Olaxar* etxalartarra bigarren eta Ziharka Sporteko Egoitz Lekuona hirugarren.

Eskualdeko gidari gehiagok ere parte hartu zuten proban, hala nola Asier del Pozo lesakarrak, Aimar Pikabea beratarrak, Hodei Ariztegi eta Olatz Grijalba doneztebarrak eta Jon Mikel Opoka gazteluarrak.

XXI. Rallysprinta larunbatean

Alkaiagako probaren ondotik, Ziharka Sport eskuderia buru-belarri hasi da bere proba nagusia, irailaren 7an jokatu den Lesakako Rallysprinta prestatzen. Hogeita batgarren edizioa beteko du aurten Agiñako errepidean egiten den probak. Lehenbiziko urteetan Eguzkisport eskuderiak antolatu zuen, gerora Ilargisport eskuderiak eta azken urteetan Ziharka Sportek hartu du ardura. Ohi bezala, gidariek lau txanda egin beharko dituzte Agiñako errepidean goiti eta beheiti, 9.3 kilometro denera. Iraileko lehen larunbatean 11:30ean itxiko dute errepidea eta 12:30ean abiatuko da lehen parte-hartzailea.

Altzariak zaharberitzeko ikastaroa prest

Bortziritako Hiri Hondakinen Mankomunitateak altzariak zaharberitzeko ikastaroa antolatu du, Nafarroako Gobernuren Hondakinen Funtsak finantziatua. Bortziritarrei zuzendua izanen da eta Alkaiagako Garbigunearan egingen dute hiru hilabetez, urritik abendura, astean bi ordu eta erdiz. 8-10 laguneko bi talde osatu nahi dituzte. Izena emateko epea zabalik da irailaren 13ra bitarte, 948 635 254 edo 662 078 400 telefonoetan edo teknikaria@bhm.eus helbide elektronikoan.

Erretzeari uzten laguntzeko tailerrak osasun zentroan

Erretzeari uzten laguntzeko tailerrak eskainiko dituzte Lesakako osasun zentroan udazkenean. Minbiziaren kontrako Espainiako Elkarteak antolatu du, Bortziritako biztanleei zuzendua da. Minbiziaren prebenitzeko ekimen osasungarrien barne emanen dute eta presentziala izanen da ikastaroa. Interesatuak osasun zentrorra deitu behar dute. Oraindik datak eta ordutegiak zehaztu gabe badaude ere, urri inguruan egingen dute eta sei tailer egingen dituzte, aste bakoitzean tailer bat.



instalazioak
IGOGAILUAK

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

- 1 KANPOKO IGOGAILUAK**
Kanpoko fatxadak guztiz integratuak. Portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.
- 2 BARRUKO IGOGAILUAK**
Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, Inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurrpil-aulkian daudenezako egokituak.
- 3 IRISGARRITASUNA**
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurrpil-aulkian daudenezako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.




EZ ZAITEZTE KEZKATU!
gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

860 zenbakiko
irabazleak >

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61 ☎
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela



ZOZKETAK

- Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**
Jose Ignacio Babace Erasun | URROZO
- Onddo ta punto - Kamiseta bat**
Jose Ramon Gaztañaga Zabaleta | LEITZA
- Hara bi - Kamiseta bat**
Carlos Huitzi Zozaia | IGANTZI
- BKZ Abentura - Sarrera bat**
Laura Andresena Zubigarai | LEGASA
- Saltin Iruña - Bi sarrera**
Flora Loiarde Santesteban | ZIGA
- La Rhune - Sarrera bat**
Josepi Miura Iribarren | ELIZONDO
- Mugarki - Sarrera bikoitza**
Pantxo Leitza Etxeberria | DONEZTEBE
- Taberna edariak - Lote bat**
Juana Larralde Ibarrola | ARANTZA
- Erein - Bi liburu**
M^o Isabel Bengotxea Ibarrola | URDAZUBI

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

EZKEXA
www.ezkexa.com

Kamiseta bat

IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

Sarrera bat

KIMETZ
www.kimetzbelardenda.com

Saski bat

LA RHUNE
www.rhune.com

Sarrera bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

Sarrera bat

LIRAIN
Elbarren, 34 - Leitza

Jertse bat

Sartu
ttipi.eus/ttipi-txartela
webgunean eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETXEAK



Aprobetxa itzazu **Ttipi Txartelak**
eskaintzen dizkizun
abantailak, **Ttipi Txartela**
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erositik.



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

MUSIKA

Hiru CD



baga-biga
MUSIKA IDEIAK
www.baga-biga.eus

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoaren dutenak gaizki daude.

'Hasiara eman' edo 'hasi'?

Gehienetan estilo kontua bada ere, Euskaltzaindiak adierazi du azken urteotan —inguruko erdaren eraginez bereziki— neurritz gain zabaldu dela euskaraz alferreko parafraasiak erabiltzeko joera. Aditz bakarrak adieraziko lukeen ekintza edo egoera aditzera emateko erabiltzen dugun aditz bat baino gehiagoko esapideari deritzo aditz perifrasi multzoa. Aditz jakin batzuekin gertatzen da batik bat: *aurkeztu, ekin, gertatu...* (eta *burutu, garatu, gauzatu* eta gisakoekin).

Euskaltzaindiaren hitzetan, ez dirudi bide egokia, baldin bigarren aditzak oinarritzkoari esanahi argirik edo gehiagorik ematen ez badio; halakoetan, mesedea izan beharrean, traba da komunikaziorako. Estilo liburu anitzek erraten dute bertzelako aukera batzuetara jotzea komeni dela.

- Udalak langileak fitxatzeko *erlojuen aldaketari ekin dio* egunotan > Udalak langileak fitxatzeko *erlojuak aldatu ditu* egunotan.

- *Zubiaren eraikuntza egitea* da helburua > *Zubia eraikitzea* da helburua.

- Proposatzen diren ariketak nahitaezkoak *gertatzen* dira gida didaktikoko helburuak lortzeko.

- Zailtasunak *aurkezten* dituen ikaslearentzat...

- Txirrindulariak prest zeuden *irteera hartzeko / irteerari ekiteko* > *irteteko*.

- Gaur *emanen zaio* hasiera kanpainari > Gaur *hasiko da* kanpaina.



Nola erran?

Gazte ≠ gazterik

Gazte hitzak ñabardura bereziko esapideak ditu. Horietako bat *gazterik* da (gazte izanik, gazte zela(rik)). Denborazko esanahia du, alegia, ez moduzkoa:


-Gazterik hil zen.
-Gazte-gazterik alargundua.

Hori dela eta, **gazterik* sentitzen naiz (denborazkoa), adibidez, ez dago ongi; *gazte* sentitzen naiz behar du (moduzkoa, NOLA).

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Hieroglifikoa

Udako oporrak bukatuta, ikastetxera bueltatzeko tenorea...



«Isunak eta zigorrak hartuagatik, lanean segituko dugu»

PATXI MARTIN ARREGI ETA JOSU TXOPERENA IRIBARREN ERNAIKO KIDEAK

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak 290.500 euro eskatu dizkie isunetan Ernai gazte antolakundeko 133 gazteri. Tartean dira Patxi Martin doneztebarra eta Josu Txoperena lesakarra

G. PIKABEA LESAKA-DONEZTEBE
2023ko irailaren 22an Aitor Ze-laia eta Galder Barbado gazteen kontrako espetxeratze agindua salatzeko, Ernai gazte antolakundeak bi protesta egin zituen Bilbon eta Gasteizen. Ekimen haietan Ertzaintzak 133 gazte identifikatu zituen, eta handik zortzi hilabetetara identifikatutako kide guztiak salatu zituen Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, Mozal legea aplikatuta. 1.500 eta 2.500 euro bitarteko isunak paratu zizkieten gazteei, denetara: 290.500 euro. 133 gazte horietako bi dira Patxi Martin Arregi doneztebarra eta Josu Txoperena Iribarren lesakarra. Isunak «erabaki politiko baten ondorioa» direla salatu dute, eta irailaren 8an Donostian egitekoa duten mobilizazioan parte hartzeko deia egin dute. *Bat eginez independentziara* lelopean manifestazioa egingen dute, 13:30ean Bulebarretik abiatuta.

Noiz eta nola izan zenuten isunaren berri?

Ekimenetan parte hartu genuen kideoi momentu berdintsuan ailegatu zitzaigun, maiatz aldera. Nire kasuan [Patxi], notifikazioa eta isuna etxera ailegatzea kostatu zen, baina espero nuen zerbait izan zen, kide guztiak harremanetan baikeunden. Horrelako berri bat hartzea ez da erraza. Diru aunitz da eta zaila da batzuetan egoera kudeatzen, kezka handia izaten baita aunitzentzat. Hala ere, egituraren eta

komunitatearen babesa hartu dugu eta horrek segurtasuna ematen du.

Ernairen aurkako «eraso larria» dela salatu du antolakundeak, eta «erabaki politiko baten ondorio» izan dela erran du. Zergatik?

Gure proiektuak geroz eta babes handiagoa du eta hori gaur egun agintean dauden alderdientzat, UPNrentzat, PSOErentzat, PPrentzat eta EAJren-

tzat batez ere, bereziki jasan-gaitza da. Gure kasuan arbitrariotasun garbia dago isunen kopuruagatik. Horregatik erraten dugu Ernairen aurkako eraso izan dela eta erabaki politiko baten ondorio. Gainera, badakigu salaketa paratu duena, kasu honetan, EAEko Segurtasun Saila izan dela, beraz... Ondorioak errazak dira ateratzen.



Txoperena eta Martin diru bilketako eta manifestazioko kartelak eskuetan.

Isunen zenbatekoak nabarmen handitu dituzte...

Gisa aunitzetako ekimenetan, nahiko ohikoa izaten da identifikazioa eta isunen bat ailegatzea. Mozal legea aplikatuta, normalean ekimenaren arduraduna identifikatu ohi da eta 600 euroko isuna hartzen du. Mozal legea aplikatzea bera ere gaitzetsi nahi dugu. Kasu honetan, ordea, kide guztiak, 133, identifikatu gintuzten, eta bakoitzari 1.500 eta 2.500 euroko isunak paratu zizkiguten. Beraz, horregatik diogu bereziki desproporzionala izan zela isuna. **Zer erranen zenukete Mozal legearen inguruan?**

Mozal legea bere oinarritik antidemokratikoa da. Oroitarazi nahi dugu PP Espainiako Gobernuan zela onartutako legea izan zela, UPNren babesarekin. Azken finean, botere banaketa ohikoa behar-rean, administrazio publikoari salaketak egiteko eskubidea ematen dio. Horrek administrazioaren aurka dagoen edozein egoera zaurgarrian uzten du. Euskal Herrian, herri mugimendua eta eragile sozialak gelditzeko erabiltzen dute legea.

Isunen aurkako helegiteak aurkeztea erabaki duzue, eta dagoeneko batzuk aurkeztu dituzue. Denera 133 aurkeztea da asmoa?

Bai, hori da, 133 isun eta 133 helegite. Ahalik eta erantzun sendoena ematea da gure intentzioa.

Zer frogatu nahi duzue helegiteen bitartez?

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren partzialtasuna eta desproporzionaltasuna agerian utzi nahi dugu. Gainera, kasu hau etorkizuneko bertze kasuen aurrekaria izan da segur aski eta horren kontrako gure jarrera irmo erakutsi nahi dugu. Horrelako kasuak normaltasunez ez hartzeko beharrezkoa iruditzen zaigu hasieratik erantzun sendo ematea. **Prozesu judiziala abiatzeak zer erran nahi du Ernairerentzat?**

Prozesu judizial batek lan karga handitzen du gazte anto-



Josu Txoperena Iribarren ezkerrean eta Patxi Martin Arregi eskuinean; isuna hartu duten Ernaiko 133 auzipetuetako bi dira.

lakundearentzat, bertze eginkizun ugari baititugu. Baina egian sinesten dugu bide hau ireki beharra dagoela, erasoaren aurka erantzuna antolatzearekin batera.

Ernai egoera onean ikusten duzue?

Bai. Pandemiak gogor astindu zituen eragile politikoak gizarte mailan. Hala ere, hori pasatu eta Ernai etengabeko hazkundera dagoela iruditzen zaigu. Geroz eta gazte gehiago gara eta antolakundera goiti doa. Dinamika honen bitartez frogatu nahi genuke isunak eta zigorrak hartuagatik, lanean segituko dugula ahalik eta indartsuen.

Elkartasun kanpaina ere martxan da. Zer egin duzue orain arte eta zein izan da emaitza?

Errepresio ekonomikoari erantzuteko, duela hilabete batzuk elkartasun kanpaina hasi genuen, elkartasun zozketaren eta diru bilketaren bitartez, adibidez. Emaitzak positiboak dira, baina oraindik ere elkartasun handiagoa behar dugu

eraso ekonomikoari erantzuteko. Nahi duenak Laboral Kutxako ES14 3035 0108 01 1080050918 kontu korrontera egiten ahal du bere ekarpena, *Dohaintza* kontzeptua paratuta. Bakoitzak, ahal duen neurrian, egiten ahal dituen ekarpen guztiak eskertuak dira. **Herritarren aldetik babesa sentitu duzue?**

Bilboko eta Gasteizko ekimenez oihartzuna izan zuten eta jendeak galdetu izan digu zer gertatu zen. Isunen dinamika atera eta inguruko interesa eta babesa ere hurbil sentitu ditugu. Hala ere, orain arte ez dugu publiko egin gu izan gara isuna hartu dugunetako bi. Beraz, babesa ez da horrenbertze nabaritu.


«ALDI HONETAN GU IZAN GARA, BAINA EDOZEIN IZATEN AHAL DA»

Zer mezu zabalduko zenukete irailaren 8ko mobilizazioari begira?

Alde batetik, jendea bertarantzera animatu nahiko genuke, eraso hau ez baita Ernairen kontrakoa bakarrik, zerbait aldatu nahi duen edozeinen aurkakoa baizik. Aldi honetan gu izan garen arren, hurrengoan bertze edozein izaten ahal da. Horrelako injustizien kontra, beharrezkoa da ahalik eta erantzun sendoenak ematea jendearen kontzientzia aktibatzeke. Gainera, Donostiako estropaden eguna bereziki egokia izaten ahal da gure mezuak oihartzuna izateko.

Zerbait gaineratuko zenukete?

Argi dago gure aurkako eraso hau zergatik gertatu den. Harrokeriarik gabe, baina harrotasunez erraten ahal dugu gure proiektua aitzinera doala, eta horren ondorioz ditugula horrelako trabak bidean. Hala ere, erasoei erantzun eta gure bidea egiten segituko dugu Euskal Herri eta gizarte askea eraiki arte.



Kanpaina erabili duten irudia.

Dutxa bakoitza lau minutura mugatzeko kanpaina

TTIPI-TTAPA

Ingurumen eta osasun arazoia tarteko, ura aurrezteko eta etxean arduraz erabiltzeko beharraz sentsibilizatzeko kanpaina abiatu du Nafarroako Gobernuak. Nafarroako 36 udalerrik bat egin dute kanpainarekin, eta tartean dira Arantzeta, Beintza-Labaien, Donamaria eta Urroz. Kanpaina honen bitartez, lau minutuko harezko erloju tikiak banatu dituzte herrietako bizilagunen artean. etxean dutxa baten iraupena kontrolatzeko. Hori da Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) egoki jotzen duen eta larruazalaren higie eta osasungarritasun irizpideen arabera gomendatzen duen gehieneko denbora. OMEren kalkuluen arabera, etxeko dutxa baten denbora, bana bertze, 10 minutukoa da, eta saio bakoitzean 200 litro ur gastatzen dira. Denbora hori proposatutako lau minututara murriztuz gero, 120 litro ur aurrezten ahal dira, eta, beraz, Nafarroako biztanleria osoak erronkarekin bat egingen balu, dutxa bakoitzean zazpi milioi litro ur aurreztuko lirake, 24 igerileku olimpikoren baliokidea. Horrez gain, dutxaren denbora mugatzeak osasunean ere abantailak dituela oroitarazi dute, ur gehiegik larruazala hondatzen baitu.



Zubi berrian egindako giza proba ikusgarria izan zen. MAIDER PETRIRENA

Giro ederrean joan dira aurten ere herriko bestak

41 urtez udal langilea izan ondotik aurten erretiratuko den Juanjo Ibarra albinteak piztu zuen txupinazoa

MAIDER PETRIRENA

Ortzirale arratsaldean goiti-beherak ibili ziren herrian eta gazteak banaka zein binaka egin zuten jaitsiera. Ondotik, giza proba ikusteko aukera izan zen zubi berrian.

Larunbat goizean kartel lehiaketaren sari banaketa egin zen. 14 urtetik azpikoetan Aroa Ibarra izan zen irabazlea eta 14 urtetik goitikoetan, Iraide Iriarte. Juanjo Ibarra Iriarte albinteak piztu zuen txupinazoa. 1983tik udal langilea izan da eta aurten jubilatuko da.

San Tiburtzio eguneko mezan herriko abesbatzak kantatu zuen, Elizondo, Giltzarri eta Urruñako abesbatzako kideek lagunduta, Isabel Lakar zuzendariarekin eta Imanol Elizasu organistarekin batera. Ondotik, dantza emanaldia egin zen herriko plazan.

Astehenean plater tiroketa berreskuratu zuten, Olegin. Xabier Lazkano izan zen garaile, Daniel Fernandez bigarren eta Jon Iriarte hirugarren. Arratsaldean, emakume gaztetxoan pilota partidaren ondotik, frontenis txapelketako finala jokatu zen; Luis Retegik eta Xanti



Juanjo Ibarra txupinazoan.

Manterolak Asier eta Gorka Antuña anaiei irabazi zieten.

Asteartean, boneta jaurtiketan, gazteetan Jon Arrese izan zen irabazle, Adei Uriz bigarren eta Ainhoa Armendariz hirugarren; zapatila jaurtiketan, Jon Arrese txapeldun, Ainhoa Armendariz bigarren eta Enaitz Ageta hirugarren. Helduetan, bonetarekin Xabin Muruamendi garai, Julen Ibarra bigarren eta Esteban Sarratea hirugarren; zapatilarekin, Haritz Arriola garai, Jon Mikel Gaztelumendi bigarren eta Iker Sein hirugarren. Azkenik, asteazkeneko mus txapelketan, Txus Rekarte eta Ruben Irigoien izan ziren irabazle, Joxe Martin Agirre eta Joxe Mari Arretxea *Itxegi* bigarren.



XXI. Ramon Latasa Sarian parte hartu zuten kirolariak. IBON ERRAZU

Iker Vicente eta Ibai Soroa nagusitu dira aurten ere Ramon Latasa Sarian

M. PETRIRENA

Hainbat aizkora proba jokatu zituzten aurten ere abuztuaren 11n Sunbillako bestetan, XXI. Ramon Latasa sarian. Gizon-zkoetan, joan den urtean bezala, Iker Vicentek eta Ibai Soroak osatutako bikoteak irabazi zuen txapela, bero itogarriarekin hamar kanaerdiakoak eta 60 ontzako sei enborrak 30 minutu eta 49 segundotan moztu ondotik. Larrañaga eta Ezpeleta bigarren izan ziren (31.20); Julen Alberdi *Txikia IV.a* eta Mugertza hirugarren (34.16) eta Atutxa eta Otaño laugarren (35.35). Emakumezkoetan, berriz, Nerea Arruti eta Uxue Ansorregi nagusitu ziren (11.53). Nerea Sorondo beratarra eta Oihana Fernandez bigarren izan ziren (12.29) eta Karmele Gisasola *Zelai III.a* eta Laiene Pikabea hirugarren (14.54).

Honez gain, Gipuzkoako eta Nafarroako aizkolari veterano eta gazteen arteko lehia gipuzkoarrak gailendu ziren. 45 ontzako hamar enborrak mozteko, 12 minutu eta 57 segundo behar izan zituzten Angel Arrospide, Jose Ugarteburu, Unai Etxeberria eta Igoi Pikabea gipuzkoarrek eta 36 segundo gehiago Donato Larretxea, Antonio Jaunarena, Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide nafarrek.

Aizkolariez gain, harri jasotzaileek ere lana izan zuten igandean Sunbillan. Binaka aritu ziren, bina minutuko hiru txandatan, 125 kiloko harri koparekin, 150 kiloko laukizuzenarekin eta 175 kiloko harriarekin. Urta eta Azpiazu bikoteak 8.325 kilo altxatu zituen eta Aimar Irigoienek eta Beñat Telleriak osatutako bikoteak 7.825 kilo.



Iker Vicente eta Ibai Soroa, aurten ere garaile. IBON ERRAZU

Construcciones Mariezcurrenak 45 urte bete ditu

Irailaren 14an ospatuko dute herrian Construcciones Mariezcurrena enpresaren 45. urteurrena

TTIPI-TTAPA

Urteurren berezia beteko du aurten Construcciones Mariezcurrena enpresak. 1979an lanean hasi zirela 45 urte beteko dira aurten eta langileekin eta herritarrek ospatzeko tartea hartuko dute irailaren 14an. Ekitaldiak Merkatuko Plazaren goitiko aldean egingen dituzte. Langile denei eskerrak emateko eguna izatea nahi dute enpresako buruek.

11:00etan paratu dute hitzordua eta bertan aureskua dantzatuko dute herriko dantzariak abesbatzako kideek abesten duten bitartean. Ordu berean irekiko dute enpresaren historiari buruz prestatutako erakusketa ttikia.

Ondotik, jatekoa banatuko dute bertaratutako enpresan, eta 11:45ean herri kirol erakustaldia izanen da. Alde batetik bi emakumezko bikote arpanean ariko dira nor baino nor. Ondotik, Nerea Arruti aizkolariak bi metroko diametroa duen enborra moztuko du lehenengoz eta Estefi Etxebeste harri jasotzailearen erakustaldia izanen da.

Bortz Kirol Txapelketaren hirugarren edizioa

Erreka hirugarrenezari da Bortz Kirol Txapelketa antolatzen. Entrenamenduak irailean egin nahi dituzte eta txapelketan urrian jokatu. Izena eman nahi duenak oraindik badu aukera errekaelkartea@yahoo.es helbide elektronikora mezu bat bidalita.

Ondotik, gizonen desafioa izanen da. Iker Vicente eta Oier Ezpeleta, Julen Alberdi Txikia eta Mikel Larrañagaren kontra ariko dira. Herri kirolak 13:00etan bukatuko dira eta berriz ere jatekoa banatuko dute bertaratutakoentzat. Herritar oro gonbidatu dituzte goizeko ekitaldietara.

14:00etan, aldiz, bazkaria izanen dute langileek eta gonbidatuek eta ekitaldia izanen dute.

Eguna borobiltzeko pilota partiduak antolatu dituzte Ezkurra pilotalekuan. Haste-ko, emakumeen arteko partida izanen da: Aldaregia eta R.L. Mujika, Iturriaga eta Agirrerren aurka ariko dira. Gizezkoen txanda izanen da gero, Etxeberriak eta Zabaleetak, Altuna eta Martija izanen dituzte aurkari. Sarre-
rak 25 eurotan lortu daitezke Ostiz, Titi eta El Cafe ostatuetan.

Sarreretatik ateratako dirua ANELA eta emakumeen eskubideak babesteko Malerrekan sortu berri den ASKE E.E. elkarreentzat izanen da.

Eskubaloian apuntatzeko azken egunak

Errekan eskubaloian ari nahi dutenek azken egunak dituzte izena emateko. Irailaren 6a izanen da izena emateko azken eguna eta web orrian dagoen galdetegia betez egin behar da. Aitzinerako jakinaraziko dituzte entrenamenduen ordutegiak.



lazko txapelketan parte hartu zutenak. INIGO OSTIZ

Xake azkarreko txapelketa jokatu dute irailaren 14an hirugarren aldiz

OIER ZULAIKA

Xakea berriz ere protagonista izanen da Kasino Elkartean hilaren 14an. Doneztebeko III. Xake Azkarreko Txapelketa jokatu dute. Partidak sistema suitzarrari jarraiki egingen dituzte eta 10 minutuko luzera izanen dute. Parte hartzaileek 5 euro ordaindu beharko

dituzte, eta lehiaketan apuntatzeko azken eguna irailaren 12a izanen da. Izena emateko 671 50 52 31 zenbakira mezu bat bidali beharko da.

Jorge Ostizek eta Gazte Burrunbak antolatu dute txapelketa, Kasino eta Mikel Gure Xake Kluba elkartearen laguntzarekin.

Pertsonen arretari eta nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko ikastaroak

TTIPI-TTAPA

Bi ikastaro izanen dira herrian udazkenean. Alde batetik pertsona ardatz duten arreta zerbitzuetarako ziurtagiri ofiziala eskuratzeko 50 orduko ikastaroa emanen dute. Urriko hamar egunez emanen dute, urriaren 1ean, 2an, 8an, 9an, 10ean, 15ean, 16an, 23an, 24an eta 30ean, 16:00etatik 21:00etara.

Izena emateko formacion@incluyenavarra.es helbidera idatzi behar da edo 689 24 04 01 telefonoaren bidez. Egoitzetako, hirugarren adineko zentro eta zerbitzuetako, etxez etxeko arretako, desgaitasuneko, gaixotasun mentaleko, gizarte bazterketako eta adingabeen zaintzara emanak diren profesionalen zuzendua da ikastaroa, baita langabetuei ere.

Cederna Garalur Elkartek bertzalde, Sustriak Habitat Design kooperatibarekin batera, nekazaritza eta abeltzaintza birsortzaileari buruzko doako bi ikastaro independente antolatu ditu. Lehenengo baratzaintza birsortzailean eta elikagaien basoan oinarrituko da, eta irailaren 23an, 24an eta 30ean eta urriaren 1ean egingen da. Bigarren lantegiaren izenburua *Tokiko baliabideak aprobetxatzea abeltzaintza birsortzailearako* da, eta urriaren 7an eta 14an egingen da.

Izena emateko epea ikastaroak hasi baino astebete lehenago itxiko da. Interesdunek izena eman eta informazio gehiago eska dezakete bidasoaelikadura@cederna.es helbidera idatzita edo 674 02 47 66 telefonora deituta.

Lesioa gainditu eta hainbat saio ditu Estefi Etxebestek

Abuztuaren 30ean taldekako herri kirol triatloian aritzekoa zen Elgoibarren, hilaren 7an Alkizan eta 14an Donezteben ariko da

ARKAITZ MINDEGIA

Aurtengo inauterietan, urtarril hondarrean estreinatu zen harrijasotzaile bezala Estefi Etxebeste. Geroztik hainbat erakustaldi eta txapelketan aritu da, adibidez, ETBk bigarren urtez antolatu zuen *Harri Herri* saioan. Udan, lesio baten ondorioz, plazetatik kanpo egon da baina uda bukaeran hainbat saiotan arituko da. Abuztuaren 30ean Elgoibarren aritzekoa zen, III. Taldekako emakumezkoen herri kirol triatloian. Nafarroako taldean aritu zen Estefi, Nerea Soron-

do aizkolariarekin eta Iranzu Fierro txinga eramailearekin batera eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa izan dituzte arerio. Aurrera begira, irailean, Alkizako jaietan hilaren 7an frontoian egingen den erakustaldian ariko da, Ostozala eskolako Olaia Esnaola taldekidearekin batera, Izeta eskolako Lierni Osaren eta Ainitze Zumetaren kontra. Harri jasotzaileez gain Txikia IV.a, Mikel Larrañaga eta Eneko Otaño aizkolariak ere bertan egonen dira.

Irailaren 14an etxetik hurbil ariko da, Donezteben.

Saharako hiru haurrek gurean pasa dute uda

Saharaztan elkartearen eskutik Saharako haurrak herrian izan ditugu. Bi familietara etorri dira Uafa, Brahim eta Wanha. Herrian pozik ibili dira etxekoekin eta herritarrekin, berexiki gaztetxoekin. Irailaren 3an itzultzekoak ziren beraien herrialdera.

Bestarik besta ibili dira Iturengo joaldunak udan ere

Iturengo joaldunak han eta hemen ibili dira: Baztandarren Biltzarrako desfilea ireki dute, Irungo Euskal jiran, Zigako bestetan eta Hendaian erremon-te partida batean. Joaldunen eguna baino lehen, Zarauzko euskal jaian 50 joaldun izanen dira irailaren 9an.



UTZITAKOIA

Ados Pilotako neskak han eta hemen

Ados pilotako neskak Ezkurran, Zubietan, Getariko eta Olako txapelketan aritu dira uda honetan. Federazioak antolaturiko kanpaldian ere parte hartu dute batzuk. Eratsungo bestetan ariko dira eta frontball pilota modalitate berriko Barañain eta Zizurko txapelketetan, hilaren 13, 14 eta 15ean.



UTZITAKOIA

Mendaur trikipandero eskola

Udako oporren ondotik Mendaur trikipandero eskolak urritik aitzinera emanen dituen trikitixa eta pandero ikastaroetan apuntatzeko matrikulazioa ireki du, irailaren 3tik 10era. Legasa, Arizkun, Elizondo eta Sunbillako eskolez gain, Aurtizko lokalean aukera izanen da pandero eta triki ikasteko.

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

MINIESKABAZIOAK
MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak
Menuak, kartak, mahai-oihalak...
Hainbat material, erabat pertsonalizatuta



Gazteen bazkariaren ondotik jokoak izan zituzten plazan. M. ETXEKOLONEA



Gazte bazkaria prestatzen.

Parte hartzaileak izan dira aurten ere Zubietako festak

Festen balorazio ona egin du udalak eta ospakizunez gain, hainbat txapelketa ere jokatu dira bost egunetan

FERMIN ETXEKOLONEA

Ohi bezala, arbola altxatzea-ekin hasi eta arbola botatzea-ekin akitu ziren herriko festak. Bien bitartean, zenbaitetan eguraldiaren beldur izan bazen ere, ekitaldi guztiak bete ziren, hondarreko eguneko Doneztebeko dantzari ttikien emanaldia izan ezik. Udalak besten balorazio ona egin du, «ongi joan dira, arazorik gabe, herriarrendako eta parte hartzaileak izan dira».

Horren erakusgarri, hainbat txapelketa jokatu dituzte festatan. Bezperan jokatutako pala txapelketa mistoko fina-

lean, Beñat eta Malen Etxekoloneak tanto bakarragatik (30-29) irabazi zieten Olatz Baleztenari eta Eki Gerekarari.

Abuztuaren 16an, mus txapelketan hogeitak hartu zuten parte herriko ostatuan. Horien artean, Julen Santesteban eta Unai Loiarde izan ziren txapeldun, finalean Pakita Santestebani eta Xabier Bendoirori irabazita. Jabiartxo eta Mikel Santesteban aita-semeak izan ziren hirugarren.

Hilaren 17ko patata tortilla lehiaketan, berriz, 14 tortilla aurkeztu zituzten. Txas Esparzak eta Pedro Elizalde aur-

keztutakoa izan zen onena, Haizea Artiedarena bigarren eta Lurdes eta Joanarena hirugarren. Horren aurretik gazteek bere bazkaria izan zuten eta ondotik jokoak egin zituzten, argazkietan ageri den bezala. Egun berean jokatu zen plater tiroketa lehiaketa Azkunzorotan. Igor Babaze izan zen irabazle, Julen Santesteban bigarren eta Hilario Mutuberria hirugarren.

Hondarreko eguneko herri bazkarian, 120 bat lagun bildu ziren estalpean.

Palaxio finalera

Herriko festak hasten ziren egunean, abuztuaren 14an, Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketako kanporaketa jokoan zuen Mikel Indakotxea *Palaxio* aizkolariak. Irailaren 22an Uhartan jokatuko den finalerako bost txartel zeuden jokoan eta bosgarren izan zen. Segundo bakarreko aldea atera zion Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberriari.

'Hamaika' ekimen artistikoa ikusgai izan da Eratsunen asteburuan

TTIPI-TTAPA ERATSUN

Lurraren defentsan hainbat artista eta eragilek bat egin eta Hamaika proiektu artistikoa sortu dute. Abuztuaren 30etik irailaren 1era Eratsungo eskola zaharrean egon da ikusgai eta egileek hitzaldia eskaini dute proiektua aurkeztuz. Eratsungo festen eta abuztuaren 31n egin dute Iruñarri Egunaren aurrekaria izan den erakusketa.

Hamaika elkarlanean sortutako diziplina anitzeko proiektu artistikoa da. Euskal Herriko hamaika ilustratzailek parte hartu dute proiektuan eta makroproiektu eolikoek kaltetutako Euskal Herriko zenbait familia eta bizilagunen hamaika testigantza ere jaso dituzte: 11 txori kartel, lurraren defentsan egindako 11 margo, Euskal Herriko 11 testigantza, Malerrekako txorien eskulturak, musika eta poesia izanen dira ikusgai.

Etxalarko Haizeak Bizirik taldeko Irantzu Piquero ilustratzaile eta editoreak sortu du erakusketa, Malerreka Bizirikeko José Delicar diseinatzaile grafikoaren lankidetzarekin. Eskualdeko mendietan eraiki nahi duten makroproiektu eolikoaren kontra sortutako erantzuna da erakusketa.

ZAPOREAK

GOURMAND EXPERIENCE

ONGI ETORRI ZURE GOURMET GUNE BERRIRA.

PRODUKTU FRESKOA ♦ JANARI BEREZIA ♦ EDARIAK ♦ JATETXEA

Dantxarinea

zaporeak.com



Joan den urteko besten hasieran egindako omenaldia. LEIRE ELIZONDO



Gazteek (eta gazte ez direnek) ongi pasatzeko aukera izanen dute. LEIRE ELIZONDO

Oizko bestak irailaren 6tik 8ra ospatuko dituzte

Ortzirale arratsean txupinazoa, larunbatean herri bazkaria bertsolariekin eta igandean aizkora apustua izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Ortzirale honetan, irailaren 6an, arratsean, gazteen arteko herri kirol saioarekin eta botako duten txupinazoarekin hasiko dituzte bestak, larunbatean herri bazkaria eta mus txapelketa izanen dituzte eta igandean aizkora apustua eta tortilla lehiaketa. Egunero haurrendako puzgarriak izanen dira plazan.

Irailak 6, ortziralea

19:00etan herri kirolak gazteen artean. **20:30ean** beste hasiera emanen dien txupinazoa plazan. **21:00etan** zopak He-

rriko Ostatuan. **00:30ean** hasita Itzal taldearekin erromeria plazan.

Irailak 7, larunbata

09:00etan gosaria herriko elkartearen. **11:00etan** mus txapelketa herriko elkartearen. **14:00etan** herri bazkaria plazan. Bakoitzak bere sardexka, labana, koilaratxo eta edalontzia eraman beharko ditu. Ondotik bertsolariak ariko dira: Egoitz Gorosterrazu eta Bittori Elizalde. **Arratsaldean** Agerralderekin dantzaldia. **21:00etan** xingar jatea plazan. **22:00etan** su artifizialak.



2008ko bestetan ere umore ederrean oiztarrak. ARTXIBOKOA

23:00etan Bada Giro taldearekin erromeria plazan. Ondotik Endara DJ.

Irailak 7, larunbata

11:00etan meza nagusia elizan. Ondotik luntxa eskainiko dute Herriko Ostatuan. **13:00etan** aizkora apustua eta harri jatsotzea. Aizkoran, Oier Kañameres eta Joxean Etxeberria ariko dira eta harria altxatzen, Aimar Galarraga. **17:00etan** haurrendako jokoak plazan.

18:30ean Beñat eta Fernandorekin dantzaldia plazan. **20:00etan** tortilla lehiaketa herriko elkartearen. Ondotik, xingar jatea plazan. Gero, beste amaiera emanen zaie.

HAURRENDAKO PUZGARRIAK IZANEN DIRA EGUNERO PLAZAN





Joan den urteko mus txapelketako txapelkun eta txapelkunordeak. ARTXIBOKOA



Harri jasotzaileak joan den urtean. Aurten aizkora eta arpana saioa izanen da.

Eratsungo pestak irailaren 5etik 8ra ospatuko dituzte

Ostegunean txupinazoa, ostiralean herri kirolak, larunbatean herri bazkaria eta mariatxiak eta igandean pilota izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Pestetarako prest dira Eratsunen ere, eta helburu horrekin, lau eguneko egitaraua presatatu dute. Ostegunetik igandera, irailaren 5etik 8ra ospatuko dituzte, ostegun arratsoko txupinazotik hasi eta igandean arratsaldeko pilota partiden ondoko luntxa bitarte. Ostiral eguerdian aizkora eta arpana apustu mistoa izanen da.

Irailak 5, osteguna

20:00etan pestei hasiera emateko txupinazoa. **21:00etan** zopak jatea. **00:30ean** dantzaldia Beñat Mitxelenaekin.

Irailak 6, ostirala

12:00etan aizkora eta arpana apustu mistoak. Aizkora apustua mutilak: Julen Alberdi *Txikia IV.a* eta Oier Kañamares, Iker Vicenteren eta Xuban Kañamaresen kontra. Aizkora apustua neskak: Bea Tanco, Maika Ariztegiren kontra. Arpana mistoa: Bea Tanco eta Oier Kañamares, Maika Ariztegiren eta Xuban Kañamaresen kontra. **15:00etan** mus txapelketa. **17:00etan** herriko frontenis txapelketaren finala. **18:30ean** Etxez-etxe txarangarekin kalejira. **Arratsaldean** eta **gauetz** musika DJ J&Jrekin.



Mariatxiak ez dute hutsik egingen aurten ere pestetan.

Irailak 7, larunbata

10:00etatik 13:00etara joko tradizionalak. **14:00etan** herri bazkaria. **17:30ean** Los Cahuates mariatxiak. **19:00etan** dantzaldia Beñat Mitxelenaekin. **00:30ean** Iratzar taldearen emanaldia.

Irailak 8, igandea

10:30ean dianak txistulariekin. **11:00etan** meza. **12:00etan** Leitzako eta Doneztebeko dantzariak. **14:00etan** tortilla

lehiaketa eta, ondoren, paellekin batera, bazkaria. **17:30ean** esku pilota partidak. Neskak: Iraide Iriarte eta Janitz Irigoien, Irati Altxuren eta Dunixe Alberroren kontra. Mistoa: Goiuri Zabaleta eta Oier Eskudero, Leire Oscozen eta Mattin Oiaregiren kontra. Azken partidari, mutilak, buruz buru, Beñat Apezetxea, Eñaut Lizeagaren kontra. **19:30ean** pestei amaiera emateko luntxa.

LIDERA

HÖRTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT

astelehenetik ortziralera

08:00-13:00

15:00-20:00

larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. **722 662 478** | lidera@hortzclinika.es

@liderahortzclinika

Eratsungo Udalak

besta zoriontsuak opa dizkizue

Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun 943 63 45 36

MALERREKA

Euskara ikasi dutenendako dirulaguntzak

2023-2024 ikasturtean euskara ikasten aritu direnek irailaren 30era arte eskatzen ahal dute dirulaguntza

TTIPI-TTAPA

2023-2024 ikasturtean euskara ikasten aritu diren ikasleendako dirulaguntza deialdiarekin prest du Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Malerrekako herritarrek izanzen dute dirulaguntza hartzeko aukera eta eskaera egin eta dokumentazioa aurkezteko epea irailaren 30ean akituko da. Matrikula gastuak izanzen dira euskara zerbitzuak diruz lagunduko dituenak, eta laguntzaren zenbatekoa gehienez ere 460 eurokoa izanzen da.

Baldintzak

Euskara ikastaroan egindako asistentzia hartuko dute kontuan dirulaguntza banatzera koan. Hala, asistentzia %86tik goitikoa baldin bada, dirulaguntza matrikularen gastua osorik ordainduko zaie; asis-

tentzia % 70 eta % 85 bitartekoa izan bada, dirulaguntza matrikularen kostuaren % 75 izanzen da; eta asistentzia % 70etik beheitikoa izan bada ez da dirulaguntzarik izanzen.

Horrekin batera, dirulaguntza eskatzeko nahitaezkoa izanzen da 16 urte edo gehiago izatea, Malerrekako udalerriren batean erroldatua izatea, eta Nafarroako Gobernuaren euskara ikasteko dirulaguntza eskatua izatea

Gainerakoan, eskaera orriarekin batera, bertzeak bertze, erroldatze ziurtagiria, euskaltegiko matrikularen ordainagiria eta euskaltegiaren agiria, asistentziari buruzko datuak ematen dituen aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago euskarazerbitzua@maleerreka.eus helbidean edo 948 45 17 46ra deituta.



NATALIA REKARTE

Giro ederrean Donamariako bestak

Markel Leatxe herriko erremontista profesionalak bota zuen aurtengo Donamariako beste hasiera ofiziala eman zien txupinazoa. Handik aitzinera besta giroa nagusitu zen. Egun handian, 80 urteko herritarrak omendu zituzten, tartean, hitzordura hurbildu ziren Santiago Telletxea eta Manolo Rekarte.

Lau egunez besta betean Beintza-Labaienen

Abuztuaren 2tik 5era bestak ospatu zituzten Beintza-Labaienen, eta otorduak, jokoak, kirola, musika eta bestelako hitzorduak tartekatuz, hurrek, gazteek eta helduek ederki gozatu zuten. Heldu den urtean gehiago!



ARANTXA ITURRALDE



FATIMA MITXEO

Eguraldia lagun besta ederrak Gaztelun

Beti bezala, aurten ere besta giroan hasi zuten abuztua Gaztelun. Eguraldiak lagunduta, lau egunez aspertzeko astirik gabe ibili ziren herritarrak. Otorduak, musika, haurrentako hitzorduak, herri kirolak, aizkora apustua... Denetarik izan zuten.



JAIONE ZABALO

Ezkurran ere aspertu gabe pestetan

Gautxorien kantuak goiztiarrenekin elkartuz, giro bikainean joan ziren Ezkurrako pestak. Herri kirolak, pilota partiduak, bazkariak eta afariak, mus txapelketa, dantzaldiak, mariatxiak, umeentzako jolasak... Bost egunez ez zuten ekitaldi faltarik izan Ezkurran.

IKASTURTE HASIERA 2024-2025



XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBIK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

IGONE

LIBURU-DENDA
PAPER-DENDA
MARGO-DENDA
JOSTAILU-DENDA

- 📍 Ikasturte berria hasteko ikasmaterialetan aukera zabala!
- 📍 Neurri guztietako paper termiko biribilkiak.
- 📍 Tonerrak eta tintak enkarguz.

Kanttonberri 4 · Bera · Tel.: 948 630 626 📞
papeleriaigone@gmail.com

Ailegatu da iraila, eta pixkanaka ari da bukatzen uda. Ofizialki, irailaren 22an bukatuko da uda eta sartuko gara udazkenean. Aunitzek, ordea, dagoeneko izanen dute bukatu denaren sentipena, ohikoa izaten baita irailarekin batera oporrak bukatzea. Ikasketarako eta lanerako itzulera sasoi izaten da gehienentzat iraila eta batzuk gogotsu, eta bertzeek galbana pixka batekin hartuko dute ziur aski urtaro eta garai aldaketa.

Urtarrileko malda baino gogorragoa izanen da aunitzentzat irailekoa; urte hasieran egindako eta oraindik bete gabeko promesak betetzeko bigarren aukera gisatzat hartuko baitute iraila aunitzek; hutsetik hasteko aukera irudiko zaie bertzeei eta hilabete normal-normala izanen da bertze aunitzentzat.

Dibertsiorako unea ere izan daiteke, ordea, iraila: herrietako azken bestez gozatzekoa, hondartzako azken bainuak hartzekoa, edota aspaldian ikusi gabeko lagunekin elkartu eta udan bizitako abenturak kontatzeko. Baita errutina berri bat sortu eta eguneroko ohiko ekintzez gozatzekoa ere. Horixe baitauka ikasturte hasierak normalki, azken hilabeteetako lasaitasun aldia alde batera utzi eta errutina itzuli ohi dela gehien bizitzetara.

Errutina berri hori sortzeko garaia izanen da orain heldu dena, norbere gustuen eta beharren arabera ekintzak aukeratzeko. Ingelesean edo zunban apuntatzeko, pintura klasea aukeratzeko edo aspaldi amestutako instrumentua jotzeko, baina eguneroko agenda gehiegi bete gabe.

PINTURA
IKASTAROA
2024-2025
ikasturtea

- ✓ Ttikiak
- ✓ Gazteak
- ✓ Helduak

*6 urtetik aurrera

Amaiur / Elizondo
Doneztebe / Sunbilla
Arantza / Bera

**MARGOTU, ERLAXATU
ETA GOZATU!**

Tel. 661 010 416
Iciar Mikelperizena

«Edozeinek egiten ahal duen metodoa da K-Stretch»

REGINA TOLOSA REGINA TOLOSA ZENTROKO ARDURADUNA

regina tolosa
FISIOTERAPEUTA

K-STRETCH® K-STRETCH
EGUNERO

Elorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

regina tolosaechepare



ten ez dutenek, lumbagoa dutenek... edozeinek egiten ahal du», zehaztu du. Horren erakusgarri da 85 eta 90 urteko bi lagun ere aritzen direla K-Stretch egiten bere zentroan.

Hamakak ditu oinarri metodoak, eta hamaka horietan egiten dute K-Stretch klasea. Ordubetean hainbat postura diferente egiten dituzte hamaka horretan, beti ere posturari eta arnasketari garrantzia emanez, eta gorputza luzatzen une oro. Fisioterapeutak arduratzen dira klasea gidatzeaz, eta paziente bakoitzaren patologiak ezagutzen dituztenez gero, kasu bakoitzaren arabera egokitzen dituzte hamakan egiten dituzten ariketak.

Azken aldian batean eta bertzean gero eta gehiago zabalitzen ari den metodoa da K-Stretch. Luzaketa erran nahi du *stretch* hitzak ingelesez, eta izenak berak iradokitzen duen bezala luzaketak dira metodoaren funtsa. Zehazki, luzatze ariketetan oinarritzen den jarrera metodoa da, muskulatura lantzen duena gorputzaren jarrera hobetzeko.

Metodoa duela urte gutti sortu bazen ere gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Eskualdean ere hainbat dira K-Stretch klaseak ematen dituzten zentroak, eta horietako bat da Bera-ko Regina Tolosa zentroa. Bertako arduradun eta fisioterapeuta Regina Tolosak eman ditu metodoaren inuruko azalpenak.

Onurak «azkar»

«Klasea luzaketen test bat eginez hasten dugu, eta klase bukaeran test berbera errepikatzen dugu. Bertan ikusten da zenbateko diferentzia dagoen hasieratik bukaerara, eta normalean nahiko handia izaten da», azaldu du Tolosak. K-Stretchak hainbat onura dituela azaldu du: «muskuluetako tentsioa kentzen du, gorputzaren jarrera aldatu eta hobetzen du, mugikortasun articularra hobetzen du, odolaren zirkulazioa hobetzen du, egoera fisiko orokorra hobetzen du... abantaila asko ditu».

Gainera onurak «azkar» nabaritzen direla dio Tolosak: «Lehenengo klasean berean nabaritzen dira onurak. Lehen testetik bigarrenera nabaritzen da

→

Edonork egiteko metodoa

Urte aunitzez kontsultan Stretching Global Activo metodoa erabiltzen aritu ondotik, duela hiru urte eman zuten K-Stretch klaseak emateko pausoa Tolosak. «*Stretching global activo* kirolariei begirako metodoa zen, baina K-Stretch denek egiten ahal dute», nabarmendu du Tolosak. «Haurrek, helduek, kirolariek, kirolrik egi-

«DENOK EGIN
BEHARKO
GENITUZKE
LUZAKETAK»

FISIOMOVING
24-25 IKASTURTEA
K-STRETCH
TALDEKANO KLASEAK



GURE ORDUTEGIEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO, DEITU 644 37 57 06 TELEFONORA

IRAILEAN ETA URRIAN HASTEKO AUKERA

LESAKA

FISIOETXEA
Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

K-STRETCH saioak

ASTEAZKENETAN

09:30 - 10:30

10:30 - 11:30

17:00 - 18:00

18:00 - 19:00



Uharte Gotzaina, 8 3.C • LEITZA • T. 948 510 730



MUGARKI

Kirola, Esperientziak eta Turismo Aktiboa

MUGARKI kirol gunea apustu garrantzitsua da, Baztango eta inguruko herritarrei ariketa fisikoa egiteko eta hauen bizi kalitatea modu seguru eta kontrolatuan hobetzeko aukera eskaintzeko.

MUGARKIko abonatuak jarduera ugari egiteko aukera dute, hala nola:



ESKALADA



INDARRA



KROS HIIT



DANTZUNBA



ZIKLO

KARDIO-FIT



PILATES

+65



Entrenamendu pertsonalizatua taldean.

Gehien bat indar entrenamenduak eginen ditugu gihar masa mantentzeko helburuarekin.

Entrenamendu hauek 2 motako diabetesa, buru osasuna, depresioa eta antsietatea murrizten laguntzen dute.

Osasunbidearekin elkarlanean.

Garraio zerbitzua eta nutrizionistaren kontsulta ere eskura.

Ordutegi eta maila gehiago eskainiko ditugu.
Etorri probatzera!
Informazio gehiago eta erreserbak egiteko:
722 606 785



gehiago luzatzen dela, eta hilabete bakarrean nabaritzen da diferentzia».

Luzaketen garrantzia

K-Stretchaz harago egunerokoan luzaketak egitearen garrantzia nabarmendu du fisioterapeutak: «Oso garrantzitsua da muskulatura garatua izatea eta masa muskularra izatea», azaldu du, baina ohartarazpen bat ere egin du: «Azken aldian aunitz zabaldu da muskulatura lantzeko joera, baina muskulu horiek luzatze-

ko modua izan behar dute, bestela artikulazioetan mugimendurik gabe gelditzen dira, eta hori luzaketan bidez lortzen dugu».

Etxean luzaketak egitea zein K-Stretch metodoa probatzea gomendatu ditu. «Ez da azaltzeko metodo erraza, eta nik mundu guztiari gomendatzen diot probatzeko. Lunbagoa dutenek, adibidez, pentsatzen dute ezin dutela egin, baina, berehala ohartzean dira baietz, postura bikaina dela eurentzako ere».

PROMOZIOA
irailak 7 - 8 septiembre
-% 50 matrikulan
% 25 EXTRA
nahi baduzu..!

- Instagramen Lesakako Udal Kiroldegia jarraitu
- Post hau zure istorioan partekatu @lesakakoudalkiroldegia aipatuz

948 637 400 | kiroldegia@lesaka.eus | www.lesakakoudalkiroldegia.eus



2024-2025

TOKI ONA UDAL KIROLDEGIA
Neguko aktibitate programa
URRITIK-EKAINERA

IZEN-EMATEAK
ETA ATE IREKIAK
Irailaren 18tik 25era
Kiroldegiko bulegoan
11h - 14h / 16h - 21h

- Multikirola
- Dantza Mix
- Gazte Fitness
- Gazte Ziklo
- Zumba
- GAP
- Pilates
- Body pump
- Ziklo
- Indarra entrenamendu funtzionala
- Mantenimentu gimnasia



SASTRAKOKO
KIROL ZERBITZUAK
Berako Toki Ona Kiroldegia
BERAKOUDALA

IRAILEAN URTEKO zein NEGUKO ABONOetan MATRIKULA DOAN

Tel. 948 630 215 / 662 300 763 | info@sastrakokirola.eus

«Aldaketa guztiek urduritasuna eta angustia sortzen dute»

GARBIÑE GOIA IRAZOKI PSIKOLOGOA ETA PSIKOTERAPEUTA



lera haur bakoitzarentzat diferentea dela nabarmendu du Goiak. «Etxean egoera hain erraza ez dutenentzat lasaitasun edo babesleku bat izan daiteke ikastetxea, eta etxea babesleku denentzat diferentea izaten da», azaldu du psikologoak. Maila akademikoan hainbertze erraztasun ez duten ikasleentzako, adibidez, egokitzapena zailagoa dela dio: «Beraienezko angustia eta urduritasun faktore haundi bat izan daiteke klasera itzultzea».

Ikasturte hasierarako pixkanaka antolatu eta ordutegiak egokitzeko gomendioa luzatu du Goiak: eskolako materiala prestatzen hastea, etxean zer dagoen eta zer erosi behar den ikustea... «Uda uda da, eta ona da desoreka pixka bat izatea eta malgutasunez aritzea. Baina orain bertze estruktura bat heldu da», ohartarazi du.

Aldaketekin urduritasuna

Aunitz izanen dira aurrean eskolan aldaketak izanen dituztenak: haur eskolan hasiko direnak, haur eskolatik eskolarako pausua emanen dutenak, bigarren hezkuntzan hasiko direnak, unibertsitatera joanen direnak... «Aldaketa guztiek angustia eta urduritasuna sortzen dute, nahiz



Iraila ailegatzearekin batera errutinara itzultzeko garaia izaten da. Eta ez helduentzako bakarrik, baita haurrentzako eta gaztetxoentzako ere. Aldaketa garaia izaten da etxe aunitzetan, eta garrantzitsua izaten da aldaketa horietarako prest egotea. Garai honi aitzin egiteko hainbat gomendio eman ditu Garbiñe Goia Berako Osatuz psikologia eta psikoterapia zentroko arduradunak.

Iparraldean dagoeneko hasiak dira haurrak eskolan eta hegoaldean, ia hiru hilabeteko oporren ondotik, aste honetan itzuliko dira. Eskolako itzu-

Ikastaroen inguruko informazioa kiroldengan eskuragarri

IRAILEAN AUKERA EZIN HOBEA:

- Irailean bazkide egiteko sarrera DOHAINIK IRAUNKORTASUNIK GABE.
- BAZKIDE izanda ikastaroetan sartzeko LEHENTASUNA eta prezioetan ABANTAILAK izanen dituzu.

Aninote
 Amazabal Kalea, 39 LEITZA
 T. 948 510 719

• NURSTUDIOPIILATES •

2024-2025
IKASTURTE HASIERA
IRAILAREN 9an

Rosa Seminario 7 • **DONEZTEBE** - NAFARROA
 M. 627 039 233 • @. nurfuejo@gmail.com

GILTXAURDI
 UDAL KIROL INSTALAZIOA

2024-2025
Urriaren 1ean hasiko da ikasturte berria!

Salako jardueretan izen emateko epea:
Irailaren 9an eta 10ean Baztanen erroldatuak.
Irailaren 11n eta 12an gainerakoak.

Igeriketako ikastaroetan izen emateko epea:
Irailaren 16an eta 17an Baztanen erroldatuak.
Irailaren 18an eta 19an gainerakoak.

*Izen emateak www.giltxaurdi.eus web orritik egin ditzazkezu.

Giltxaurdi 38, ELIZONDO | Tel. 948 45 23 01
giltxaurdi@baztan.eus | www.giltxaurdi.eus



Language school



**Esperientzia eta berrikuntza
elkarren eskutik**

Ingeles ikastaroak

Haurrentzat 6 urtetik aurrera:

+ Jolasean ikasteko

Nerabeentzat eta helduentzat

+ Eskolan laguntzeko

+ Ahozko hizkuntza, entzumena,

irakurmena eta idazmena lantzeko

+ B1 eta B2ren prestakuntzarako

**Leitzako errepidea, 90 Doneztebe
INFO + Tel. 615 70 68 02**

eta aldaketa onerako izan», azaldu du beratarak. Adinaren arabera, aldaketak diferente landu behar dira dio. «Haur eskolako haurren kasuan, garrantzitsua da lehenengo eskolaratze prozesua ongi zaintzea hori delako mundurako lehen saltoa. Inportantea da egokitzapen on eta kalitatezko bat egitea». Bere hitzetan, horrek baldintzatzen ahal du haurrak mundua ikusteko izanen duen manera.

Institutorako jauziari ere buruz mintzatu da Goia. Bere hitzetan, «garai kritikoa» izaten da hori ere. «Nerabeak urduri egoten dira, egoera emozional aski desorekatua dute... Lagunei buruz solastatzea garrantzitsua da, berdin arteko harremanek garrantzia handia hartzen dutelako etapa horretan», dio.

Eta unibertsitatera joateko pausuari ere garrantzia berezia eman dio psikologoak: «Jauzi delikatua da». Ordura arteko errealitatea erabat aldatzen da bere hitzetan: «18 urte arte jende ezagunarekin ibiltzen zara. Unibertsitatera joaten zarenean, normalean bakarrik joaten zara eta bide individuala izaten da. Salto handia izaten da eta gertatzen ahal diren beldur edo angustia uneetan laguntzea garrantzitsua da», gomen datu du.

Eskolaz kanpo ere ekintzak

Ohikoa izaten da haurrak ikastetxetik atera orduko eskolaz kanpoko ekintzetan murgilduta egotea. Arratsaldetako eguneroko ordutegi zurrin horren gibelean, aunitzetan, gurasoen «beldurak eta exigentziak» daudela



35 urte baino gehiagoko esperientziarekin

**Angie English Academy-n
2024/25 ikasturtea
prestatzen gabiltza!**

Ingelesko klaseak 8 urtetik aurrerako ikasleentzat eta eskolako ingelesarekin laguntza eskaintzen dugu.

*Oraindik ere plaza libreak
ditugu klase batzuetan, animatu
eta ez gelditu plazarik gabe!*

T. 626 908 076 · angiacademy@gmail.com
Elizagibela, 7 behea · 31740 DONEZTEBE



Pedro Axular karrika, 2 Elizondo

IRAKASLE NATIBOA

2024-2025 MATRIKULA IREKITA

**Lehen Hezkuntza, DBH,
Batxilergoa (B1, B2) eta Helduak**

Christina Irigoyen | 637 176 572 | josephinesenglish@gmail.com

erran.
eus

uste du: «Guraso edo heldu bezala beldurra izaten dugu haurra gibelean geldituko ote den, eta gauza denetara apuntatzen dugu. Kontuz ibili behar dugu, eta ikusi noraino paratzen ditugun haurren bizkar gure beldur eta segurtasun faltak», esplikatu du.

Eskolaz kanpoko ekintzak aukeratzean, gainera, ume bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu beharko lirakeela dio. «Batuetan errefortzuan zentratzen gara, eta zerbaitetan gaizki badabil apuntatu egiten dugu horretan eta ez ote genuke alderantzizko bidea egin beharko? Dantzan ona bada segitu dezala dantzan, horrek ere bertze alorak indartzen lagunduko diolako».

Aldi berean, denbora librearen garrantziaz ere aritu da, eta baita parkean zein familian pasatzen den denboraz ere. «Eskolak hartzen du egunaren zati haundi bat eta gainera arratsaldea eskolatik kanpoko bertze ekintzetan pasatzen baduzu, ea nolako denbora ematen duzun gero familiarekin...».

Egunerokoan izan daitezkeen estres momentuen aitzinean oroitarazi du presa gurasoena izaten dela, eta ez haurrena. Horren aitzinean, ahal den neurrian une horiei aurre hartzea eta gauzak lehenagotik antolatzea proposatu du. «Estres momentuak ailegatuko dira, baina hobe da momentu horiek ahalik eta gutxien izatea; ez da giro atsegina sortzen eta denok haserre bukatzen dugu».

Emozioekin konektatzeko beharra

Haurrez gain, ohikoa izaten da helduek ere udan izatea opor sasoa, eta beraz, aunitzentzat laneko lehenengo egunak izanen dira iraillekoak. Opor sasoa norbere emozioekin konektatzeko une aproposa izaten da, Goia- ren hitzetan, eta zerekin konektatzen

eta zerekin deskonektatzen dugun aztertzea garrantzitsua iruditzen zaio. Lanerako itzulera radar moduko bat izan daitekeela esplikatu du: «Bada jende bat bene-benetan ez duena lanera itzuli nahi eta hor hausnartu beharko lukete zergatik gertatzen zaien hori, zergatik ez duten lanera itzuli nahi. Eta kontrara ere bai, gogo aunitz baldin badute itzultzeko noraino arte betetzen ote dituen beren lanak».

Asmo berri aunitz

Oporretatik itzultzeaz gain, errutina berri bati ekiteko hilabetea izaten da iraila. Horren seinale da, aunitzek, euren bizitza aldatzeko hilabete gisa hartzen dutela. «Ongi dago gure ingurua begiratzea eta pausa bat hartzea norbere buruari galdetzeko zer egin nahi dugun ikasturtean», zehaztu du Goiak. Baina, errealistak izateko gomendioa egin du, eta agenda «kontuz» betetzeko. «Aunitzetan bete ezin ditugun helburuak paratzen dizkiogu geure buruari eta horrek frustrazioa sortzen digu».

Horren kontra, norbere buruarekin onberakizatea gomendatu du. «Geure buruari baimena eman behar diogu erortzeko. Bidea ibiliz egiten da, pausuz pausu eta poliki. Epe luzeko helburuak paratzen ditugu eta hasi orduko ito egiten gara eta sorgin gurpil toxikoetan erortzen gara», ohartarazi du.

«ESTRES MOMENTUAK GUTXITZEN SAIATU BEHAR DUGU»

GLOBAL
language school

Haur gazte eta helduentzat ingeles eta frantsez eskolak

Maila guztiak
Esperientzia handiko irakasleak

Orain helbide berrian: Iturlandeta 3

Iturlandeta, 3 • BERA • T. ☎ 625 683 529 • www.globalschool.es

ENGLISH ESKOLA ELISA HUARTE

Irakasle natiboa

Eskolako laguntza eta ingelesa hobetzeko ikastaroak.

B1 titulua

Mendinueta, 8 Elizondo - T. 657 707 230

MATEMATIKA - FISIKA - KIMIKA
MARRAZKETA TEKNIKOA

XULE AKADEMIA
LEHEN HEZKUNTZA
DBH
BATXILERGOA

Elixabete Lizarza Durruty

Instagram, WhatsApp, Facebook icons

Pedro Axular, 10. Elizondo
624 656 488
xuleakademia@gmail.com

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

MERTXE
KLASE PARTIKULARRAK

☑ **DBH**
Matematika, fisika eta Kimika, Ingelesa

☑ **LANBIDE HEZIKETA**
Kontabilitatea, salerosketa, diruzaintza

☎ 697 966 050 📍 ELIZONDO
✉ mertxebaylon@hotmail.com

sare *akademia*

DBH ETA BATXILERGOA
- MATEMATIKA
(DBH-n fisika eta kimika aukerarekin)

LEHEN HEZKUNTZA
- ERREFORTZU KLASEAK MATEMATIKETAN

Talde txikitan eta jarraipen pertsonalizatuarekin.
2024-2025ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.

INFORMAZIO GEHIAGO:
T. 615561458 (Nerea)

Emaila: akademiasare@gmail.com
Web orria: sites.google.com/view/sareakademia
Doneztebe



Uztailaren 20an ehun lagunetik goiti bildu ziren Legasan egindako elkarretaratzean.

Gasolindegiaren obra lizentzia urte baterako geldiarazia

Legasa sarreran egin nahi duten kamioiendako gasolindegi handiaren proiektua ez dute begi onez hartu herritarrek

TTIPI-TTAPA

Uda mugitua izan da. Legasa sarreran kamioiendako gasolindegi handi bat eraikitzeko asmoak hautsak harrotu ditu. Herritarrek ez dute begi onez ikusi, eta hala adierazi dute hasieratik. Bertzeak bertze, bilkurak, sinadura bilketa eta elkarretaratzea egin dituzte uda honetan.

2021etik bueltaka

Gasolindegirik Ez herri mugimendua ere sortu dute eta taldeko kideek kontatu duteenez, «2021ean paratu zuen enpresak proiektua martxan.

Udalaren ezezkoa ikusita, enpresak, Bertizaranako Udalarekin zenbait tramite egin ondotik, Nafarroako Gobernura jo zuen zuzenean. Orain arte Nafarroako Gobernuak paratutako baldintzak betez joan da eta, gaur egun, makroproiektua egiteko baldintzak betetzen ditu». Udalak, ordea, badu baldintza horiek aldatzeko eskumena eta horixe eskatu izan diote herritarrek; «proiektua alde batera uzteko bere esku dagoen guziaz egiteko».

Bertizaranako Udal Plan Orokorren arabera, gaso-

lindegia kokatu nahi den lurzoria lurzoru urbanizaezinean dago, zehazki, ustiapen naturalerako gorde beharreko lurzoruaren kategorian. Baina Udal Plan Orokorreko plano batean eremu hori «jarduera ekonomikorako aukerako eremua» dela ageri da.

Hori ikusita, udalak Udal Plan Orokorren hirigintzako araudia aldatzea erabaki du, hau da, lurraren kalifikazioa aldatzea, «lurzoruaren baldintzak eta ezaugarriak kontuan hartuta, bere balioak, izaera eta xedea bermatzeko, babesteko eta zaintzeko». Hala, urtebeterako geldiarazi du gasolindegia egiteko obra lizentzia. Zehazki, uztailaren 31ko osoko bilkuran hartu

HERRITARREK 'GASOLINDEGIRIK EZ' PLATAFORMA SORTU DUTE

zuen erabakia. Horrez gain, udalak abokatua kontratatu du eta Nafarroako Gobernuaren erabakiaren kontra helegitea aurkeztuko duela jakinarazi du plataformak, «abokatuak uste baitu arrazoizko zalantzak daudela Bertizaranako arauen inguruan egin duen interpretazioari buruz».

Herritarrek kezkatuak

Herritarrek argi utzi dute «eskualdean ez dugula horrelako proiekturik nahi». Beraien hitzetan, «inguruan gasolindegi aunitz daudenez, ez dago inolako beharrik. Sunbilla eta Oronoz artean sei gasolindegia daude». Horrez gain, «duela urte batzuk N-121-A errepidea egiteko hainbat lur desjabetu zituzten, gure errepideetatik trafiko astuna kentzeko helburuarekin. Orain, proiektu honekin, gibelera bueltatuko ginatke. Ez hori bakarrik, izan ere, segur aski Belaten egiten ari diren obren eraginez, kamioien kopurua nabarmen gehituko da N-1210 errepidean». Horrek «eragin zuzena» izanen duela diote, «arriku egoerak areagotuz, eta ez bakarrik Legasako sarreran, baita Narbarteko eta Doneztebeko sarreretan ere». Plataformako kideen irudiko, «landa eremuetan ingurunea da dugun bereizgarri handienetariko bat. Gasolindegiaren proiektuak soinuak, zaborrak, zikinkeriak, usainak, arriskuak... ekarriko lizkiguke, ingurua kaltetuz».

Santa Leokadiako bestak asteburu honetan ospatuko dituzte Legasan

TTIPI-TTAPA

Ez da aste bat ere pasatu Legasako bestak akitu zirenetik, baina herritarrek berriz ere prest dira besta giroan segitzeko. Asteburu honetan, Santa Leokadiako ermita inguruan egin dute hitzordua. Larunbatean, hilaren 7an, 20:00etan

txupinazoa botako dute eta ondotik ezkilak joko dituzte. 21:00etan zopak izanen dira. Biharamunean, irailaren 8an, 12:00etan meza izanen dute ermitan eta 13:00etan bazkaria. Arratsaldean, 17:00etatik 21:00etara, musika izanen dute Jalisko eta Jontxu DJekin.



Ilgandean Santa Leokadia ermitaren inguruan bazkalduko dute. UTZITAKO ARGAZKIA



'Erasorik ez. Erantzunik gabe!' lelopean pankarta plazaratu zuten.

Bestetan izandako eraso matxista salatu dute

Bestetan egunero elkarretaratzeak egin zituzten eta horrez gain, abuztuaren 26an berriz ere plazara atera ziren

TTIPI-TTAPA

Herritarrek gogotik gaitzetsi dute bestetan izandako sexu erasoak, bai herritarrek, baita Narbarteko kontzejuak eta Mallerrekako eta Bertizaranako mugimendu feministak ere. Abuztuaren 22tik 23rako arratsuan gertatu zen, eta bestetan egunero elkarretaratzeak egin zituzten salatzeko. Mugimendu feministak deituta, abuztuaren 26an, bertze elkarretaratze bat ere egin zuten, jendetsua.

Gisa berean, mugimendu feministak bere «babes eta elkartasun osoa» adierazi zion erasoak jasan zuenari, eta honek gaineratu zuen: «Ez da deus berria emakumeok jasaten dugun biolentzia, eta hori Narbarteko bestetan gertatutako azken erasoak argi utzi digu. Badakigu eskualdeko besta ereduak ez dela batere segurua emakumeondako». Erasoak ezin dela modu isolatuan ulertu ere adierazi zuen: «Erasoak, begietara ikusezina den sistema oso baten adierazpen bortitzenak dira. Guztion ardura eta betebeharra da bertze gizarte eredu bat eraikitzea, jarrera eta eraso matxistak gaitzetsi eta erantzun-



Jende aunitz bildu zen abuztuaren 26an.

tea. Erasotzailea existitzen bada, hau babesten duten konplizeak direlako pasatzen da».

Kontzejuak ere bere «gaitzespen sendo eta irmoa» agertu zuen gertatutakoaren harira, eta «biktimari hurbiltasuna eta elkartasuna» adierazi nahi izan zion, «baita haren senide eta hurbilekoei ere». Berdintasunaren aldeko aldarria ere egin zuen, «emakumeen eta gizonen berdintasunaren errespetua» azpimarratuz, eta «pertsonaren duintasuna, sexu askatasuna eta osotasun fisikoa, guztiak eskubide bortxaezinak» direla erranez. «Eskubide horien aurkako jokabideek ez dute lekurik gure gizartean eta Narbarteko kontzejuak gaitzetsi egiten ditu».



MAITE BERTIZ

Besta nahasiak Narbarten

Lehenbiziko egunean salatutako sexu erasoak zela eta, Narbarteko bestek ez zuten ohiko giroa izan; nahasiagoak izan ziren, narbartearrak gertakariarekin hunkituak gelditu baitziren. Halere, eguneroko ekintzak egin zituzten, eta adin aunitzetako jendeak parte hartu zuen bestetan.



MAITE BERTIZ

Hutsik egin gabe, frontenis txapelketa

Uztailaren 28an jokatu zituzten Narbarteko frontenis txapelketako finalak. Ttikietan, Urkok eta Ilargik 22-15 irabazi zieten Iñigori eta Iraiari; gaztetxoetan, Aitor eta Olaiak 22-18 irabazi zieten Oihani eta Argitxuri eta seniorretan, Mattin eta Youseff 30-24 izan ziren irabazle Estebanen eta Jonen kontra.



Hitzarmena sinatu zuten ordezkariak Etxalarko aduana zaharrean. UTZITAKOIA

Jasangarritasun Turistikoko Plana abian da

Uztailaren 23an hitzartutako plan honek 4.740.000 euroko ekarpena egingen dio turismo sektoreari Baztan-Bidasoaldean

TTIPI-TTAPA

Baztan Bidasoko Jasangarritasun Turistikoko Planerako hitzarmena sinatu zuten uztail hondarrean Etxalarren. Planak 4.740.000 euroko ekarpena egingen dio turismo sektoreari eta Nafarroako Turismo Zuzendaritza Nagusiak eta Cederna Garalurrek sinatu dute.

Plana Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Next Generation funts europarrekin finantzatu da. Baztan-Bidasoan turismo aktiboa eta iraunkorra bultzatzen du, eta, bereziki, mugikortasuna, Bidasoko bide berdean eta bizikletentzako pistetan egingo den inbertsioa dela eta.

Ekitaldian parte hartu zuten Kultura, Kirol eta Turismo kontseilari Rebeca Esnaolak, Cederna Garalur elkarteak lehendakari Arantxa Arregik, Sunbillako alkate Amets Indak eta Etxalarko alkate Xabier Etxartek. Ana Rivas turismoko zuzendari nagusia, lurraldeko udaletako ordezkariak, turismo sektoreko agenteak eta Cederna Garalur ere bertan izan ziren.

Bere hitzaldian, Esnaola kontseilariak eskualdeko sektore turistikoa erantzuten duen «errotzura eta auzura» azpimarratu zituen, baita horrek enpleguan, garapen ekonomikoan eta zerbitzuen hobekuntzan dituen ondorio positiboak ere. Arantxa Arregik, bere aldetik, Plan honek tokiko errealitatea eta ingurumena errespetatzen dituela azpimarratu zuen, baita lurraldeko kultura eta natur ondarea ere.

Ekitaldian planaren barrenean gauzatuko diren bi proiektu bisitatu zituzten. Alde batetik Etxalarren aduanaren eraikin zaharra bisitatu zuten. Bertan, ingurumena eta hegazti migratzaileak interpretatzeko zentro bat sortuko da.

Lekarozen, bertalde, Bidasoko bide berdearen luzapen berriko zati bat bisitatu zuten, Doneztebe eta Elizondo lotuko dituen. Fernando Anbustegi Baztango alkateak bide berri honek Baztan eta Malerrekako biztanleentzat izanen duen garrantzia azpimarratu zuen, bereziki, bide berdeak lurraldea egituratzen duelako.



Laura Igantzi eta Ana Olló hitzarmena sinatzerakoan. NAFARROAKO GOBERNUA

Euskal Artzainak Ameriketara hitzarmena Nafarroako Gobernuarekin

TTIPI-TTAPA

Ameriketara artzain joan zirenen errealitatea Nafarroa osoan zabaltzeko hitzarmena sinatu dute Nafarroako Gobernuak eta Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak. Laura Igantzi, Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak presidentea eta Ana Olló, Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakaria eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria izan dira ekitaldian. 15.000 euroko ekarpena egingen du Gobernuak, Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak «bere jatorrizko herrietan hainbat kultur jarduerak antolatzea bultzatzea, bere garaian Ameriketara emigratu zuten milaka nafarren (eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Iparraldekoen) historia eta bizipena zabaltzeko».

Proiektu ibiltari batekin herri horietatik ibilbide bat diseinatzea da proposamena. Kalifornia, Nevada, Idaho edo Arizona bezalako lekuetara lan bila eta bizimodu hobea baten bila joan ziren pertsona gehienak Bortzirietatik, Baztandik, Malerrekatik, Erroibarretik, Aezkoatik, Artze Ibarretik edo Nafarroa Beheretik joan ziren, baita Lizarra aldeko bertze landa eremu batzuetatik eta abeltzaintzako tradizioa duten bertze herri batzuetatik ere.

20.000 nafar AEBra

Artzainek Nafarroatik AEBra egiten duten migrazioa fenomeno historikoa da, eta Bigarren Mundu Gerraren ondotik areagotu egin zen; izan ere, Estatu Batuek garapen ekonomiko handiko garaia bizi zuten, eta, aldi berean, nekazaritzako langileak hirietara lekualdatzen ari ziren, eta horrek produktuen eskaria handitzen zuen, bertzeak bertze, ardi sektorearena.

Zaila da hainbat helmugatar eta garai ezberdinetan emigratu zuten pertsonen kopurua zenbatzea, baina Nafarroako Unibertsitate Publikoak egindako ikerketa baten arabera, 20.000 nafar baino gehiagok zeharkatu zuten Ozeanoa XIX. eta XX. mendeetan, horietako batzuk AEBra, eta, horien barruan, artzaintza lan egiteko ehuneko bat ere bai, eta hori da Nafarroako Gobernuaren helburu nagusia lan honekin.

Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak AEBra emigratu zuten artzainek egindako lana aitortzea, haien historia zabaltzeko jarduerak antolatzea eta artzainen bizitzari buruzko azterketak, ikerketak eta dokumentazioa egitea ditu helburu. Hori dela eta, migrazio fenomenoak gertatu zen jatorrizko herriak zeharkatu dituen ibilbide bat egiteko asmoa du, Nafarroan hasiz.

Noka praktikatzeko saioak antolatu dituzte

Irailaren 19an hasi eta abenduaren 12ra arte, ostegunetan elkartuko dira, 18:30etik 20:00etara udaletxeko ganbaran

TTIPI-TTAPA

Mingaina astinduz, Goizuetako nokari bultzada ematea da asmoa: «hitz eginez ikastea». Denera, zazpi saio antolatu dituzte eta irailaren 19an hasi eta abenduaren 12ra arte, ostegunero bilduko dira. Ordu eta erdiko saioak izanen dira eta udaletxeko ganbaran, 18:30etik 20:00etara elkartuko dira.

Ekimena ez da hutsetik sortu. Goizuetako noka berreskuratzeko, Oihana Lujanbio herritarra lantzen ari den ikerketa proiektuaren parte da. Lujanbiok azaldu ditu ekimenaren nondik norakoak: «noka praktikatzeko saioak izanen dira, abiapuntu teoriko batzuk landuta, baina praktikara bideratuta». Parte hartzeko aurretik noka jakitea ez dela beharrezkoa argitu du:

«noka ikasteko, hitz egiteko eta hausnartzeko gogoia izatea behar da bakarrik. Bereziki emakumeak ditut nik burutan, beraiekin egin nahi dut lan-keta, baina gizona ere etortzen badira ere ongietorriak izanen dira. Beraiek noka aritzea ere behar dugulako, guk noka aritu ahal izateko. Ikastaroa noka lantzekoa izanen da, ordea, ez toka».

Praktikaz gain, hausnartarako bidea ere ireki nahi dute: «zergatik galdu da emakumea? zer gertatu da horretarako?» galderei erantzuten saiatuko dira feminismotik.

Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute Euskara Zerbitzuan: 948 51 08 14 telefonora deitu edo laga@iparmank.eusera edo 660 99 08 36 telefonora mezu bat idatzita.

Arainburu Mendi Taldeak irteera antolatu du irailaren 28an

TTIPI-TTAPA

Udako atsedenaldiaren ondotik, ikasturteko lehenbiziko irteera antolatu du Arainburu Mendi Taldeak. Irailaren 28an, Erroiarrri eta Onzubita lotuz, bost ordu eta erdi inguruko itzulia osatzeko proposamena egin dute. Herriko plazan, 08:00etan egin dute hitzordua eta jakinarazi dute mendiko ibilgailuak beharko dituztela Unalbidera joateko. Handik Artikutzara joan eta Erroiarrri igoko dira. Trenbidean barna, Onzubitara joan eta irteerako puntura, Unalbidera



Herri inguruan osatuko dute itzulia.

itzuliz osatuko dute mendi buelta. 13:30 alderako itzulia osatzea aurreikusten dute. Bidean indarrak hartzeko ha maiketako norberak eraman beharko du.



FELIX LOIARTE

Herri osoa festan

Zuria, berdea eta gorria izan ziren nagusi herrian abuztu erdialdean. Festa giroa dotorean, haur, gazte zein helduek topatu zuten bere neurria egindako ekitaldia. Umeen Eguna, Gazte Eguna, Sagardo Eguna, Peñen Eguna... argazkietako irribarreak ikusita, denek izan zuten non gozatua.

Eskolarteko topaketak irailaren 28an egingen dituzte herrian

TTIPI-TTAPA

Ikasturte hasiera indartsu hasi dute Goizuetako eskolako haur, guraso eta irakasleek; irailaren 28an herrian ospatuko dituzten eskolarteko topaketak antolatzen ari dira burubelarri. Aresoarren eskutik jaso zuten pasa den urtean lekukoa

eta Areso, Arano, Goizuet, Ezkurra eta Leitzako haur, gazte eta helduek elkartu eta egunpasa polit bat osatzea izango da beste behin ere asmoa. Eguneko azken xehetasunak lotzen ari dira eta hurrengo aldizkarian izango duzue egitarauaren berri.

'Herri libre bat' elkartzeko deia irailaren 21ean

Euskaraz, kirolean, plazan biltzera animatuz hitzordua antolatu dute hainbat eragilek

TTIPI-TTAPA

Irailaren 21ean, hizkuntza, lurraldetasuna eta kirola lotuz, egunpasa ederra egiteko aukera izanen da Leitza. *Herri libre bat* lelopean, «euskaraz, kirolean, plazan» elkartzeko deia egin dute Euskal Herrian Euskaraz elkartzeko, 'Gu ere bai' ekimeneko eta Gure Esku Dagoko kideek, baita Leitza Udalak eta Tximutxe Euskara Elkarteak ere. Euskal Herri mailan antolatzen duten gisa honetako lehenbiziko ekimena da eta azaldu dute ez dela kasualitatea aukeratutako herria Leitza izatea: «landu nahi diren arlo horietan guztietan eman korra izan den herria delako».

Herritarrak protagonistak

Egun osoko egitaraua prestatu dute eta herritarrak izanen dira protagonista nagusiak. Ekital-

diekin hasteko, goizean, herriko kirol taldeek erakustaldiak eskainiko dituzte: karatea, gimnasia artistikoa, emakume zein gizonezkoen herri kirol saioak, txintxurrin lehiaketa... denetarik ikusteko aukera izanen dute plazara hurbiltzen direnek.

Eguerdian, omenaldietarako tartea hartuko dute eta euskarra, kirola eta lurraldetasuna landu dituzten pertsonen, elkartei edo kolektiboei egindako lana aitortuko diete. Trikipoteoa egingen dute gero eta segidan, bazkaltzeko bilduko dira. Kanturik ere ez da faltako bazkalondoa. Arratsaldeko pilota jaialdiarekin bukatuko dituzte ekitaldiak; Ados elkarte eta Leitza Aurrera pilota elkartzeko kideak ariko dira kantxan. Hurrengo aldizkarian izanen duzue egitarau zehatzaren berri.



PABLO FEO, GERENO ETA LEITZAKO UDALA

Porrotxek kontzertu solidarioa eskainiko du Herri Aretoan irailaren 18an

TTIPI-TTAPA

Bularreko minbizi metastasikoa ikertzeko dirua lortu eta gaixotasuna gizarteratzeko, hainbat ekimen antolatu dituzte datozen asteetan Leitza. Porrotxpailazoak ere, bere aletxo jarri nahi izan du eta kontzertu solidarioa eskainiko du irailaren 18an Leitza Herri Aretoan. Emanaldia 18:00etan hasiko da eta sarrerak bost eurotan salduko dituzte Maimur, Peritza eta Erosleko harategian.

Urriaren 18an, berriz, Bularretik ehundutako aitortzak dokumentala estreinatuko dute.



Sarrerak bost eurotan salgai. GOIENA

Amaia Iparragirre leitzarrak zuzendutako lana da eta bularreko minbizia izan dutenen edo dutenen testigantzak jaso ditu. Biharamunean, festa egun solidarioa antolatu dute.

Zazpi egun eta hala ere aski ez

Aurreko asteburuan motorrak berotu eta abuztuaren 10ean Feliziana eta Mikaela Zabaletak botatako suziarekin lehertu zen pesta. Dantza, musika, otorduak, kirola... denetarik izan zen abuztuaren 15era arte. Jendetza ibili zen kalean azken egunera arte. Pestarako zazpi egun eta zenbaitek oraindik gehiago nahi...

Anarik kontzertua eskainiko du irailaren 8an

Anariren musikaz gozatzeko aukera izanen da irailaren 8an, igandean, 20:00etan herriko plazan. Giza Zarata izeneko lana aurkeztuko du, bere ibilbideko zazpigarrena. Kultur 2024 programaren baitan antolatu duten kontzertua eta sarrera dohainik izanen da.

Mendibil Mendi Taldearen irteera Ozako oihanera

Proposamen berri batekin heldu dira Aurrera Mendibil Mendi Taldeko kideak. Ozako oihanera ateraldi bat antolatu dute irailaren 28an eta 29an, handik Peña Forcara ibilaldi bat egiteko. Lotarako tokia erreserbatu behar denez, izena emateko azken eguna irailaren 3an izan zen.



Plazaolako eraikina bisitatu zuten. NAFARROAKO GOBERNUA

Beste urrats bat Plazaolako geltokia egokitze bidean

Nafarroako Gobernuak eta Cederna Garalur Elkartek hitzarmena sinatu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak eta Cederna Garalur Elkartek hitzarmena sinatu zuten duela aste batzuk, turismora bideratutako eskualdeko hainbat proiektuekin aurrera egiteko. Tartean dago Leitzako Plazaolako geltokian aterpea eta ostatua egiteko proiektua eta bertatik bertara ezagutzeko, Nafarroako Gobernuo kultura kontseilariak, turismo arduradunak eta eskualdeko zenbait udal ordezkariak Plazaolako eraikina bisitatu zuten. 852.244 euroko aurrekontua izanen dute lanek eta Cederna Garalurren bi-

dez, Next Generation funtsekin finantzatu dute.

2026ko udaberrirako

2026ko udaberrirako lanak bukatuta izatea aurreikusten dute. Momentuz, birgaitze eta obra zuzendaritza proiektuaren erredakzioa lizitatu dute 66.115,70 euroko aurrekontuarekin. Cederna Garalurrek eta Nafarroako Gobernuak sinatu duten hitzarmena beste urrats bat dela uste du Leitzako Udalak proiektuarekin aurrera egiteko. Beheko solairuan ostatua eta goikoan lotarako tokia egokitzea aurreikusten dute.

Irailaren 8an itxiko dituzte udako igerilekuak

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 15ean eman zieten hasiera Leitzako igerilekuko denboraldiari eta irailaren 8an itxiko dituzte ateak. Eguraldia lagun izan denetan, igerilekua jendez gainezka egon da aurtengoan ere: goiz eta arratsalde, asko izan dira igerileku

handian edo txikian igerian ibili edo belazean eguzki goxotan egotera joan direnak. Ikastaroak ere eskaini dituzte eta puzgarriak ere jarri dituzte haurrentzat. Anikoteko arduradunek azaldu dutenez, 500 bonu baino gehiago saldu dituzte denboraldian.

Ate irekiak antolatu dituzte irailaren 12an Mimukai zentroan

TTIPI-TTAPA

Mimukai Zentroa ezagutzen ez dutenek irailaren 12an izanen dute aukera. Ate irekiak egingen dituzte 10:00etan eta 18:00etan. Cederna Garalur elkarteak teknikariekin elkarlanean gongratu dute gonbidapena: «animatu, etorri eta ezagutu itzazu espazio honek eskaintzen dituen aukeraguztiak». Coworking gunea, alokatzeko bulego itxiak, bilera gelak... daude bertan eta erabiltzaileen beharretara egokitzen dira. Gainera, zentroa Leitzan egonagatik, eskualde mailako proiektua dela azpimarratu dute: «Men-



Goiz eta arratsaldean egingen dute.

dialdeko hamar udalek elkarlanean ondu dutena». Informazio gehiago eskuratu nahi duenak 674 02 48 23 telefonoan edo mimukai@cederna.es helbidera idatzita eskura dezake.

Leitzulia BTT probaren seigarren edizioa irailaren 28an

TTIPI-TTAPA

Aurrera Mendibil taldeak Leitzulia BTT probaren seigarren edizioa antolatu du. Irailaren 28an izanen da eta izen-emateko epea irekita dago kirolprobak.com-en irailaren 27ra arte. Parte hartzaile bakoitzak 25 euro ordaindu beharko ditu. 42 kilometroko luzera eta 1.400 metroko desnibela duen ibilbidea osatu beharko dute. Leitzako plazatik abiatuta, herriko kaleetan barna joanen dira txirrindulariak Plazaolako bide berdera iristeko. Handik Leitzalarre eta Petriketako




267 txirrindularik osatu zuten itzulia iaz.

gainera igoko dira, pedalei gogor eraginez Usategieta, Idiazabal, Kornieta eta Uitziko eta Guratzeko gainak atzean utzita, ibilbidea Leitzako plazan bukatuko dute.

Erakusketa berezia ikusgai irailaren 30era arte

Koldobika Jauregi artistaren omenez, Artea Basoan erakusketa jarri dute ikusgai irailaren 30era arte Urtoko Zubietan eta Leitzaranen. Azken Muga ekimenaren baitan antolatu duten erakusketa berezia da.



AZKEN MUGA

Pilates ikastaroa eskainiko dute astean bitan

Astelehen eta asteazkenetan izango dira klaseak 18:00etatik 19:00etara

ENERITZ IRAOLA

Kirol Mankomunitateak Pilates ikastaroa eskainiko du irailaren 30etik aurrera. Klaseak astelehen eta asteazkenetan izango dira, 18:00etatik 19:00etara. Interesa dutenek datozen egunetan eman behariko dute izena. Irailaren 4an Kirol Mankomunitateko teknikaria udaletxean egotekoa zen aurrez aurreko izen-ematekin laguntzeko. Hortik aurrera, kirolmankomunitatea@gmail.com edo 649 20 53 10 telefonora deitu behariko dute izena eman nahi dutenek.

Dantza ikastaroa

Haur eta gaztetxoei zuzendutako eskaintzarik ez du egin momentuz Kirol Mankomunitateak, baina guraso elkarteak azken urteetan bezala, dantza ikastaroa antolatzeko asmoa du. Villabonako Oinkari Dantza taldekoak izango dira aurtenera ere ikastaroa emateaz arduratuko direnak eta hiru urtetik hamaseira artekoek izango dute dantzan ikasteko aukera. Festetan egin zuten emanaldia ikusita, gauza jakina da, herrian dantzak ba-duela etorkizuna.



E.IRAOLA

Bost egun gozamenerako

Abuztuaren 14an hasi ziren festak Antonio Alustizak botatako txupinazoarekin eta zapi urdinak lepoan lotuta, bost egunez giro ederrean ibili ziren herritarrak festan. Kantu, dantza, kirol eta kolorerik ez zen falta izan eta karpa luzean aterpea bilatuta, 200 lagunengatik bueltan elkartu ziren egindako afari eta bazkarietan



MUS 4REYES

Barandarain eta Zabaleta musean maisu

Muslarien artean bikote ezaguna osatzen dute Jose Ignacio Barandarain aresoarrak eta Jose Manuel Zabaleta leizarrak. Bada, txapel bat gehiago eskuratu dute udan, lau erregetako modalitatean jokaturako III. Mus Txapelketa Nazionala irabazita eta azaroan jokaturako den Master Nazionalerako sailkatu dira.

22. txapela Antonio Alustizarentzat

Beste behin ere erakustaldia eskaini eta Nafarroako Artzain txakur lehiaketa irabazi zuen Uharteko Arakilen abuztuaren 25ean. Hogeita bigarren txapela du, lehenbizikoa Bat txakurarekin. Irailaren 14an Euskal Herriko txapelketan parte hartuko du. Zorionak eta zorte on!



UHARTE ARAKILGO ARTZAIN EGUNA

Basaburuaren Eguna irailaren 7an Berroetan

Mendi itzulia, mus txapelketa, jostetak, musika, bazkaria... egun osoko egitaraua prestatu dute Almandoz, Aniz, Berroeta eta Zigako herritarrendako



2022an Anizen ospatu zuten Basaburuaren Eguna. UTZITAKOIA

MAITANE MARITORENA

2015ean hasi ginen Baztango Basaburuan gure kuartelaren besta ospatzen. Aurten, bigarren aldiz ospatuko da Berroetan, irailaren 7an. Bi urteetarik behin egin ohi dugu besta, eta aldiro herriz aldatzen da. 2015ean Berroetan, 2017an Almandozen, 2019an Zigako, eta orain dela bi urte Anizen ospatu ditugu orain artekoak. Egitaraua bete bete izanen dugu irailaren 7an. Goizeko zortzietan izanen den mendi itzuliarekin hasiko dugue eguna. Ondotik, 11:00etan mus txapelketa eta haurrendako jostetak izanen dira eta 12:30ean Baztan Kantuz eginen dute. 14:30ean bazkaria izanen dute eta bazkalondoan Andoni Mitxelenarekin dantzaldia. Afalondoan, 21:30ean, DJ J&J ariko dira giroa alaitzen. Bazkariko txartelak dagoeneko salgai daude Basaburuako herri guztietan, 35 euroan. Heldu den astelehena, abuztuaren 26a izanen da txartelak erosteko hondar eguna. Hortik goiti erosten duenak 5 euro gehiago ordaindu beharko ditu.

Baztan Kantuz Basaburuaren Egunean

Baztango Kultura Zerbitzuak Baztan Kantuz ekimena berrartuko du irailean, eta Berroetaren txanda izanen da. Normalean igandearekin egiten badute ere, Basaburuaren Egunarekin batera egiteko irailaren 7an izanen da, 12:30ean plazan.

JOVEN in
CAJA RURAL DE NAVARRA

JOVEN IN ALA JOVEN ØUT ZARA?

Komisiorik gabe
zure erosketak
ordaintzean dibisak
aldatzeagatik

Ez dugu dibisak aldatzeagatik komisiorik aplikatzen zure erosketak atzerrian Euro eremutik kanpo ordaintzean zure Joven In txartelarekin.



Nakar taldeak kontzertua emanen du 20an Iruritan. ARRIGURI / @LANDA__A

Ekitaldiz gainezka dator iraileko agenda kulturala

Kontzertuak, feriak, bakarriketak, erakusketak, solasaldiak... zer ikusi eta egin izanen da hilabete honetan

TTIPI-TTAPA

Ikasturtea gogoz berrartzeko, ekitaldi ugari izanen ditugu irailean Baztanen.

Margolanak ikusgai Elizondon

Tomas Sobrino artistaren ikasleek haien lanak paratu dituzte ikusgai Arizkuneko lehenbiziko solairuan. Irailaren 8ra

arte izanen dira bertan, lan egunetan 18:00etatik 20:00etara eta asteburuan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

Merkatuak larunbatero

Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak elkarteek azokak egingen dituzte hilaren

7an, 14an, 21ean eta 28an, Elizondoko plazan 10:00etatik 14:00etara.

Kontzertu berezia Berroetan

Orbit Musicians taldeak Berroetan akituko du bere mundu bira eta azken kontzerturako gonbidatu bereziak izanen dituzte; Gandeia taldea, Garxito anaiak eta Jackie Wackie. Irailaren 12an 19:00etan izanen da kontzertua, musutruk.

Nakar taldea Iruritan

Nakar musika taldeak kontzertua emanen du irailaren 20an 19:00etan Gizarte Bilgunean. Postpunk, musika elektronikoa, hyperpop eta bertze hainbat estilo lantzen ditu talde donostiarrak.

Sormen tailerrak Legorekin

5-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerra izanen da irailaren 21ean Arizkuneean, Discover Bricks-en eskutik. 8-12 laguneko bi taldeetan egingen dute, 10:00etatik 11:30era eta 12:00etatik 13:30era. Matrikula epea zabalik da, plaza kopuruak bete arte, info@discoverbricks.es helbidean edo 636 479 965 eta 636 450 745 zenbakietan.

Behi piriniotarrak Elizondon

Urteroko Behi Azienda Piriniotarraren lehiaketa-enkante nazionala egingen dute hilaren 21ean eta 22an Merkaturako plazan. Aurtengoa XXXV. edizioa izanen da, eta asteburu osoko egitaraua izanen du.

Helduei zuzendutako antzerkia

La Piel Producciones taldeak *Askatu: armairuko gogoetak* antzezlanaren aurkeztuko du irailaren 29an Iruritan Gizarte Bilgunean 18:00etan. Askatasun sexuala eta identitatea lantzen ditu Jaione Urtasun eta Txetxu Collado protagonista dituen ikuskizunak.

Donejakue Bideko solasaldiak

Baztango Donejakuaren Lagunen elkarteak hainbat solasaldi antolatu ditu Arizkuneean, hilaren 9tik 12ra, 19:00etan:

- **Irailak 9, astelehena:** 'Erromesaldiko aldaketak. Estatistikak aletzen' solasaldia, Carlos Mencosen eskutik.

- **Irailak 10, asteartea:** 'Donejakue Bidearen eragin ekonomikoa Nafarroan' solasaldia, Fernando San Miguelen eskutik.

- **Irailak 11, asteazkena:** 'Podensis Bidea, erromesaldia Le Puy-en-Velaytik Donibane Garaziraino' solasaldia, Ruben Garciarekin.

- **Irailak 12, ortzeguna:** 'Arte garaikidea Donejakue Bidean' solasaldia, Pedro Luis Lozanorekin.

Mintzaldi guztiak gaztelaniaz izanen dira.

21EAN ETA 22AN EGINEN DUTE BEHI PIRINIOTARRAREN FERIA ELIZONDON

Ornozko medikuaren etxea enkantean atera du udalak

TTIPI-TTAPA

Garai batean Ornozko medikuaren etxea izan zena enkantean atera du udalak. Eraikina 115.878,59 eurotan lizitatu du eta irailaren 11ra arte aurkezten ahalko dira eskaintzak Baztango Udalaren erregistroan.

Eraikinak hiru solairu ditu denetara. Beheitiko solairua garai batean medikuaren kontsultategia izan zen, eta lehenbiziko eta bigarren solairuak, berriz, etxebizitzak izan ziren. Hala ere, eraikinak urte aunitz daramatza erabili gabe.



115.878 eurotan lizitatu dute eraikina. BAZTANGO UDALA

Baztandarren Biltzarra euripean baina giro ederrean

Orgen lehiaketan Gartzain nagusitu zitzaion Zigari puntu bakarrarengatik, eta Iruritik osatu zuen podiuma

TTIPI-TTAPA

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, ederki iragan zen Baztandarren Biltzarra. Goizean Elizondoko Eskola Publikoak ireki zuen desfilea, zehazki, Maite Goñi, Nekane Mitxelena, Andrea Rodriguez, Itziar Bidegain, Lourdes Arraztoa, Zuriñe Zubillaga, Laura Carazo eta Jaione Larre izan ziren bandera eraman zutenak. Orgen artean, Aroztegiko auzipetuei elkartasuna erakusteko mezuak nagusitu ziren.

Lehiaketari dagokionez, aurren ere Gartzainek lortu zuen

lehen saria, Ameriketara joan behar izan zuten artzainak gogoratuz. Puntu bakarreko aldearekin, bigarren izan zen Ziga, garai batean larruzko oinetakoak nola egiten zituzten erakusten zuen orgarekin. Irurita hirugarren izan zen, Tellerian teilak nola egiten zituzten erakusten zuen orgarekin.

Bazkarirako 1.536 txartelak saldu ziren eta merkatuko plazan egin zuten bazkaria. Sari banaketaren ondoren, bestak segitu zuen Gabezin, Elektrotxorongo, Trikidantz eta DJ AxolotSelektahren musikarekin.



Gartzain izan zen irabazle, Ziga bigarren eta Irurita hirugarrena. ONDIKOL

Udazkeneko ikastaroetan izena emateko epea irailaren 9tik 13ra

TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Zerbitzuak hainbat tailer antolatu ditu Arizkunenean.

Urriaren 4tik aitzinera gaita ikastaroa izanen da, joan den ikasturtean aritu zirenei zuzendua, Mikel Ortogaren eskutik. 5-10 laguneko taldea egiten dute eta 20 orduko ikastaroa izanen da, ortziraletan 17:00etatik 18:00etara. Baztanen erroldatuek 60 euro ordaindu beharko dituzte, erroldatu gabeek 80.

Horrez gain, idazketa tailerra izanen da Jon Alonsorekin urriaren 30ean eta azaroaren 6an, 13an, 20an eta 27an. 6-12 pertsonako taldea egiten dute eta 18:00etatik 20:00etara bilduko dira. Erroldatuek 30 euro ordaindu beharko dituzte, erroldatu gabeek 40.

Azaroaren 2an, 9an, 16an eta 23an plastika lantegia egiten

dute La chincheta Brunako ki-deekin, 17:30etik 19:00etara. 5-11 urteko haurrei zuzendua izanen da eta prezioa partaide kopuruaren arabera izanen da.

Gaita ikasteko bigarren aukera azaroaren 9an abiatuko da, 20 orduko ikastaroan, Tomas Diaz Peñalvaren eskutik. Larunbatetan 09:00etatik 10:00etara bilduko dira, 5-10 laguneko taldean. Egun eta ordu berean atabala ikasteko aukera ere izanen da, bertze 5-10 laguneko taldean, Shanti Diaz Carmoñarekin. Bi ikastaroetan erroldatuek 60 euro ordaindu beharko dituzte, erroldatu gabeek 80.

Ikastaroen izen ematea irailaren 9tik 13ra egonen da zabalik, Arizkunenea Kultur Etxean, kultura@baztan.eus helbidean edo 948 581 279 telefonoan.



SILVIA URSUEGI

Ederki joan dira Zigako bestak

Antolatzaileen erranetan, «eguraldia alde genuela, ederki pasatu dira herriko bestak. Aurten, aitzineko urteetan izan ez genituen ohiturak berreskuratuz, eta nobedade berriren bat gehituz, herritarrek gogo haundiz disfrutatu dituzte egun hauek».



Abuztuaren 10ean banatu zituzten sariak Arizkunenean. ZALDUA

Loraldiko sariak banatu ditu Arras Baztan elkarteak

22 parte hartzaile izan ditu Baztango etxeak, balkoiak eta leihoak lorez apaintzeko sariketaren IV. edizioak

TTIPI-TTAPA

Hiru kategoriatan banatu dituzte sariak. Establezimenduetan Elizondoko Barrutia 12 harategia eta Arizkongo Elena Urrutia estetika zentroa izan dira irabazle. Balkoietan Maria Pilar Cordoba eta Maria Etxenike iruritarrek izan dira garaile. Etxeetan, berriz, Orabideko Salaberriko bordako Josefa Bengoetxeak eta Elizondoko Perotxeneko Maria Josefa Barberenak lortu dute saria.

Antolatzaileek adierazi dutenez, komertzioen kategorian «partaidetza eskasa» izan da eta heldu den urtean parte

hartzera animatu dituzte. Etxeetan eta balkoietan, berriz, «arras ongi joan da; aurten loreendako sobera urte ona izan ez bada ere, gauza arras politak ikusi ditugu eta zailtasun haundiak izan ditugu sarituak aukeratzeko». Gainera, «herriz herriz ibili garenean parte hartu ez duten etxe eta balkoi arras politak ikusi ditugu eta heldu den urtean parte hartzera animatu nahiko genituzke».

Arkupeakeko lorezaintza taldea aritu da epaile lanetan eta sarituek lore sorta bana eta 50 euroko bonuak eskuratu dituzte. Zorionak!

'Bakarrizketa feministak umorearen klabean' irailean eta urrian

TTIPI-TTAPA

Feminismoa umoretik sustatzeko, Baztango Talde Feministak eta Berdintasun Batzordeak hiru bakarrizketa antolatuko dituzte:

Irailean 19an Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai *Ztandap* ikuskizuna aurkez-

tuko dute Arizkuneneko solasaldi aretoan 19:00etan.

Urriaren 3an Ane Lindane umorista Erratzuko Elkartearen izan da 19:00etan.

Urriaren 24an, berriz, Maria Blancok bere bakarrizketa aurkeztuko du Anizko elkartearen 19:00etan.



Ttikien txopo goratzearekin hasiko dituzte aurten ere bestak. ONDIKOL

Irailearen 12tik 15era ospatuko dituzte Elbeteko bestak

TTIPI-TTAPA

Lau egunez besta giroa izanen da nagusi herrian:

Iraileak 12, ortzeguna. 17:30ean mus txapelketa herriko frontoian, eta 19:00etan txupinazoa. Ondotik ttikien txopo goratzea izanen da, bonba japoniarrak botako dituzte eta dantzaldia izanen dute Franxixkoren eskutik. 21:00etan zopak hartuko dituzte herriko ostatuan, Franxixkok alaiturik, eta 00:00etan txopo goratzea izanen da.

Iraileak 13, ortziralea. 09:00etan diana herritik barna. 15:00etan paella jate herrikoia egingen dute eta postre lehia-keta frontoian. Ondotik kalejira Tuku-tuku txarangarekin. 18:00etan kontzertuak izanen dire Zapatilleran: Bidenabar eta Fusible taldeak. 21:00etan dantzaldia izanen da plazan Andoni Ollokiegirekin.

Iraileak 14, larunbata.

09:00etan diana herritik barna. 11:00etan meza nagusia izanen da, eta ondotik luntxa herriko ostatuan. 14:30ean zikiro jatea egingen dute frontoian, Txipa Djak girotuta. 22:00etan boletoen zozketa egingen dute. 23:00etan dantzaldia izanen da plazan Trikidantzekin, 01:30ean Txingudi DJ, eta akitzeko 04:00etan Aimar DJ.

Iraileak 15, igandea. 09:00etan diana herritik barna. 11:00etan haurren pilota partidak egingen dituzte frontoian, eta haurrendako antzerkia izanen da plazan. 12:30ean bailableak izanen dituzte plazan Elizondoko Gaiteroen eskutik, eta 14:00etan haurren bazkaria ostatuan. 16:00etan puzgarriak izanen dira frontoian eta ondotik txokolate hartzea. 19:30ean Pancho Balbuena mariatxiak joko du plazan.



ELBETEKO
POSADA

Ongi pasa
bestak!

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Asteburuko menu berezia

ELBETE · Karrikaundi · T. 948 581 519

info@posadaelbete.com · www.posadaelbete.com



Elizondoko konpartsa ortzirale eta larunbatean aterako da. ONDIKOL

Irailaren 6tik 8ra besta giroan izanen da Txokoto

Ortziralean 19:00etan botako dute txupinazoa eta egitarau zabala izanen da asteburu osoan

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Elizondoko Txokoto auzoak bestak ospatuko ditu irail hasmentan eta antolatzaileek egitarau ederra prestatu dute:

Irailak 6, ortziralea: 19:00etan botako dute txupinazo, ondok itzulia eginen dute Elizondoko Konpartsa-ekin. 20:00etan baztan zopak banatuko dituzte eta 21:30ean mutil dantzak izanen dira. 23:00etan, berriz, kontzertuak izanen dira, Colapso eta Rakatun taldeen eskutik.

Irailak 7, larunbata: 11:00etan itzulia eginen dute

konpartsa-ekin, eta 14:00etan zikiro jatea eginen dute. Ondotik poteoa izanen da Tuku-tuku txarangarekin elkar-terez elkarte. Ondotik DJak izanen dira; 20:00 Jotatxo, 23:00 Muffin DJ eta 02:00etan Piek.

Irailak 8, igandea: Goizean puzgarriak izanen dira, eta 11:00 Txokotoko II. Tortilla Txapelketa (arroltzeak, patatak, tipula eta olioia Elizondoko herriaren kontu. Izen ematea Txokoto tabernan ortzegunera arte). 12:30ean Vermut saltseroa eta 18:00etan Music pal body.



ONDIKOL

Ederki joan dira Elizondoko bestak

Eguraldia lagun izan zuten bestetan eta herriko gazteek ekitaldi ugari antolatu zituzten: konpartsa-ekin itzulia, kontzertuak, dantzaldiak, pilota partida... eta zikiroarekin borobildu zituzten bestak. Beroari aurre eginez, jendetza bildu zen frontoian eta giro ederrean ibili ziren arratsaldean Elutxa txarangarekin.

ANZABAL
INMOBILIARIA
ZURICH ASEGURUAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO
+ 34 948 580 804

OBRA BUKAERAKO GARBIKETAK
NEKAZAL TURISMO ETXEAK
PARTIKULERRANDAKO PROFESIOALENDAKO
*Orduka ere aritzen gara.

+ 34 671 756 572 | the.hautsend@gmail.com
ELIZONDO

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com



Hainbat baztandar saritu zituzten ardi eta esne lehiaketan. ARTZAIN EGUNA

Baztandarrak bikain UharTE Arakilgo Artzain Egunean

Kortariko Bordako Infernuko gasna izan zen txapeldun eta 4.800 eurotan erosi zuen Iruñeko Baserriberri jatetxeak

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko hainbat lagunek parte hartu zuten abuztuaren 25ean Artzain Egunean. Oronoz-Mugairiko Jorge Oteizak, Lagun zakurrarekin batera, bigarren postua lortu zuen Nafarroako Artzain Txakur Lehiaketan.

Ardien lehiaketan, Nerea Mortalena arraioztarra, Aitor Agirre azpilkuetarra eta Arizkungo SC Irigoien Rekarte izan ziren sarituak. Esne gordinaren lehiaketan, berriz, Manex Urrutia azpilkuetarra, Maria Torres elizondarra eta Aitor Agirre izan ziren garaile.



Kortariko gasna txapeldun.

Idiazabal gasnaren lehiaketan Orabideko Infernuko gasna izan zen garaile, eta 4.800 eurotan erosi zuen gasna irabazlea Iruñeko Baserriberri jatetxeak.



ONDIKOL ETA SAIOA ELIZONDOK UTZITAKOAK

Lekarozko bestak ezin hobeki

Joseba Oskarizez eta Eñaut Jauntsaratsek Oier Ariztegiren eta Gorka Aldakoren kontrako apustua izan zuten: Legateko itzulia egin zuten bizikletaz eta lasterka eta gero aizkoran aritu ziren plazan. Oskariz eta Jauntsarats suertatu ziren garaile, eta Oskariz txupinero. Ederki abiatu zituzten bestak lekaroztarrek.

Espaloien gainean ez aparkatzeko deia egin du Baztango Talde Ekosozialak

TTIPI-TTAPA

Taldeak adierazi duenez, «azkeneko aldian kezka handiz ikusten ari gara autoak espaloietan aparkatzen dituztela, oinezkoei, zirrikadun aulkietan ibiltzen direnei eta haurren orgatxoak baliatzen dituztenei, bertzeren artean, traba handia

eginez. Gauza jakina da gure herriak ez direla oinezkoetan pentsatuz eginak. Horregatik, normalki espaloiak meharrak, zoladura eskasekoak, baitezpadako jarraitutasunekoak, itzalik eta landaririk gabeak... dira. Horren erakusgarri bat, Elizondoko Maurizio eta Felix plaza inguruko hiri garapena izaten ahal da».

Horren ondorioz, autoak espaloietan ez aparkatzea eskatu du taldeak, «herrian toki ausarki bada autoak uzteko, sobera; hortaz, utzikeriaz eta zabarkeriaz jokatzeko ez da inondik ere onargarria. Bi minutuz ez ibiltzeagatik oinezkoendako espaloiak alferkeria hutsagatik trabaraztea guztiz arbuigarria da». Hori dela eta, «jokabide itsusi horietaz» ohartarazi nahi dute, horrelakoak saihesteko.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
 Ferreteria · Sukaldeko tresnak
 Mozorroak · Papertegia
 Kiroleko eta mendiko jantziak
 Moda · Oinetakoak
 Laneko arropa · Bitxiak
 Lurrin-denda
 Kosmetika, Elektronika
 Telefonoak · Poltsak eta maletak
 Etab.

T. 608 016 052
 San Andres, 66 · NARBARTE
 (Sarrera Legasatik)

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
 T. 948 452 143 · 948 452 449
 info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
 ESTALDIAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
 LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

Arrakastatsuak izan dira Amaiurko bestak

Xabier Gaztañaga eta Cool zakurra izan ziren garaile artzain zakurren 48. lehiaketan

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 13ko zopekin hasi eta 17ko zikiro jatearekin akitu zituzten Amaiurko bestak; bortzegun horietan, eguraldiak beti lagundu ez bazuen ere, hainbat ekitaldiren lekuko izan zen herria. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete «bertze urtez batez bestak aitzinera ateratzen lagundu duten herritar guziei, baita herrira hurbildu diren guziei ere».

Artzain Egun ikusgarria

Abuztuaren 15ean jendetza bildu zen herrian. Goizeko ardi lehiaketak hogeigarren edizioa bete zuen eta ardi eta ahariak ez ezik, zaldiak, behorrak eta behiak ere izan ziren azokan.

Gasna lehiaketara zortzi gasna aurkeztu zituzten eta Orabideko Kortariko gasna suertatu zen garaile; bigarren

saria Urdazubiko Etxelekuak eskuratu zuen eta hirugarrena Berako Socorro Almandozek.

Arratsaldean jokatu zen artzain zakur lehiaketaren 48. edizioa, 19. aldiz Patxi Etxeberria zenaren omenez. Xabier Gaztañaga eta Cool zakurra izan ziren garaile; bigarren postua Gaizka Etxanizek eskuratu zuen, Lasterzakurrekin; eta podiuma Jean Paul Irikinen osatu zuen, Oraizakurrekin.

«Hainbat muga gainditu dira»

Zoritxarrez, dena ez zen polita izan bestetan. Amaiurko herriak, Besta Batzordeak, Harro Baztanek, Iñarrosik, Baztango Talde Feministak eta udalak «hainbat eraso sexistak» salatu dituzte eta «baztandar guziei kontzientziarekin jokatzeari» eskatu diete, «denon ardura baita».



Giro ederra izan zen nagusi herrian. ONDIKOL ETA ANE GOIENETXEK UTZITAKOAK

Bestak koloretsuak eta giro politarekin Oronoz-Mugairin

NAIARA OTEITZA

Momentu batzuetan eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, herritar guziek gogo handiarekin hartu zituzten bestak. Zopetan 200 pertsona inguru elkartu ziren eta arratseko dantzaldian plaza bete egin zen. Egun handia ere borobila izan zen; dantzari eta erraldoiek iratzarri zuten herria eta arratsaldeko pala partidek giroa berotu zuten. Arratseko bingo musikatua ere ederra izan zen.

Gazte eguna berezia izan zen. Goiz-goizetik, gazte eta ez-gazteak karrikara atera eta Koipuu-

tre gauarekin amaiera ederra eman zioten egunari. Azken eguna ez zen gutiago izan; bestondoari kontra egiteko, 180 pertsona inguru bildu ziren zikiro jatean. Arratsaldean aizkora erakustaldiak giro berezia izan zuen, Leontzio Goñiri eginiko omenaldiak markatua. Ongi akitzeko, Dj Endarak girotu zituen bestetako azken orduak!

Esker mila besta hauetan parte hartu duten guziei, musikariei, teknikariei, Ainhoari eta Juana Mariri eta hurbildu ziren guziei!



Mozorroak izan ziren nagusi gazte egunean. UTZITAKOAK

Urriaren 31ra arte hetsia izanen da Belateko tunela

Bikoizketa lanak direla eta, bi noranzkoetan hetsi ditu gobernauk Almandozko eta Belateko tunelak

TTIPI-TTAPA

Aurreikusi dutenez, urriaren 31ra arte bi noranzkoetan egonen dira hetsiak tunelak. Bi hilabete eta erdi horietan NA-1210 errepidetik, hau da, Belateko gaineretik desbideratuko dute trafikoa. Gainera, ibilgailu astunak A-15 eta AP-15 errepideetatik joatea gomendatu dute.

Tunelaren hegoaldean egiten ari diren lanen ondorioz itxiko dute bidea. Zehazki, ezponda egiteko indusketa lanek errepidean sor ditzaketan arriskuak saihestu nahi dituz-



Tunelaren hegoaldeko ahoa. NAF. GOB.

tela adierazi zuen Oskar Txibite Lurralde Kohesioko kontseilariak, abuztuaren 13an Elizondon eskualdeko alkateekin egindako bileran.



Joan den legealdian ere parlamentaria izan zen Olabe. UPN

Isabel Olabek Iñaki Iriarte ordezkatu du Nafarroako Parlamentuan

TTIPI-TTAPA

Iñaki Iriarte Lopez UPNko kideak abuztuaren 16an aurkeztu zuen bere dimisioa, eta alderdiak sare sozialen bitartez baieztatu du Iriarteren partez Isabel Olabe Ballarena izanen dela parlamentaria.

Sortzez elizondoarra da Olabe, 1967an sortua. Lanbidez,

kudeaketa informatikako teknikaria da eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan funtzionarioa. Joan den legealdian ere parlamentaria izan zen, eta hamabi urtez Baztango Udaleko zinegotzi izana da. Joan den urteko udal hauteskundeetan Baztango UPNren zerrendan zortzigarren aurkeztu zen.



Familia eta lagunekin ospatu zuen abuztuaren 9an urtebetetzea. UTZITAKOIA

101 urte bete ditu Mane Zubiri Bengoetxea elizondoarrak

TTIPI-TTAPA

1923ko abuztuaren 9an Arizkungo Bergara auzoan sortu zen Maria Josefa Zubiri Bengoetxea. Sei haurridetatik bigarrena, Elbeteko Jaunxaharrea eta Arbiltoa etxeetan pasatu zuen haurtzaroa. 30 urterekin Elizondorat ezkonduzen, Francisco Satrustegi zenarekin, eta

bertan bizi da geroztik. Semerarekin ez baditu ere, lau iloba ditu gaur egun eta haiekin eta lagunekin ospatu zuen bere 101. urtebetetzea.

Urteak urte, ongi apaindua ibiltzea gustuko duen emaztekoa da oraindik eta aunitz oriztzen da aspaldiko kontuez. Zorionak eta aunitz urtez!



Pacheco urrezko dominarekin Giltxaurdin. ONDIKOL

Joko Olinpikoetan urrezko domina lortu du Jon Pacheco futbolari elizondoarrak

TTIPI-TTAPA

Urrezko domina lortzen duen bigarren baztandarra bihurtu da aurtengo Joko Olinpikoetan Jon Pacheco Dozagarat elizondoarra.

Donostiako Real Sociedad futbol taldeko jokalaria 190 minutu jokatu zituen denera Espainiako selekzioarekin

Parisko Joko Olinpikoetan. Pachecok finalean ere parte hartu zuen, 88. minutuan sartu baitzen zelaian, selekzio berriz jokalaria nafarra, Osasunako Aimar Oroz, ordezkatu. Taldeak Frantziako selekzioa mendean hartu zuen finaleko luzapenean, 3-5 markagailua lortuz. Zorionak Jon!



Joko bestako joko bat. MARIFA ETA KORO

Zikiroko haragia burdinetan erre dute lehen aldiz

Joko bestak, Joxelu Anaiak taldeari egindako omenaldia, bote luzea eta ardi ile moztea ere izan dira bestetan

MARIFA ETA KORO

Zikiroa prestatzeak aldaketa handia izan du aurten: haragia hurritz makiletan paratu beharrean, burdinetan zintzilikatu dute. 1914. urtean Argentinatik ekarritako ohituran, beti makiletan eman izan da zikiroa (bildotsa gaur egun), baina, alde batetik, daukan lan izigarria dela, eta, bertzetik hurritz aunitz behar direla, usai zahar hori baztertzea erabaki da, eta hemendik aitzinera burdinetan emanen dute. Gazteek ilusio eta imaginazio haundia izaten segitzen dute, Joko bestako jokoak horren erakusgarri. Be-



Joxelu Anaiak omenduak.

raiek izugarri ongi pasatu zuten eta ikusleek ajata politikak egin zituzten. Joxelu Anaiak taldeak 25 urte bete ditu gurera etortzen, eta herriak omenaldi bat egin zion, plaka bat eskainiz.



MARIFA ETA KORO

Kantu emanaldia eta murala

Karriketan zehar kantu emanaldia ikusteko aukera izan zen abuztuaren 11n. Baztango eta herriko kantariak Elizargietetatik abiatuak, txokoz txoko ibili ziren herria kurrituz. Ondotik, Akelarreneko murala inauguratu zuten, Juan Angel Perotxena eta Asisko Urmeneta egileekin.



MARIFA ETA KORO

Bote Luze partida jokatu zuten bestetan

Andremari egunean Bote Luze pilota modalitatea ezagutzeko aukera izan zen pilotalekuan. Diotenez, Laxoarekin zerikusia haundia dauka. Modalitate hau pilotako zaharrenetakoa omen da, eta tantoak ere modu tradizionalan eman zituzten: kantari.

39 parte-hartzaile ardi ile mozketan txapelketan

Ardi ile mozketaren txapelketa egin zen bigarren urtez herriko bestetan plazan, abuztuaren 16an, ortziralearekin. Aurten 39 parte hartzaile aritu ziren II. Speedsehar txapelketan, Kortariko bordako ardiekin, eta arras ikusgarria izan zen.



Ardi baten ile mozketan lanean.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

- 📍 Kanttonberri, 1 | BERA
- ☎️ T. 948 631 218
- ✉️ joxemi@kateabike.com
- 🌐 www.kateabike.com









Herriko bestak buruilaren 7tik 11ra ospatuko dituzte

BTT lasterketarekin eta kontzertuekin larunbatean hasiko dira, igandean desfilea eta asteartean Gazteriaren Eguna izanen da

GANEX

Herritar guztientzako bestak prestatu ditu aurten ere besten komiteak eta plazara hurbiltzeko gomita egin dute.

Buruilak 7, larunbata

09:00etan BTT lasterketa, 20 edo 30 kilometroko ibilbideak aukeran. 09:00etatik 19:00etara ball-trap Plaxiden bordan. Kontzertuak plazan: 20:30ean Puntu Kakotx aperitifa has-teko. 22:00etan Kilimak. 00:00etan Esne Beltza. 01:30ean DJ Uzkuluz. 02:00etatik 05:00etara etxera sartzeko autobusak urrik.

Buruilak 8, igandea

Egun osoan karriken alaitzea Danborrada Mariñelak gaiteroekin. 10:00etan meza Hazparneko klikarekin. 10:30ean luzean errebotean. Luzean/Iparaldeko selekzioa. 16:00etan Brilili dantza taldea. 16:30ean desfilea herriko plazan, Zuraidarrak taldearekin. Gaiteroak eta erraldoiak, joaldunak, ahate jokia eta herri kirolak. 19:00etan Aire ahizpen kantaldia. 20:30ean Ixtaklok.

22:30ean DJ Jotatxorekin dantzaldia.

Buruilak 9, astelehena

Egun osoan karriken alaitzea gaiteroekin eta txistulariekin. 11:00etan luzean errebotean Ustaritzeko taldeen arteko partida. 13:30ean Olhain ikastolak antolatutako bazkaria lehengo Keinuko aparkalekuan. 16:30ean Interkomite jokoak. 17:30ean esku pilota finalerdiak trinketean. 18:30ean Zazpiak Bat dantza taldearen ikusgarria. 19:30ean plazan, Bostanka Kantuz. 21:00etan Basapiztiak taldeak alaitutako aperitifa.

Buruilak 10, asteartea

Sarako Gazteriaren Eguna. Egun osoan karriken alaitzea gaiteroekin eta txistulariekin. 11:00etan luzean errebotean Spuc eta Noizbait taldeen arteko partida. 16:30ean artzain xakur txapelketa. 18:00etan Joko Garbi finala plazan: Noizbait/Zaharrer Segi. 19:00etan mutxikoak. 20:00etan gazte-txean Jet Set gaua Andoni Ollokiegirekin. 22:00etan dantzaldia Gozategi taldearekin.



Igandeko desfilean berriz ere umore ona erakutsiko du gazteriak. GANEX

00:00etan DJ Bull. Gau guzian Kuxkuxtu txaranga.

Buruilak 11, asteazkena

09:00etan trinketeko zabaldegian azienda lehiaketa. Sarako laborarientzat 1.700 euroko primak. 10:30ean gazte-txearen ondoko parkean Pontx pailazoa. Euriarekin kiroldegian. 17:00etan plazan esku huska partida. 18:00etan trinketik abiatuta bertso poteoa, Amets Arzallus eta Haira Aizpuruarekin. 18:30ean trinketean esku pilotako finala. 19:00etan zozketa. 19:30ean Hiruri taldearekin aperitifa. 21:30ean Atzar hadi taldea. 23:00etan su artifizialak. 23:15ean Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

pleka
SARA

JATETXEA-OSTATUA-TRINKETEA

Buruilaren 7tik 11ra

MENU BEREZIA 28€

- Ahuntz gasna entsalada
- Serrano xingarra, ogi eta tomatearekin
- Idi tripakiak
- Idi saiheskia etxeko patatekin
- Dorada txorizo saltsan
- Bildots gurintxoak pikiloekin
- Panna cotta fruitu estaliarekin
- Txokolate goxoa
- Etxeko bounty

Haurrentzat menua 10€

- Haragi xehetua edo xingarra patatekin + izozki bola

TRINKETA PARTIDAK:

Astelehena 9, finalerdiak:
17:30etan

Asteazkena 11, finalak:
18:30etan

Tel. (+33) 559 54 22 05
trinquetpleka@gmail.com

SARA
HERRIKO ETXEA

SARARI BALHOREAREN
ETA LEYALTASUNAREN
SARIA EMANA
LUIS XIV-EK 1693-AN

*Plazan
elkar ikusiko dugulakoan
Herriko Kontseiluak
besta onak opa dizkizue*



Gizonezkoen podiumean, Manex Etxeberri Pacheco saratarra hirugarren. GANEX

Kontrabandisten Lasterketan Fagoaga eta Elzaurdia nagusi

Lasterketaren inguruan azoka izan zen Suharriaga parkean, Ainhoako eta Berako laborariekin

GANEX

Abuztuaren 25ean burutu zen Sarako Kontrabandisten lasterketa, Sara Korrika elkarteak antolatua, Herriko Etxearekin elkarlanean. 8,4 kilometroko itzulia egiten bizkorrena Hondarribiko Martin Fagoaga izan zen (42.25), Donibane Garaziko Jean Laxague bigarren izan zen (44.02) eta Manex Etxeberri Pacheco saratar gaztea hirugarren (44.32). Nesketan, Ane Elzaurdia beratarra izan zen irabazle (48.25), Ainhoa Etxegarai beratarra bigarren (50.59) eta Hendaia Patricia Idieder hirugarren (57.15).

Azoka ederra ere

Lasterketa izan ohi da erakar-garri handiena baina aurrean, horren inguruan baziren bertze zenbait ekitaldi ere antolatua. Ainhoako eta Berako laborariekin bazituzten ekarriak animaliak eta baserriko tresnak erakusteko, Suharriaga parkean. Pottoka itzulia izan zituzten ttikienekin. Aizkolariak eta bertsolariak ere aritu ziren. Ostaturia ere bazen eta zikiroa bazkaltzeko. Plazan, berriz, bote luze partida izan zen eta joaldunak ibili ziren. Sari banaketaren ondoren, berriz, Pettik kontzertua eman zuen.



GANEX

Larrungo koloreak taldeak hogeit urte

Larrungo koloreak taldeak aurrean hogeit urte bete ditu. Eliane Eyaet dute lehendakari, eta denek beraien lanetatik aparte egiten dituzte beraien margoak. Beraz, urte guztiz bezala, Lur Berri gelan egin dute beraien udako erakusketa. Hamabi erakusle baziren, zazpi margolari eta bortz zizelkari.



GANEX

Artzain zakur lehiaketa Animainean

Kattalin Elizalde kolegioak antolatutako, abuztuaren 14an artzain zakur txapelketa iragan da Animainean. Jean Acheritogaray (Nere) izan da irabazlea eta Roger Jaureche (Pop), Gilles Etchegoyen (Neo), Michelle Acheritogaray (Izar), Juan Mihura (Couk) eta Franck Levilier (Saski) ere aritu dira lehian.

Neomak taldeak eta Mainer Cigarroak kontzertu berezia irailaren 21ean

TTIPI-TTAPA

Irailaren 21 ean, larunbatetik, Neomak taldearen lehen diskoaren birako azken kontzertua antolatu dute leizeetan. 20:00etan hasiko den gaualdia hasteko, Mainer Cigarroaren ahots liluragarria aditzeko aukera izanen da eta gero,

22:00etan, Neomak taldearen kontzertuarekin segituko dute, leizeetako atari dotorearen azpian. Lekuan bertan jatekoa eta edatekoa izanen da, baina sarreraren xerka bazaude, egon lasai, aspaldian denak saldu baitziren. Hurrengoan behar-ko du!



Neomak taldearen lehen diskoaren birako azken emanaldia izanen da.



Burdinaren Egunaren 16. edizioak jendetza erakarri zuen. ARANTXA ETA IRAIA



Tortilla lehiaketan saritutakoak, alkatearekin eta antolatzaileekin.

Udako ekitaldiak jendetsuak izan dira aurten ere

Tortilla txapelketa egin zen uztailean eta Burdinaren Egunaren hamaseigarren edizioa eta herri kirol jaialdia abuztuan

ARANTXA ETA IRAIA

Urteroko gisan herriko etxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu udako asteburuetan. Lehenik eta behin, Pilotaren Unibertsoa izeneko jaialdia ospatu zen uztailearen 27an, eta ondotik urteroko tortilla txapelketa izan zen. Hiru kategoriatan banatu ziren tortillak: Patata tortilla tradizionala, estilo librekoa eta profesionala. Kategoria tradizionalan Cristobal Alzuyetek eraman zuen lehen saria, estilo librean Manoli Azkarragak eta profesionalan, Miren Sansiñenak, Karretero ostatuko nagusiak.

Bertara hurbildu zirenek aurkeztutako tortilla guztiak probatzeko aukera izan zuten eta Miren Sansiñenarena izan zen publikoari gehien gustatu zitzaiona.

Burdinaren Eguna

Abuztuaren 10ean, urteroko zita berezia izaten da herrian. Burdinaren eguna ospatu zen, Bizkaitik ekarritako burdina herriko monastegiko fraideek erosi zuten, negoziaketa gogor baten ondotik. Artisauen postuak eta Jesus Mediavillak dantzatutako Aureskua ikusi ondotik, 240 lagunek zikiro



Mariatxiekien kantuan eta dantzan ibili ziren urdazubiarrak eta bisitariak.

jate ederra egin zuten herriko frontoian eta azkenik, mariatxi eta akordeoilarien eskutik, musikarekin akitu zen besta.

Azkenik, abuztuaren 24an, herri kirol jaialdia izan zen herriko frontoian. Lehenik euskal dantza erakustaldia izan zuten, gero herri kirolen txanda izan zen eta azkenik, sardina jatearekin akitu zuten eguna.

Urteroko gisan, Urdazubira hurbildu ziren guztiak udan

herriaz gozatzeko aukera izan zuten. Orain, heldu den urteko uda prestatzen hasi behar-ko!

Bi urdazubiar gehiago

Baina udak ekarritako berririk onena, bi haur ttipiren sortzea izan da. Abuztuaren 12an, bai, egun berean, Xan Etchart Larreburu eta June Blanco Barberena sortu ziren. Zorionak bi familiei eta ongi etorri bi ttipiei!

VENTA PEIO
GEHIGAO EMATEN DIZU

IBARDIN 31780 Bera BEHOBIA 20305 Irun LUZAIDE 31660 Luzaide DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia, astelehenetik igandera arte
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 1^a izan ezik

Jantxidendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jatetxeak · Ostatuak · Sagardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

Kontrabandisten Lasterketako izen-ematea zabalik

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa urriaren 12an eta 13an egingen dute. Urteroko gisan, urriaren 12an Gaueko Lanak izeneko 9,5 km-ko lasterketa egingen da eta biharamunean, urriaren 13an, maratoni erdia. Izena ematea irekia: pyreneeschrono.fr.



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Larrekon. JL BESSONART

Kultur eskaintza bikaina eta oparoa izan da udan herrian

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren emanaldiarekin jo zuen gailurra, baina bertze zenbait saio eder izan dira

JL BESSONART

Anitz ekitaldi izan dira udan, bereziki kultur mailan. Haue- tan nola ez aipa Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren era- kustaldia Larrekon, hemen gailurra lortua izan da bai musika aldetik baita publi- koaren erantzunagatik ere. Alexandre Da Costa zuzenda- riak jakin du sekulako dina- mika sortzen. *Hechizo y Duen- de* ikuskizuna ederra izan da musikazaleendako eta Festival Ravelen kari musikaldi ederra zuten abuztuaren 26an. Uz- taritzeko Lapurtarrak eta Go- gotik abesbatzak beren age-



Uztaritzeko Lapurtarrak elizan.

rraldia egin zuten elizan. Utsaleko aparkalekuan, Osta- tu ibiltariak jende multxo bat bildu da. Laborarien gaualdiak eta bertze udako animazioek ere ez dute huts egin.



Artzain txakur lehiaketako parte-hartzaileak. JL BESSONART

Jean Paul Iriquin eta Orain garaile Zaldubiren aldeko artzain txakur lehian

JL BESSONART

Senpereko Zaldubi Ikastolak, ohiko ekimena antolatzen du sasoi honetan. Helburua: uda- tiarrei artzainen mundu be- rezi hori ezagutaraztea eta diru laguntza pittin bat lortzea. Kirol zelaian, aro ezin hobea- rekin, sei artzain txakurrek beren trebetasuna azaldu dute

beren jabeen agindupean, publikoren atseginetan. Jean Paul Iriquin itsasuarra atera da irabazle *Orain* xakurrekin eta nola Iparraldeko txapel- keta eskuratu duen berrikitan Baigorriin, munduko artzain txakur lehiaketan parte har- tuko du Oñatin datorren udaz- kenean.

Elkarteen Forua larunbatean egingen dute Larrekon

Urtero bezala, hitzordua Lar- rrekon iraganen da irailaren 7an larunbat goizarekin. 70 elkarte inguru badira herrian, dinamikaren sortzaileak, au- kera polita da horien aktibi- tateen deskubritzea, ber den- boran askok bere izena eman dezakete gustuen arabera.

Kukai dantza taldeak ikuskizuna irailaren 14an

Malandin Ballet Biarritzekin duen lankidetzaren baitan, Elirale-Pantxika Telleria kon- pania pozik dago, ongi etorria egingen diolaketuz Kukai Dantza elkartearen *Euskorleans* ikus- kizunari. Eliza gibeledoko parkean ikusten ahalko da kittorik, irailaren 14an, 17:00etan.

Ortzadarra elkartearen erakusketa

Ortzadarra elkarteko 40 mar- golarik eta 15 eskultorek, Bai- gorri, Baiona, Donibane-Lohi- zune eta Senperekoak, aur- keztuko dituzte beraien obrak Larreko kulturgunean. Iraila- ren 9tik 15era, (09:00-19:00), igandean arratsaldez bakarrik (15:00-19:00).

ZURE ZERBITZURA:

- Banaketa-uholaren aldaketa
- Enbragea
- Balaztak
- Olio aldaketa
- Pneumatikoak

KALITATEKO MANTENTZE-LANAK PREZIORIK ONENEAN

Garbiketa-zentroa

Gasolindegia

Auto-garbitegi automatikoa

Tailer mekanika

Hitzordua telefonoz edo whatsapp bidez:
+34 608 791 971

+34 948 599 236 · www.josenea.es · centreauto@josenea.es

TAILERRAREN ORDUTEGIA Astelehenetik ortziratera : 08:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00 Gasolindegia ORDUTEGIA : 24ordu/24 Josenea Zone Auto (Dantxarineko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.



Txapelketako lau lehenbiziko taldeak, sari banaketaren ondotik. ONDIKOL



Irurita Migelene txapeldun eta Doneztebe Titi txapeldunorde, final ttikian.

Doneztebe The Moment hirugarrenez segidan txapeldun

44. Laxoa txapelketako final handian 9-0 irabazi zion Oizko taldeari abuztuaren 4an Arraiozen

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko The Moment eta Oiz A taldeek jokatu zuten XLIV. Nafarroako Laxoa Txapelketako finala abuztuaren 3an Arraiozko plazan, eta aurreneko Doneztebeko taldea nagusitu zen. Hasieratik erakutsi zuen nagusitasuna Doneztebeko taldeak, eta 9-0eko emaitzarekin akitu zen partida. Gisa honetara, Doneztebeko taldeak hirugarren urtez segidan jantzi du txapela. Oizek, berriz, 1990ean jantzi zuen azkenekoz laxoa txapelketako txapela, baina 2009an ere finalean izan zen.

The Moment taldean Julen San Miguel, Pascual Bertiz, Javier Bertiz eta Koldo Legarra aritu ziren eta Oizko taldean, berriz, Ioritz Zelaieta, Iker Bereau, Laurendi Zelaieta eta Ugutz Zelaieta.

Egun berean, baina goizean, hirugarren posturako lehia jokatu zuten Arraioz Sagardiak eta Doneztebe Apeztegia taldeek. Markagailuan 6-0 baztandarrak jarri ziren aitzinetik, baina gerora, 6-4 hurbildu ziren Doneztebekoak. Azkenean, 9-4ko markagailuarekin arraioztarrak nagusitu ziren. Sagardia taldean Mikel Min-

degia, Abi Bengoetxea, Ion Gamio eta Miguel Maritorena aritu ziren eta Apeztegia taldean, Jon Apeztegia, Ramon-txo Etxebeste, Iban Santesteban eta Joseba Juanena.

Irurita Migelene ttikian

Astebete lehenago, uztailaren 27an, final ttikia jokatu zuten plaza berean Irurita Migelene eta Doneztebe Titi. Hasieran, doneztebarrak hasi ziren irabazten 3 eta 0. Baina iruritarrek berdintzea lortu zuten. Gero, berriz kolpea eman zuten Titi-tikoek, baina baztandarrek berriz ere 5-5 berdintzea lortu zuten. Azken jokoetara, indarrak justu-justu ailegatu ziren bi taldeak eta azken jokoak Migelenekoen alde izan ziren (7-9).

Irurita Migelene taldean Iñigo Dendarieta, Xabi Barberena, Egoitz Prim eta Oinatz Jauntsarats aritu ziren Doneztebe Titi taldean Eloy Garcia, David Mitxeo, Pio Garcia eta Imano De Rueda.

LAXOA TXAPELDUNAK

1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA
2011	IRURITA
2012	IRURITA
2013	DONEZTEBE
2014	DONEZTEBE
2015	IRURITA
2016	IRURITA
2017	IRURITA
2018	DONEZTEBE
2019	IRURITA
2020	ARRAIOZ
2021	IRURITA
2022	DONEZTEBE
2023	DONEZTEBE (H) / OIZ (T)
2024	DONEZTEBE (H) / IRURITA (T)

Iruritik irabazi du gazteen laxoa txapelketa

Baztan-Errekako gazteen laxoa txapelketako finala jokatu zuten abuztuaren 10ean Bear-Zanan. Iruritik 9-2 irabazi zion Doneztebe Cri. Hirugarren posturako lehian, Doneztebe Bk 7-3 irabazi zion Doneztebe Ari.





Herriz herri txapelketako lehen proba konbinatuko podiuma.

Arraioz nagusitu da Nafarroako herriz herri txapelketan

Lehen eta bigarren proba konbinatuen finalak irabazi zituen abuztuaren 18an Burlatan eta Basaburua hirugarren izan zen

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako herriz herri txapelketako finalak jokatu zituzten abuztuaren 18an Berriozarko Ezkazabal kiroldegian. Maila nagusian, lehia ederraren ondotik, Arraioz nagusitu zen bai proba konbinatuan, baita bigarrenen ere.

Basaburua hirugarren izan zen bietan. Gazte mailan, berriz, Basaburua, Arantza eta Igantziko gazteek osatutako Basaraiga taldea hirugarren izan zen, Berriozarren eta Antsoainen ondotik.

Lehen proba konbinatuan (lokotx biltzea, zakularien lasterketa, aizkora, lasterka eta

arpana), 21 minutu eta 36 segundo behar izan zituen Arraiozko taldeak lana burutzeko. Bigarren Ultzamaldea izan zen (21.56), hirugarren Basaburua (22.21) eta laugarren Berriozar (22.35).

Bigarren proba konbinatuan (Bi kirol, txinga eramatea eta ingude altxatzea) ere, Arraioz gailendu zen (8 puntu), Berriozar bigarren izan zen (5 puntu) eta Basaburuak eta Ultzamaldeak hiruna puntuarekin berdindu egin zuten, baina baztandarrek txingetan denbora hobea egin zuten, beraientzat izan zen podiumeko hirugarren kokoa.

Herriz herri txapelketa honetan Irurritako taldea ere aritu zen, baina ez zuen finalerako sailkatzerik lortu, ezta Etxarri Aranzeko eta Txantreako taldeek ere.

Basaraiga hirugarren gaztetan

21 urtez behehiko kategorian Nafarroako herriz herri txapelketako finalean, berriz, Berriozar nagusitu zen (18.53), Antsoain izan zen bigarren (19.12) eta Basaburua, Arantza eta Igantziko taldeek osatutako Basaraiga taldea hirugarren (19.39).

Ainhoa Etxegaraik Nafarroako txapela eta EHko errekorra

Nafarroako lokotx biltze txapelketak Arantzan jokatu zituzten abuztuaren 18an. Pronostikoak bete eta Ainhoa Etxegaraik beratarra eta Unai Iantzi aniztarra berriz ere txapeldun suertatu ziren. Ez hori bakarrik, Etxegaraik berak 2022tik zeukan Euskal Herriko errekorra bi segundotan hobetu zuen (07.05). Txapeldunekin batera, bigarren izan ziren Elkarteko Nerea Huarte eta Lur Gil ariko dira Euskal Herriko txapelketan, Nafarroako ordezkari. Gizonezkoetan hirugarren izan zen Eneko Herrera sunbildarra.



Etxegaraik berriz txapeldun.



UTZITAKOA

Saralegi hirugarren mailako txapeldun

Nafarroako hirugarren mailako aizkolari txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 18an Arantzan Irurtzungo Aitor Saralegi izan zen txapeldun (09.51) eta Altsasuko Oier Mitxelena bigarren (10.25). Biak bigarren mailan ariko dira. Hirugarren izan zen Julen Urrutia arraioztarra (10.51).



UTZITAKOA

Indakotxea bigarren mailako finalera

Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketako kanporaketa jokatu zuten abuztuaren 14an Donamarian. Irailaren 22an Uhartzen jokatu den finalerako sailkatu zen Mikel Indakotxea zubietarra. Segundo bakarreko alde aterazio zion seigarren izan zen Beintza-Labaieno Jesus Etxeberriari.

Jorge Agirre lesakarra Portugalgo lehen mailan

24 urterekin Osasuna Promesas utzi eta Portugalgo lehen mailako Gil Vicente taldearekin hiru urterako fitxa egin du futbolari lesakarrak. Talde berriaren ligako lehen gola ere egin du eta «hagitz kontent» dago emandako urratsarekin, baina ez du bere ibilbidean azkena izatea nahi

AITOR AROTZENA LESAKA

Jorge Agirre De Cespedes futbolariak (Lesaka, 2000-I-5) Portugalgo lehen mailako futbol ligan debuta egin zuen abuztuaren 10ean. Ez nolana hiko gainera. Barcelos hiriko Gil Vicente taldeko hasierako hamaikakoan sartu zen aurrelari lesakarra, Oporto talde historikoaren kontra, Do Dragao zelai mitikoan 50.000 futboi zaleren aitzinean. Emaizta ez zen nahi bezalakoa izan (3-0 galdu zuten), baina gustura gelditu zen egindako lanarekin.

«Aste zaila izan genuen –dio Agirre– liga hasi baino pare bat egun lehenago lehenengo entrenatzailea joan baitzen ustekabean eta berri bat hasi zen, planteamendu berria, arraroa izan zen. Halere, lehen partida izan zen eta hasieran ongi ibili ginen. Baina gero, penalti bat adierazi ziguten eta hortik aitzinera ezin izan genuen. Hasieran urduri aritu nintzen, estadioak inpresionatzen du, baina jokora sartu eta ez zara arduratzen kanpo koaz. Niretzat esperientzia berria zen, inoiz ez nintzen 50.000 ikusleren aitzinean aritua, Deportivo La Coruña-ren kontrako partida batean 17.000 zirela uste dut. Baina egin nuen lanarekin kontent gelditu nintzen, partida ona atera zitzaidan».

Oporto taldean Portugalgo selekzioarekin aritzen diren hainbat futbolari izan zituen arerio, baina tartean ez zegoen berriki futbola utzi duen eta hainbat urtez Real Madriden aritu zen Pepe atzelaria: «Pena



Jorge Agirre, Portugalgo Barcelos hiriko zelaiko harmailetan. GIL VICENTE FC

pixka bat eman zidan, polita izanzen litzateke hainbartz urtez hainbat talde handitan aritu den horrelako atzelari baten kontra lehiatzea!», dio. Lesakatik gurasoak ez ezik lagun batzuk ere hurbildu omen ziren Oportora partida ikustera eta horrek ere pozez betetzen du Agirre. «Ilusio handia egin zidan eta indarra eman. Ea orain Lesakatik Portugalgo liga gehixeago segitzen duten eta galoen, oilarren, kamixeta batzuk ikusten diren (oilarra da Gil Vicente taldearen ikurra)».

«Ibilbide zaila izan da»

Futboleant tikitari Beti Gazten hasi zen Agirre, baina kadetetik azken urtean Donostiako Real Sociedad taldeak fitxatu zuen jubenetan aritzeko. Errealaren bigarren eta hiru-garren taldean aritu zen, Mirandesen utzia egon zen, iaz Osasuna Promesas fitxatu zuen eta orain Portugalgo lehen mailako Gil Vicente taldearekin hiru urterako fitxa egin du. Gustura dago bere ibilbidearekin, baina aitzinera egin nahi du: «Ibilbide zaila izan da. Beti Gaztetik Realera joan nintzen, Lesaka bezalako herri batetik Donostiara bizitzera joateko salto hori, hain gazte egitea zaila izan zen, baina eman beharreko urratsa izan zen, orain nagoen lekuan egoteko. Hiru urterako kontratua dut, lehen mailan debuta egin da nire ametsa bete dudala erraten ahal da, baina ez naiz honekin konformatzen, lehen mailara begira begi aunitz izaten dira eta nork daki, urtebete, bi edo hiruak hemen egin eta futboleko nire ibilbideak nora eramaten nauen».

Gil Vicente taldeak, gainera, ehun urte bete ditu aurten eta mendeurrenaren harira, hainbat jokalar fitxatu ditu, tartean lesakarra. Mendeurreneko urtean izan arren, helburua garbi dutela adierazi digu Agirre: «Helburu garbia maila mantentzea da. Egia da orain dela bi denboraldi Conferen-

«INOIZ EZ NINTZEN, OPORTON BEZALA, 50.000 ZALEREN AITZINEAN ARITUA»

«SANFERMINETAN LESAKATIK KANPO EGOTEA GOGORRA EGIN ZITZ AidAN»

ce League jokatu zuela Gil Vicente taldeak, baina sailkapenaren erdialdeko taldea da normalean, Osasuna edo Alaves batekin konparatuko nuke, talde umila, eta hauek bezala, lehen helburua kategoriari eustea da. Gero, emaitza onak ailegatzen badira, igual goiti begiratzen ahal dugu, baina lehenbiziko maila mantendu behar da».

Taldearen ligako lehen gola

Bide horretan, abuztuaren 16an, jokatu zuten ligako etxeko lehen partida, Barcelosen, eta «zaleei partida on bat eta garaipena» eskaintzeko gogotsuzegoen Jorge Agirre: «Etxean gogor egin behar dugu eta irabazten hasi behar dugu hasieratik». Baita lortu ere, taldearen ligako lehen gola sartu baitzuen lesakarrak, lehen garaipenean bere aletxoak paratuz. Hagitz kontent zegoen, «niretzat lehen gol ofiziala zen Gil Vicentekin eta ea goiti joaten naizen. Galtzen hasi ginen gainera, maldan goiti, baina gola egitea suertatu zen eta ongi». Gola nola izan zen ere ongi gogoratzen du: «lerro artean baloia ailegatu zitzaidan, biratu eta kontrolak pixko bat alde egin zidan baina baloia ez uzten saiatu nintzen, Tidjany Touréri ailegatu zitzaion baloia eta desmarkea egin nuen, baloia eman zidan area ixkinean eta ez nuen aunitzik pentsatu, fuerte eta behetik jotzen saiatu nintzen eta sarera sartu zen».

Eskaintza ere bazuen bere lehen golak Portugalgo ligan: «batez ere gurasoei, amatxiri eta familiari, baina lagunak badakite beraientzat ere badela, beti lagundu naute, mezuak bidaltzen dizkirate eta, orokorrean, maite dudan jende guztiarentzat. Beraiek badakite zein diren!».

Uztail hasieran joan zen Barcelosera fitxa egitera eta denboraldi aurrea hastera, garai zaila lesakar batentzat: «Sanferminak ziren eta hagitz gogorra izan zen, herritik kanpo egotea, lagunetatik eta familiatik urrun... baina ttitikatik nuen amets bat betetzeko zen: lehen mailako talde bateko fitxa izatea». Orain, ez daki sorterrira bueltatzeko aukerarik noiz izanen duen: «Galdera ederra! Ahal dudan bezain agudo, hori bai, baina Portugalgo ligako egutegia estua da. Negu partean joateko esperantza banuen, eguberrietan, baina liga ez da gelditzen eta ez dut posible izanen. Aurten ez olentzero, ez urtezahar...», dio herriminez. Halere, ongi laketu du Barcelos hirian. «Portugalgo ipar aldean dago, Galiziatik hurbil, Braga eskualdean. Hiria ere hagitz polita iruditu zait, lasaia eta bertan bizitzeko egokia, herri bat bezalakoa. Hagitz ongi hartu naute gainera, bai zaleek, baita taldekideek ere. Estadio berria dute, Cidade de Barcelos, eta instalazio egokiak. Lana gustura egiteko aitzakiarik ez da!».



Ligako lehen partidako hamaikakoan, Oportoko Do Dragao zelaian. GIL VICENTE



Baloia oinetan, Oportoren kontrako partidari. GIL VICENTE



Taldearen ligako lehen gola ospatzen. GIL VICENTE



Lesakarra Gil Vicente taldearen aurkezpen ofizialean. GIL VICENTE

Jorge Agirre hurbiletik

Futbol talde bat? Manchester United.

Futbolari bat? Wayne Rooney.

Entrenatzaile bat? Sergio Francisco.

Futbola ez den bertze kirol bat? Tenisa. Orain Jannik Sinner aunitz gustatzen zait.

Gosaltzeko, zerealak, kafesnea edo arrautzeak

magrarekin? Osasuntsuagoa balitz arrautzeak magrarekin (kar, kar). Kafesnearekin kontent.

Bazkaltzeko pasta edo sagardotegiko menua? Pasta.

Oporretan hondartza edo mendia? Hondartza.

AGENDA

IRAILAK 5 - 19

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



BERROETA Basaburuaren Eguna

Mendi itzulua, mus txapelketa, jostetak, musika, bazkaria... egitarau osoa 47. orrialdean.
Irailaren 7an.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

'Nafarroako Donejakue Bidea; guztiontzat' solasaldi zikoa

Baztango Donejakuaren Lagunek antolatua.

Arizkunenean, irailaren 9tik 12ra.

MUSIKA

BERROETA

Baztan Kantuz

Plazan, irailaren 7an, 12:30ean.

Orbit Musicians taldearen kontzertua

Gandeia, Gantxito Anaiak eta Jackie Wackierekin.

Irailaren 12an, 19:00etan.

LEITZA

Porrotxen kontzertu solidarioa

Herri Aretoan, irailaren 18an, 18:00etan. Sarrerak 5 eurotan Maimur, Peritza eta Erosleko harategian.

Anari

Plazan, irailaren 8an, 20:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, irailaren 7an eta 14an, 10:00etatik 14:00etara.

JARDUNALDIAK

BERROETA

Basaburuaren Eguna

Irailaren 7an. Xehetasunak 47. orrian.

SENPERE

Elkarteen Forua

Larrekon, irailaren 7an, goizez. Xehetasunak 59. orrian.

LESAKA

Lesakako XXI. Rallysprinta

Agiñan, irailaren 7an, 12:30ean. Xehetasunak 21. orrian.

Mendi bizikleta ibilaldia

Plazatik, irailaren 15ean, 09:00etan. Xehetasunak 17. orrian.

DONEZTEBE

Mariezkurrena enpresaren 45. urteurren besta

Irailaren 14an. Xehetasunak 27. orrian.

Xake azkarreko txapelketa

Casinon, irailaren 14an, 10:00etan. Xehetasunak 27. orrian.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

Gure Zirkua

Landazelaian, irailaren 7an, 8an, 13an eta 15ean. Sarrerak gurezirkua.eus-en.

SENPERE

'Euskorleans' dantza ikuskizuna

Kukai Dantza Taldearen eskutik. Eliza gibelego parkean, irailaren 14an, 17:00etan.

ELIZONDO

'Ztandap' bakarrizketa

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarainen eskutik.

Arizkunenean, irailaren 19an, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Tomas Sobrinoren ikasleen pintura erakusketa

Arizkunenean, irailaren 8ra arte. Aste tarteaz 18:00etatik 20:00etara eta asteburuan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

SENPERE

Ortzadarra elkartearen arte erakusketa

Larrekon, irailaren 9tik 15era. Egutero 09:00etatik 19:00etara eta igandean 15:00etatik 19:00etara.

LEITZA

Artea Basoan arte erakusketa

Urtoko Zubietan eta Leitزارanen, irailaren 30era arte.

«Pistako eta errepedeko txirrindularitza, biak berdin maite ditut»

ELLANDE LARRONDE SARAKO TXIRRINDULARIA



Hamazazpi urte bertzerik ez ditu Ellande Larronde txirrindulari saratarak (Sara, 2006-XI-7), baina bidea egiten ari da txirrindularitzan. Mendi bizikletarekin hasi zen konfinamendu garaian eta orain, VTTa utzi eta pistako txirrindularitza eta errepedekoa uztartzen ditu. Errepidean, aurten, maiatzaren 1ean, Akintania Berriko txapelketa irabazi zuen junior mailan. Aitzinetik, apirilean, Primevere Montoise junior lasterketa irabazi zuen eta ekainean, Gedimat junior lasterketa. Egun bakarrek lasterketa guztiak. Baina, uztailean, Kanadan Tour de l'Abitibi itzulian sailkapen nagusia eta erregulartasunaren puntukako sailkapena ere irabazi ditu, hiru etapatan gailentzeaz gain. Agorrilean, pistako munduko txapelketan parte hartu du Txinan.

Sarako kirol bizitza gehien bat pilotarekin eta errugbiarekin lotzen badugu ere, Larrondek aipatu digunez, «ez pilotan, ezta errugbian ere, bizikletan baino lehen futbolearen eta eskubaloian aritzen nintzen. Konfinamenduan amarekin eta arrebarekin hasi nintzen mendian bizikletan, 2021ean. Gero, Covidarekin ez nekien eskubaloi partidak jokatzeko modurik izanen genuen edo ez eta lagun batek eta biok Senpereko klubean bizikletako lizentzia egin genuen. Horrela hasi ginen, 2022an VTT edo mendi bizikletako

«KRONOAK ETA SPRINTAK DIRA NIRE ESPEZIALITATEA»

lasterketak egiten. Pirinio Atlantikoetako VTT taldean sartu nintzen gero, Frantziako kopa egiteko. Aita, Pascal Larronde nire entrenatzailea hastapenean eta duela urtebetetik honat Ahurtiko Christophe Gigi dut entrenatzaile». Kanadako Tour de l'Abitibi itzulian erakustaldi handia eman du saratarrek bere astebeteko lehen proban, hiru etapa (bat kronoa) irabaziak, baita sailkapen nagusia eta puntukakoa...: «Izugarria izan da bai eta biziki kontent naiz –dio–. Kasik dena eraman dut. Egia da azken etapara minutu bateko aldearekin nintzela, baina 50 kilometro falta zirela, atakatzeko aukera ikusi nuen. Sailkapeneko bigarrenarekin ihes egin nuen eta bi minutu baino gehiagoko aldea atera genion hirugarrenari. Nazioko kopako lasterketa bat zen, baina egia da ez zirela nazio guztietako txirrindulariak joan Kanadara».

Motor handikoa

Motor handiko txirrindularia omen da, «kronoak dira nire espezialitatea. Pistan pertsekuzioan aritzen naiz. Sprintean ona naiz, baina ez dut aukerarik izan sprint handirik egiteko, bakarrik edo talde ttikietan ailegatu bainaiz. Motor handia dutela badakit, baina orain lasterketatan estrategia falta zait. Motorraren garapena eta estrategia landu behar dut». Hobetu beharreko bertze ezaugarrien artean, berriz, mendi handietako igoerak: «Mendian ibili naiz VTTan, baina egia da errepedean mendi handietan hobetu beharko nukeela, badut lan handi bat egiteko. Kontuan hartu behar

«BESTETAN LAGUNEKIN DESFILATZEA MAITE DUT»

da mutil handia naizela, pelotiko pisuenetakoa naiz, 70 kilo ditut, eta txirrindulari arinagoak ni baino hobeto moldatzen dira mendi horietan». Aurten sasoi ederra egiten ari da, Akintania Berriko txapelkun, Primevere Montoise eta Gedimat lasterketak, Tour de l'Abitibi...: «Pistan hasi naizelarik, Frantziako txapelketan lehen bortzetan izatea nuen helburu, kronoan eta errepedean. Errepidean zazpigarren egin nuen eta kronoan laugarren, beraz, helburua lortu dugu. Orain, nazioko kopako lasterketa bat irabaztea sinestezina da».

Mathieu Van der Poel eta Oier Lazkano idoloak

Etorkizun handiko txirrindularia dela diote adituek eta Larrondek aipatu digunez, «profesionala izateko proposizio bat badut heldu den urterako, baina ez dakit oraino hori niretzako ona den edo bertze urteren bat egin beharko nukeen Development ekiparen batean». Gaur egungo txirrindularien artean, «Mathieu Van der Poel da nire idoloa, baina Oier Lazkano ere oso maite dut. Euskalduna da eta oso ona da klasiketan, egun bakarrek lasterketetan, baina ongi pasatzen ditu mendate handiak ere. Gainera beti atakatzan ibili da Frantziako Tourrean».

Kanadan errepedeko garaipen handia lortu ondotik, agorrilean pistan aritu da saratarra, agorrilaren 21etik 27ra pistako munduko txirrindularitza txapelketa jokatu baita Txinan eta Frantziako selekzioarekin aritu da. Txinatik bueltan, Sarako bestak gainean ditu, baina ez daki ospatzeko aukera izanen duen: «Ez dakit Sarako bestetan izanen naizen edo ez, entrenatzailearekin ikusi behar dut». Hori bai, «biziki maite» ditu Sarako bestak eta «gustukoa dut lagunekin egotea eta igandean desfilatzea».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ETXE KONPARTITUAK

DONOSTIA. Unibertsitateko ikaslea pisu eta pisukide bila dabil Donostia edo inguruko herriren batean. ☎617 80 88 48 / 644 17 40 73.

BAZTAN. Pisua konpartitzeko, ahal bada irakasleren batekin. Eguzkitsua 90 m². Hiru logela. ☎659 78 69 52.

BERA, LESAKA EDO ELIZONDON gazte bat pisu konpartitu bila. ☎617 79 34 62.

DONEZTEBE. Kurtso hasieratik kurtso bukaera arte, gela errentan emateko. Komuna pribatua da, egongela eta sukaldea konpartituak. ☎637 35 56 45.

IRUÑEA. Neska batek logela bat partekatuko luke. Norbaitek libre badu, mesedez deitu. ☎649 94 36 52 / 616 95 61 94.

ERRENTAN EMATEKO

SUNBILLA. Pisua errentan emateko. 2 logelako pisua, duela gutxi berritua, 70m², bi balkoi. ☎669 76 77 83.

BERA. 90 m²ko pisua errentan emateko. 3 logela eta garajearekin. ☎669 95 41 35.

ELIZONDO erdian 110 m²ko pisua errentan emateko. Urritik ekainera bitarte. 3 logela eta bi bainugela. Irakasleentzat aukera bikaina. ☎644 46 69 15.

DANTXARINEA. Apartamentua urte baterako errentan emateko. Egon-gela, sukaldea, terraza eta gela batekin. ☎690 38 81 34.

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTANEN, BORTZIRIETAN EDO MALERREKAN pisu, baserri edo etxe bila errentan hartzeko. Hilabetean 1.000 euro ordaintzeko prest. Mas-kotarik gabe. ☎693 69 49 76.

Familia gaztea baserri bila errentan hartzeko, konpontzeko edo zaharberritzeko, Etxalarren edo inguruan. ☎646 67 08 43.

Berara lanera eta bizitzera etorri den familia batek pisua behar du errentan hartzeko. ☎649 33 77 23.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. 71 m²ko lokala errentan emateko. Edozeinentzat biltegitratzeko aproposa, baita tresnak eta abar gorde behar dituzten enpresentzako ere. Berehalako erabilgarritasuna. Ekonomikoa. ☎669 33 61 88.

DENETARIK

IRUN. Jubilazioagatik ortopedia traspasatzeko, urte luzez lanean aritu-

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

✉ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik



takoa, eta orain ere lanean ari dena. ☎688 88 35 38.

LURRAK/ORUBEAK

EROSTEKO

Belai edo landa lursail (*rustico*) baten bila. 3.000 metrotik gotikoa. Borda-rekin edo gabe. Elizondo eta Elizondoko inguruko herrietan. ☎629 56 49 22.

LANA

ESKAINTZAK

IBARDIN. Benta Mendi Mendien jatetxerako zerbitzari baten bila. Orduetgia 11:30-16:30 eta astero bi jaiegun. Frantsesez solastatzea kontuan hartuko dute. Bidali curriculumak: mendimendian@hotmail.com. Edo deitu. ☎948 63 07 23.

IBARDIN. Benta Mendi Mendien jatetxerako sukaldari baten bila. Orduetgia: 09:00-16:30 eta bi jaiegun astean. Bidali curriculumak: mendimendian@hotmail.com. Edo deitu. ☎948 63 07 23.

BERA. Eguberrietako kanpainarako Martikoko lantegietarako produktio-ko langileen bila ari dira. Uda ondotik sartzeko interesa baduzu, deitu 699 77 56 21 edo eman izena webgunean <https://martiko.com/personas-martiko/ofertas-de-trabajo/>.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,48 €
- 1.koa 5,36 €
- 2.koa 5,24 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,59 €
- 1.koa 5,45 €
- 2.koa 5,34 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 210,00 €
- Idixkoak 150,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,49/5,59 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,80/8,90 €
- 8-10 kilokoak: 7,40/8,10 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 58 €

Zerri gizona 1,836 €

Zerramak 0,820€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abuztuaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ARIZKUN. Berro Bide enpresan mekanikoa eta soldatzaila behar dituzte. Bidali Curriculumak info@berrobide.com helbidera. ☎948 45 33 43 / 690 94 18 01.

ELIZONDO. Zahar etxean lana egiteko auxiliarrak behar dituzte goizez, arratsaldez eta gauzez lan egiteko. Hainbat ordutegi. Bidali curriculumak: admin@zlbaztan.com edo administracion@zlbaztan.com.

DANTXARINEA. Benta Peion saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travaillezevecnous@venta-peio.com.

IBARDIN. Benta Peion saltzaileak behar dituzte. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travaillezevecnous@venta-peio.com.

DANTXARINEA. Mas Por Menos dendan lanaldi osoan aritzeko bi langile behar dituzte (40 ordu). Iraitlean hasi eta epe luzearako. Frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. ☎687 73 92 40.

IBARDIN. Benta Gorrian zerbitzari bat behar dute. Orduetgia: 12:00-16:00. Frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. Bidali curriculumak: bertagorria@hotmail.com. ☎618 00 27 31.

IGANTZI. IrrisarriLanden irailaren 15etik azaroaren 8ra zerbitzari bila. Lanaldi osoan eta asteleheneetik ostiralera: 08:00-16:00 / 16:00-00:00. Taldeei zerbitzua emateko. Zerbitzari lanetan esperientzia izatea eta gida baimena izatea kontuan hartuko dute. Euskaraz jakitea derrigorrezkoa. CVa bidaltzeko: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22, 948 92 89 13.

IGANTZI. IrrisarriLanden irailaren 7an hasita urte osorako zerbitzari bila. Lanaldi osoa eta jarraitua: 08:00-16:00/16:00-00:00. Esperientzia izatea, gida baimena izatea eta bertze hizkuntzak jakitea kontuan hartuko dute. Bezeroen arreta, mahai eta erreserben kudeaketa, inbentarioan eta stockean laguntzea eta kaxaren kudeaketa. CVa: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

IGANTZI. IrrisarriLanden irailaren 7an hasita, asteburuetan urte osoan aritzeko zerbitzari bila. 16 ordu, lanaldi jarraituan. Esperientzia izatea, gida baimena izatea eta bestelako hizkuntzak jakitea kontuan hartuko dute. Bezeroen arreta, mahai eta erreserben kudeaketa, inbentarioan eta stockean laguntzea, eta kaxaren kudeaketa. CVa: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

IGANTZI. IrrisarriLanden abendura arte lan egiteko harreragile bila. 32 orduko lanaldia (4 egun lan eta 3 libre). 8 orduko lanaldi jarraitua. Bezereen arreta, erreserben kudeaketa eta sarreraren salmenta. Euskara jakitea eta gidabaimena derrigorrezkok. CVA bidaltzeko: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

DONEZTEBE. Suma harategian langile bila. Lanaldi osoan aritzeko, astelehenetik larunbatera, goizez eta arratsaldez. Hilabeteko soldata gordina 1.296,25 euro. Bidali curriculum-a: supermercadoslink@gmail.com. Edo deitu. ☎948 45 08 71.

ESKARIAK

BORTZIRIAK. 41 urteko emakumea interna lanean ariko litzateke. Lesakan errolatua eta erreferentziakin. Euskaraz harremanetan jarri nahi izanez gero, 649 72 96 65 zenbakira deitu, eta gaztelaniaz, telefono zuzena, ☎631 30 99 36.

Gizon euskalduna astegunez lan bila dabil jardunaldi erdian aritzeko, 20 ordu astean. Jende helduaren zaintza, garbiketa, lorezain eta abar. ☎675 03 14 77.

59 urteko gizonezko bat lan bila, % 33ko desgaitasunarekin edozein lanetarako eta edozein ordutegian aritzeko prest. ☎659 09 13 05.

DENETARIK

SALEROSKETAK



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Beratik Lizuniagarako bideko 2. kilometroan giltza hauek aurkitu dituzte. ☎636 59 32 42.

LESAKAN EDO IBARDINEN audifono batzuk galdu dituzte euren kaxa zurian. Aurkituz gero, deitu faborez, ☎618 96 26 45 (Ana).

LEITZA. Eratzun bat galdu zuten uztailearen 27an, larunbata, plazan, uste dutenez. Zilar kolorekoa eta erdian harri batekin. Oroigarri bat da eta berreskuratu nahi dute, sari bat eskainiz. ☎616 76 89 46.

Berako bestetan zilarrezko eskumuturreko bat galdu zuten. Katea fina eta erdi-erdian zorrea ematen duen begi urdinaren irudia du. ☎659 32 71 97.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Katakume bixi eta maitagarria etxe bila. ☎652 75 08 17.

MOTORRAK

SALGAI



Fiat Panda 1.3 Multijet 4x4 autoa salgai. 96.000 km. Remolkerako engantxearekin. ☎686 54 46 45.

TAILERRAK

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT SYMBIOZ BERRIA! FULL HYBRID 145 CV 0 KM
Aukera paregabea!
www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@talleressantesteban.com

744 484 361
ttipi-ttapa

URTEBETETZEAK



Amaiurko **Xana Mujika Elizalde** txirridulariak abuztuaren 16an urteak bete ditu. 9 muxu haundi!!



Ilargi Gago Tellebxeak urtea bete du abuztuaren 13an. Zorionak etxeko ilargitxo alaiari! Eskerrik asko urte zoriontsu hau emateagatik. Muxu bat, amatxo eta atabxo.



Sara Gomez Ribeirok 5 urte bete ditu abuztuaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta bereziki Nahieren partetik!



Narbarteko **Unai eta Saioa Zubigarai Bertiz** gure etxeko 2 saltseroek abuztuan urteak bete dituzte. Zorionak **Unai eta Saioa!** Muxu haundi bat familia guztiaren partez, bereziki Luaiaren partez. Maite zaituztegu!



Naia Ispasoiu Apezetxea goizuetarrak 2 urte bete ditu abuztuaren 18an! Muxu asko Goizueta eta Curtea de Argueseko familiaren partetik eta bereziki muxu potolo bat Enaitzen partetik.



Irailaren 14an eta 20an hiru eta urte bat beteko dituzte Leitzako **Aritz eta Garazi Sagastibelza Lazkano** anai-arrebek. Zorionak eta besarkada estu bat etxekoan partez!



Arantzako **Xune Sorli Lizardik** urte bat bete du abuztuaren 26an. Zorionak gure etxeko ttikiari familia guztiaren partez! Aunitz matte zattugu!

Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senideak TTUPI-TTAPAREN bitartez!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

Bulegoan eta postaz Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.

Whatsapez 744 48 43 61 zenbakira idatzita.



Carmen eta Consolacion Zubiri ahizpek urteak beteko dituzte irailaren 10ean. Zorionak eta aunitz urtez!

OROIGARRIA

Juli
LATASA ELIZAGOIEN
Lesakan, 2024ko uztailaren 25ean

IZAN ZARELAKO GARA!
Mila esker eman diguzun guztiagatik!



ETXEKOAK

OROIGARRIA

Josetxo
TELLETXEA OTXANDORENA
Donamarian, 1941/03/19 - 2024/08/15

*Familia, lana eta lurra
izan da zure bizimodua,
guk beti segituko dugun eredu.*

**Eskerrik asko
emandako guztiarengatik.**



ETXEKOAK

OROIGARRIA

MARIA ZABALETA
TELLETXEA
1985/08/13-2024/02/26

*Zenbat oroitzapen, hainbat istori,
beti gure etxeko bixigarri.*
*Zenbat besarkada, hainbat irri,
gure bihotzetan betiko maitagarri.*
*Zenbat hutsune, hainbat zauri,
faltan botatzen zattugu izugarri.*

*Zauden lekun zaudela,
39 zorion, Mari!!*




OROIGARRIA

Olatz URRESTI GOMEZ

*Lekauzen sustraiak sendo, zenituzten lurperatu,
lagun onak egin eta ebaki, trago ta kantu.*
*Iritsi den berri honek, erditik puskatu gaitu,
Olatz, bizitzak maltzurki, tratatu egin baitzaitu.*
*Bertso honen doinuekin, nahi zaitugu besarkatu,
eta irribarre goxoz, bizipenak gogoratu.*
Elkarrekin bizitako, une guztiak dastatu.
Bidaia ona, maitia, aunitz zaitugu maitatu!


LEKAUZKO LAGUNAK



OROIGARRIA

Patxi
PIKABEA ALZUGARAI
1939/11/11-2024/07/15

*Argi bat itzali da hemen lurrean,
Berri bat biztu da han zeru ederrean.*
Gure oroimenean izanen zara betiko.
*Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.*



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Joakin
SALABERRIA ERRANDONEA
Altuarte
1967-10-02 / 2023-08-31
I. URTEURRENA





*Urte bat joan zinela hemendik Joakin,
Betiko, bihotzean egonen zira gurekin.*

Baztan Bidasoa
Ehorzketak



BAZTAN
ELIZONDO · Santiago Kalea, 79

MALERREKA · DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU
365 EGUN

948 48 95 50

info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko



MÁRMOLES
AMEZTI
Desde 1994

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com · www.marmolesamezti.com

lruñea Irun errepidea, z/g.
ORNOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

OROIGARRIA



**Martin
BEGINO GARRO**
Donezteben, 2024ko abuztuaren 22an

*Pilotazaletasuna,
zuretzako zen kuttuna,
herria eta lagunentzako
zure maitasuna.
jatorra ta zentzuduna,
aunitz da jaso duguna,
ez adiorik besarkada bat
gero arte laguna.*

ZURE LANKIDE ETA LAGUNAK

OROIGARRIA



**Pepi
OLAETXEA ALTZUGARAI**
Juan Enrique Abril Berasainen alarguna

Beran hil zen, 78 urte zituela,
2024ko abuztuaren 25ean

*Sinisten dut,
hartuko nauen lur horretatik,
landare berriak sortuko direla.*

Egunotan jasotako maitasun mezu guztiak eskertu nahi
ditu familiak. Gisa berean, gure esker onik beroena
osasun profesional guztiei emandako laguntzarengatik.

ETXEKOAK

OROIGARRIA

**Manuel
GOIENETXE IRUNGARAI**
Amaiurren, 2024ko abuztuaren 22an,
71 urte zituela

*Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.*



HARRI LAN S.L.
ETA BERE LANKIDEAK

OROIGARRIA

**Miguel Mari
JUANIKOTENA HITA**
Mayi

Elizondon, 2024ko abuztuaren 22an,
77 urte zituela

*Hainbertze maite zuen Elizondo,
ez zuen sekula atera nahi izan bertatik.*

GOIAN BEGO

ZURE FAMILIAK MAITE ZAITU



IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

HILBERRIAK

- **Brigida Leiza Petrarena**, Lesakakoa, uztailaren 19an, 80 urte zituela.
- **Francisco Mitxelena Petrarena**, Arantzakoa, uztailaren 21ean, 79 urte zituela.
- **Juan Bautista Goienetxe Galarregi**, Etxalarkoa, uztailaren 24an, 91 urte zituela.
- **Juli Latasa Elizagoien**, Lesakakoa, uztailaren 25ean, 68 urte zituela.
- **Jean Pierre Elizagarai**, Elizondokoa, uztailaren 29an.
- **Esther Irazoki Gainza**, Berakoa, uztailaren 29an, 88 urte zituela.
- **Olatz Urresti Gomez**, Lekaroz, uztailaren 29an.
- **Jose Luis Arretxea Iturria**, Etxalarkoa, uztailaren 30ean, 88 urte zituela.
- **Manuel Ormart Garbalena**, Elizondokoa, uztailaren 31n, 87 urte zituela.
- **Juan Fermin Zestau Zubitur**, Leitzakoa, abuztuaren 6an, 84 urte zituela.
- **M^a Pilar Rekarte Iturburu**, Erratzukoa, abuztuaren 9an, 80 urte zituela.
- **Jon Ordoki Matxikote**, Berakoa, abuztuaren 11n, 22 urte zituela.
- **Martin Sarratea Etxegarai**, Elizondokoa, abuztuaren 14an, 87 urte zituela.
- **Josetxo Telletxea Otxandorena**, Donamariakoa, abuztuaren 15ean, 83 urte zituela.
- **Paco Iruueta Indakoetxea**, Berroetakoa, abuztuaren 16an, 94 urte zituela.
- **Inazio Olano Sestorain**, Leitzakoa, abuztuaren 21ean, 88 urte zituela.
- **Manuel Goienetxe Irungarai**, Amaiurkoa, abuztuaren 22an, 72 urte zituela.
- **Martin Begino Garro**, Doneztebekoa, abuztuaren 22an, 67 urte zituela.
- **Mariasun Agirre Iparrea**, Arizkungoa, abuztuaren 22an, 62 urte zituela.
- **Miguel Mari Juanikotena Hita**, Elizondokoa, abuztuaren 22an, 77 urte zituela.
- **Bautista Loiarde Santesteban**, Zubietakoa, abuztuaren 22an, 60 urte zituela.
- **Pepi Olaetxea Altugarai**, Berakoa, abuztuaren 25ean, 78 urte zituela.
- **Ana Zabaleta Sagastibeltza**, Leitzakoa, abuztuaren 25ean, 66 urte zituela.
- **Teresa Ariztegi Juanena**, Zubietakoa, abuztuaren 25ean, 83 urte zituela.
- **Esteban Goia Zozia**, Igantzikoa, abuztuaren 25ean, 94 urte zituela.
- **M^a Pilar Apeztegia Valcarlos**, Doneztebekoa, abuztuaren 25ean, 91 urte zituela.
- **Felisa Ezkurra Goienetxe**, Oronoz-Mugairikoa, abuztuaren 26an, 95 urte zituela.

EZKONTZAK

- **Jean Francois Sarasketa** eta **Severine Gourcy**, uztailaren 20an Saran.
- **Ramuntxo Soudre** eta **Maitane Gerard**, uztailaren 27an Saran.

SORTZEAK

- **Manex Etxeberria Telletxea**, Arantzakoa, uztailaren 20an.
- **Ibai Gaztañaga Onsalo**, Aresokoa, uztailaren 30ean.

KONTATU KONTUAK



JUAN MARI ONDIKOL

Pedro Torralbari omenaldia Baztanen. Azkeneko 50 urteotan klubaren alde egindako lan guziaz eskertzeko, Baztan Kirol Elkarteak omenaldi hunkigarria egin zion joan den abuztuaren 8an Pedro Torralba Albarrani. Gainera, aurtengoa denboraldi berezia da 1925ean sortu zen taldearendako, 100 urte beteko baititu.



KATEZ

Katez taldearen agurra. 2014an sortu zuen Katez musika taldea Leitzako gazte kuadrilla batek: Unai Urkiolak (ahotsa), Markel Barriolak (ahotsa), Mikel Sagastibeltzak (gitarra), Manex Morenok (gitarra), Julen Zeballosek (baxua) eta Oinatz Mariezkurrenak (bateria). Hamar urteko ibilbidearen ondotik, Leitzako Atekabeltz gaztetxean eman zuten uztailaren 20an agurreko kontzertua.

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak, bikoitzak edo sinpleak...
- Gutun-azalekin entregatzen dira

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

Kontatu, kontatu!

Argazkiren bat erakutsi nahi baduzu, bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira.

ITZALAREN ALDEAK

Begiratu bi irudi havei. Itzala ez da erabat zuzena, ezta? Aurki itzazu bien arteko aldeak. Hamabi dira guztira.



Eman zure gustuko koloreak saltari trakets havei.



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

<http://plazanbazan.eus/>

Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Alurri)

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin.
Ttipi-Ttapako Whatspera: (0034) 744 48 43 61
zure izen-abizenak jarrita.
WOWpark sarreraren zozketan parte hartuko duzu!



Euskara eroso bizitzeko

Vive el euskera cómodamente



Baztango AEK Suinki euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

Maila guztiak – Ordu-tegi guztiak · Todos los niveles y horarios

B1, B2 eta C1 prestatzeko ikastaroak

Baztan Berri, 7 · 607 605 802 · baztan@aek.eus

DIRULAGUNTZAK / BECAS

Baztango Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak
Ayudas del Ayuntamiento de Baztan y del Gobierno de Navarra